

# JAKIN

## NAFARROA

J. Bueno Asin	M. K. Mina
Idazkaritza	J. I. Ruiz Olabuenaga
J. M. Jimeno Jurio	J. M. Satrustegi
P. M. Larunbe	J. M. Torrealday
J. A. Mendikute	V. Urrutia

Kultura Historia

Hauteskundeak Administralgoa

Ekonomia Etnografia

Apirila  
Ekaina



1978

Piarres Broussain • «El baile de la cisterna» • Nafarroa  
bahitua • Lenin paperontzira • Liburuak aztertzen • Prentsa  
katalana krisian • Nafarroako euskal idazleak • Bibliografia

Zuzendaritza: Luis Antonio Bilbao Monasterio (kazetaria), Joan Mari Torrealdai

**aurkibidea**

	<b>Zenbaki honetan</b> ... ..	<b>3</b>
<b>GURE ERITZIZ</b>	<b>Nafarroa bahitua</b> ... ..	<b>5</b>
<b>NAFARROA</b>	Jose Mari Satrustegi	
	<b>Nafarroaren ordua</b> ... ..	<b>12</b>
	Joan Mari Torrealdai	
	<b>Nafarroako euskal idazleak</b> ... ..	<b>24</b>
	J. M. Jimeno Jurio	
	<b>Historia laburra</b> ... ..	<b>32</b>
	Pedro M. Larunbe	
	<b>Nafarroaren administralgo berezia dela eta</b> ...	<b>46</b>
	Jesus Bueno Asin	
	<b>Nafarroako ekonomiaren arazoak</b> ... ..	<b>55</b>
	Jose Antonio Mendikute	
	<b>Kontzentrazioa eta osagarritasuna euskal ekonomian</b> ... ..	<b>68</b>
	Mari Kruz Mina	
	<b>Nafarroaren egungo historiari sarrera</b> ... ..	<b>75</b>
	José I. Ruiz Olabuenaga — Victor Urrutia	
	<b>Nafarroako hauteskunde orokorrak</b> ... ..	<b>88</b>
	<b>Bibliografia</b> ... ..	<b>100</b>

JRAIN ETA HEMEN	<b>Lenin paperontzira</b> (M. Pagola). <b>Prensa katalana krisian</b> (J. Intxausti). <b>Tolosan «El baile de la cisterna»</b> (J. Altzibar). ... .. 103
GAIAK	Piarres Xarriton <b>Piarres Broussain (1859-1920)</b> ... .. 108
LIBURUAK	<b>Testuak aztertzen</b> (I. Sarasola) ... .. 111 <b>Erdal liburuak Euskal Herriaz</b> ... .. 113 <b>Jaso ditugu</b> ... .. 118
OHARRAK	... .. 119

Idazkaritza eta administrazioa	<b>Soldadu kalea / Cuartel, 2 Tolosa (Gipuzkoa)</b>
Jabegoa	<b>Anaidia, Arantzazu</b>
Dep. Leg.	<b>S. S. 25/1977</b>

*Jakin* aldizkariaren bigarren aldiko seigarren zenbakia duzu eskutan.

Zenbaki honen gai nagusia, ezin gaurkoagoa da: Nafarroa, euskal herri berezi eta handi hori. Nafarroaren gai zabal hau hiru une edo ikuspegitan ikusi nahi genuke. Lehen puntuan, Nafarroa zertan den euskal herri, zertan den berezi ikusiko dugu: antropologian, historian, kulturaren eta hizkuntzan oin harturik ekingo diote egileek: «Nafarroaren ordua», Jose Mari Satrustegik, «Nafarroako euskal idazleak», Joan Mari Torrealdayk, «Historia laburra», Jose Mari Jimeno Juriok, «Nafarroaren administralgo berezitasuna dela eta», Pedro M. Larunbek.

Gai nagusi honen bigarren arloa, gaurko uneari hertsiki lotua da. Nafarroaren eta gainerako euskal herrien aspaldi batetako loturak alde batetara lagata, gaurregun bizi dugun egoerari begiratu bat ematen diote gure egileek ekonomi aldetik. Eskualde ekonomikoa kontzeptua kontutan harturik abiatzen dira bai Jesus Bueno Asin bere «Nafarroako ekonomiaren arazoak» idazlanarekin eta input-cutput taulen azterketan Jose Antonio Mendikute: «Kontzentrazioa eta osagarritasuna Euskal Ekonomian».

Hirugarren puntua, ikuspegi politikoa da, bi lanek osatua: Mari Kruz Minaren Errepublikara garaiko indarren egoerazkoak: «Nafarroako egungo historiari sarrera» eta azken hauteskundearen azterketak: «Nafarroako hauteskunde orokorrak», J. I. Ruiz Olabuenaga eta Victor Urrutiaren artean eginak.

Bibliografia batez osatzen dugu monografia hau ere, artikulugileek berek emandako liburuetatik oinharritzkoenak hautatuz.

*Gaiak* sailean, Piarres Xarritonek Iparraldeko euskaltzale

bat azaltzen digu: Piarres Broussain. Hain zuzen, zenbaki hau kaleratuko denerako, omenaldi bat eskainia izango dio Euskaltzaindiak Hazparne bere herrian.

*Liburuak* sailean, jaso ditugun liburuen berri ematen dugu, hiru mailatan bereizirik: euskarazkoen tratamendua, bata (bartzutan sakona); Euskal Herriaz ari diren erdarazko liburuen berri ematea, bestea; eta, hirugarrenez, erdal liburu arrunten aipamena.

## *Nafarroa bahitua*

«Behin batean ba zen ama bat, bost seme zituen.

Bi jaun handizale bizi ziren hauzoan, eta morroin bila zebiltzan. Amak, ordea, ez zituen bere semeak inoren morroin ikusi nahi. Baina bi jaunek soldata koskor bana eskaini zieten bost semeei, eta beren etxeetara eraman zituzten morroin bezala: batak hiru eta besteak bi.

Baina bi jaunek ama gaztea ere nahi zuten, nork bere etxerako neskame bezala. Burruka luzea egin zuten elkarren kontra, ama nork bereganatuko.

Azkenean biak elkartu, eta alaba bat eginerazi zioten indarrez. Horrela, neskame bana izan zuten. Hiru seme zituen jauna geratu zen amarekin, eta bi zituen alabarekin».

*Ipuin batetarako haria da hori. Baina Nafarroaren eta beste euskal Herrialdeen azken mende luzeetako historia ez da ipuina, drama latza baizik. Ia ia tragedia!*

*Oihu larri ala eztabaida hotz bihurtu ohi da gaurregun sarritan euskal familiaren drama. Oihuka ari da euskaldun asko, «Nafarroa Euskadi da» oihukatuz, beren buruei horixe sinesterazi nahian edo. Eztabaidaka ari da zenbait, Nafarroak euskal odola duela ez duela, bere etorkizuna Euskal Herrian duela ala ez duela, kontrakoari, arrazoin hotzaren hotzez edo, sinesterazi nahian. Oihua konprenitzen dugu, familia hautsiaren garrasi bezala; eztabaida hotza ez dugu ulertzen, arrotza zaigulako.*

Jakin-en zenbaki hau programatu eta idatzi dugunok ez gatoz ez oihuka, ez eztabaidaka. Uste sendo bat dugu: Nafarroak eta beste euskal Herrialdeek (Hegoaldekoek eta Iparraldekoek) Herri bat osatzen dutela: Euskal Herria. Deitu Vasconia edo Euskadi, berdin da.

Eta hastapenetik dugun uste horixe erakustera besterik ez gatoz: Historiaren, kultur tradizioaren, egitura, dinamika eta proiektu ekonomikoaren, politik dinamikaren aldetik.

### **Nafarroa Nafarroaren truke**

XIII. mendea. Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba, bertako jauntxoek pribilegioak tarteko zirela, Gaztelako erreinuak bereganatu, eta euskal Estatu historikoa zatikatu.

XVI. mendea. Fernando el Católico-ren armadak Nafarroa konkistatu eta anexionatu.

XIX. mendea. Nafarroako burgeseria lurjabea, Bizkaiko burgeseria industrialia eta Gipuzkoako burgeseria merkataria, denak bateratu eta Euskal Herriaren eskubide historikoak zentralismo burgesari saldu.

Honela zatika-zatika etsiaz joan zen Vasconia Erreinu historikoaren burujabetasuna: Aldian aldiko jauntxoek interes ekonomiko-politikoak eskuetatik.

Baina ez zen artean burutua etsipena.

«Navarra no es negociable», diote orain betiko jauntxo lurjabeen ondorengoek. Nafarroa ez dago salgai, dagoeneko beroriek saldua bait dute eta zentralismoari merkantzia politiko bezala trukatu. Nafarroaren berjabetasun politikoaren truke, beren feudo ekonomiko bezala eskuratu dute Nafarroa bera. Eta trukearen trukez, nolabaiteko autonomia fiskal eta administratibo hutsa izateraino hustu eta balio gabetu dute horren gobernamentu foral jatorrizkoa: 1841eko «Lege Hitzartu»tik hasi, eta gaur arte. Francoren «Laureada» eta guzti tarteko.

Oinharri bat du guzti honek tinkoa: «Nafarroan Madrilek gobernatzen du eta bertako jauntxoek agintzen»; eta praktika bat iraunkorra: Herriaren lurrak burgeseria lurjabearen eskuetara pasa eta, gainera, lurlangintzaren egitura «feudalistar» eutsi. Guztia Nafarroako jauntxoek faboretan, eta Nafarroako Herriaren kaltetan.

Ondorioz, betiko zentralista estatelisten aldetik nahiz lehengo eta oraingo nafar jauntxoan aldetik Nafarroari eskaintzen zaizkion «asmo salbatzaileak» —inongo «inbasio-tatik eta Inperialismotatik» salbatuko omen dutenak— ez dira asmakeria ideologiko besterik: Nafarroa zentralismoaren merkantzia politiko bezala eta jauntxo modernoan feudo ekonomiko bezala iraunerazteko asmoa estaliko dutenak.

### **Nafarroa, bahitura politikoa**

*Bahitu egin dute Nafarroa! Indarkeriaz konkistatu eta anexionatu ondoren, bahituta dauka zentralismoak. Harra-paketa eta hipoteka: biak adierazten ditu bahitura hitzak, Azkueren Hiztegiak dioenez. Anexionatu ondoren, hipotekatzat eta etengabeko xantaibidetzat erabiltzen du zentralismo estatalistak Nafarroa, beste euskal Herrialdeen burruka eta eskabideen aurrean.*

*Jakina da Espainiako estatalismoak Madrildik egiten duela Euskal Herriarekiko politika, hori Vascongadas-en eta Nafarroaren artean zatikatu ondoren. Horretarako daude eskolan eta telebista-irratietatik irakasten zaizkigun geografia eta historia.*

*Nahikoa da orduan zatiketa hori oinharrian jartzea, partidu bakoitza Euskal Herriarekiko politika egitean Nafarroa bahituaz baliatzeko, aldiko, horren espainoltasuna ala nafartasuna ala euskaltasuna aitortuz eta defendatuz.*

*Nafarroa «bahituaz» baliatzen da estatalismo zentralista Euskal Herriak bere eskubide politikoen alde jartzen dizkion burrukak makaltzeko eta eskabideak itozteko. Bide guztiak dira onak horretarako: Nafarroa beste euskal Herrialdeen kontrako gatazkara bota, 1936an bezala; negoziagai eta xantaia bezala erabili, beste euskal Herrialdeei «kontzesio» autonomikoren bat egin aurretik, azken «Autonomiaurreko» honetan bezala.*

*Zoritxarrez, inoiz Euskal Herritik Herri honentzako politika nazionala egiten omen dutenak ere prest izaten dira Nafarroa saltzen uzteko, unean uneko UCDren eskuetan entregatzeko.*

*Hurrengo Autonomiarako negoziaketak eskainiko dizki-gutenerako, erne egon beharko dugu, berriz ere, Nafarroa*



negotziagal eta xantai tresna bezala jarri ez diezaguten mahain gainean.

### Nafarroaren kateak hautsi

Nafarroako Errege hark, Bizkaiko jaunarekin batera, hautsi zituen kateak, Espainiako beste herriak askatzeko. Baina askatasunaren sinbolo bihurtuak ziren katea hautsiak, Euskal Herri osoa lotzeko erabili ditu zentralismo estatalak, «laureada»rik gabe ala «laureada» eta guzti.

Hauxe izan da Nafarroaren eta beste euskal Herrialdeen zorigaiztoa. Berriz ere elkartu beharra daukate, berriz ere kateak hausteko.

Nondik nora?

Nafarroa eta Euskadi... Nafarroa ala Euskadi... Nafarroa bai, Euskadi ere bai! Nafarroa Euskadin integratu, Euskadi Nafarroan itsatsi! Bikote zoro honetatik libratu beharra daukagu.

Godogandik hasirik, euskaldun guztiak ziren baskoinak, eta baskoin guztien errege, Antso Handia. Nafarroatik etorri zen lehen aldiz (1878an), Sabino Anara-Goñirengandik baino lehenago, «Zazpiak Bat» lema; Nafarroatik, Euskal Herriaren lehen autonomi Estatutuaren proiektua (1883an), Euskal Herri Hegoalde osorako Unibertsitate Barrutiaren proiektua bezala (1868an).

Nafarroaren eta beste euskal Herrialdeen baterakuntza ekonomikoa egina dago gaurregun, bestelako unitate artifizialik asmatu aurretik.

Gure eritziz, argi dago: Nafarroaren eta beste euskal Herrialdeen askatasuna, autonomia, etab., banaezinak dira. Kateak berberak dituzte: bertako jauntxo eta oligarkenak eta zentralismo estatalistarenak. Euskal Herria, osoan eta batean askatuko da, ala ez da askatuko.

Hala ere, eta beti Nafarroaren eta beste euskal Herrialdeen etorkizun batua ukatzeko eta eragozteko, ideologia eta irtenbide politiko ezberdinenak asmatu ohi dituzte, Madrildik Euskal Herriarekiko politika egiten dutenek:

1. Nafarroaren espainolismoa, horren historia eta izaera sozio-kulturazkoa eta ekonomikoa ahantzerazi nahi duena, nazionalismo espainol zentralistaren ametsen al-darean.

2. *Nafarroaren nafarrismoa, horren gobernamentu foral jatorra eta jatorrizkoa, herritik sorturiko eta herrian finkaturiko egitura politiko ez, eta bai fuerismoaren gainegitura ideologiko bihurtu nahi lukeena: Nafarroa «uhartearen» ideologia, halegia.*

3. *Nafarroaren europeismoa: Hauxe da Madrildik «salbatu» nahi luketen azken aldiko aurkikunde burutsua (!): Nafarroa Europaren sintesi kulturala bezala definitu, eta horren irtenbide ekonomikoa Europaren zelai zabaletan amestu nahi lukeena. Euskal Herritik pasa gabe, alajainkoa!*

*Guretzat, benetan, Nafarroa ez da negoziagaia! Horregatik, Euskal Herri osoaren baterakuntza eta askatasuna, hemendik bertatik egiten den politika nazional, herritar, autonomo eta abertzaletik datozela uste dugu.*

*Horregatik, Nafarroarenak ere bai!*



j. m. satrustegi  
j. m. torrealday  
j. m. jimeno jurio  
p. m. larunbe  
j. bueno asin  
j. a. mendikute  
m. k. mina  
j. i. ruiz olabuenaga — v. urrutia

# NAFARROA

## **Nafarroaren ordua**

Nafarroaren izaera zalantzan. Nafarroa, Euskal Herri. Barnetik arima hustutzen. Erdal heziketaren eraso. Nafarroaren euskal nortasuna.

## **Nafarroako euskal idazleak**

Nafarroaren ekarria euskal literaturan. Nafar idazleriaren berezitasun zenbait.

## **Historia laburra**

Batasuna eta aniztasuna. Kolonikuntza: Erroma, Toledo eta Cordoba. Batasun politikoa. Gaztela eta Frantziarekin. Nafarroa Gaztelarekin. Zentralismoa.

## **Nafarroaren administralgo berezia dela eta**

Noiz eta nola galdu zuen Nafarroak bere burujabetasuna. 1841eko Legeaz geroko Foru Gobernabidea.

## **Nafarroako ekonomiaren arazoak**

Nafarroaren eboluzio azkarra. Herriak eta hiriak. Egitura ekonomikoa. Nafarroaren etorkizuna.

## **Kontzentrazioa eta osagarritasuna euskal ekonomian**

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa. Nafarroa. Osagarritasuna: Nafarroa eta hiru euskal probintziak.

## **Nafarroaren egungo historiari sarrera**

Karlistada eta 1841eko Lege Hitzartua. Oligarkia eta «Nafartzaletasuna». Euskal abertzaletasuna. Karlismoa. Ezker politikoa.

## **Nafarroako hauteskunde orokorrak**

Bereizgarriak nagusienak. Hiru ondorio. Indarrak mapa politikoan. Ondorio gisa.

## **Bibliografia**

# Nafarroaren ordua

J. M. Satrustegi

## Sarrera: Nafarroaren izaera zalantzan

Gaurkotasun haundiko gaia dugu Nafarroako euskal giroaren eztabaida. Nafarroa bai, eta Nafarroa ez; Euskal Herriarekin joanen, ala Aragoi aldera itzuliko. Hitz bitan esateko: geure nortasunaren jabe izango garen ala, U.C.D. delakoaren eskutik Madrilen bezero, hara azken aldiko boladan Nafarroaren koxka.

Ez da bitxikeria hutsa. Oinarrizko zerbait dago zalantzan: Nafarroaren izaera eta nortasuna.

Atzeramendu haundia izan du, horrexegatik, Euskal Herriko aurre-autonomiak, eta jendea kaleratzeko zorian egon gara une batez. Gehiegizko ez ote? Gabon aurreko egunetan hamabi orduz ihardun dute parlamentariak elkarrizketan. Nafarroakoak, noski, oilategian bait ditugu azeriak. Eta gauerdian ondoan izenpetu zuten, aspaldi ontzat eman beharra zegoen erabakia.

Aurre-autonomia horrek eskaintzen duen mami baino gehiago, joera baten zapalketa zekarren agiriak. Unibertitate barruti mailan ziria sartu ondoan, negargarria izango zen bigarren ostikoa hartzea. Azpiegitura bat besterik ez da oraingoa, baina behar-beharrezkoa etxea jasotzekotan.

Hori dela eta, Nafarroaren euskal sena aztertu nahi genuke. Ez da erraza. Nafarroa herrialde zabala da eta ezberdina. Beste herri batzuekin harreman asko izan du historian zehar, eta alderdi bateko jokabidean burua garbitua du, bere nortasuna ukatzeraino.

«Zuek euskaldunok —esaten digute Erriberan— joan, nahi baduzue, euskaldunekin; gu nafarrak gara». Hizkuntzarekin loturik ikusten dute norberaren izaera; ifernuko galtxagorri bere adar haundi ta guzti ekartzen die gogora euskaldunaren izenak.

Egoera honetan, gauzak hala daude nahi badugu eta ez.

Beste zerbait ere esan beharra dugu, hala ere: giro hau ez dela, alegia, bere buruz sortu. Eragin indartsuak ekarri duela honetara. Aspaldiko ereintza baten sasi fruitua da; korapilo askotxo duen artilearen hari muturra.

### Nafarroa, Euskal Herri

Historian zehar, Nafarroa Euskal Herria dela ukatzerik ez dago. Duela bi mila urteko Estrabonen Geografiatik hasita *baskoi* deituak dira lurralde honetako jendeak. Hego Euskal Herriko beste lurraldeak, euskara mintzo bazuten ere, Bardul, Karistio eta Autrigoi deitzen zituzten, eta nafartarrengandik dute *baskoi* izena.

Ikasien artean gure etsaiak ere aitortzen dute, noski, hau.

Geroztik, Nafarroak bere euskal nortasuna eztabaidatzera heldu arte, nolabaiteko gurutzebide luzea ibili du. Herri joa izan da, alde guztitatik zigortua eta minberatasun bat dario.

### Nafarroaren etsaiak

Nafarroaren etsaiak, batzutan, arrotzak ziren; kanpotik zetokion. Ipar aldetik indoeuropeo azkarrak, eta hegoaldetik Afrika aldeko gudariak; handik frankoak eta hemendik arabiarrek. Beti Paris eta Madril arteko erdibide. De Gaulle ala Franco. Edo biak.

Bianako Erregegaiak ongi igerri zion bezala, alde bietatik erbi zakur hanka luzeek murtxikatutako hezurra zen ordurako gure Nafarroa. «Utrumque roditur» dio latinez harmarriak. Alde bietatik hozkatua.

Ebro hibaiko muga galdu zen lehenik, eta arabiarrekin joan zen pikutara Erriberako euskara. Orreaga aldean, tokiaz baliaturik, jakin zuten geure eskubideak hobeki zaintzen. Abderraman

Hirugarrenak ere Auñamendi aldean aurkitu omen zuen hilobia. Nola edo hala, mendiei lainoa bezala loturik gorde zaigu Nafarroan Euskara.

Euskal Herriaren zorigaitza, hala ere, ez da inguruko etsaien-gandik etorri, anaia arteko borrokatik baizik. Txakurra eta ka-tua bezala elkarrekin ezin konponduz ibiltzetik. Herri hautsia, zatitua, izana da gure herria, eta berdin jarraitzen du orain.

### Gipuzkoarekiko ezin ikusia

Etnografian ikusten ditugun Sakanako ipuiek, lapur eta jende kaltegarria dela diote Gipuzkoa aldekoa. Aralarko behi, zerri eta ardi ebaslea. Ez du etxe erretzen eta jende hiltzen kupidar-rik. Badaki azpitik sartzen ziria. Hori da ttikitatik ikasi duguna.

Aldameneko herrien arteko kontuak, esango du norbaitek. Hori ere bai, noski; baina, sakonagoko beste zerbait badago. Araba ere aldamera du Sakanak, eta ez da ikusten hainbeste ti-rabiraka.

Gipuzkoa Gaztelaniako erregerekin joatean, nolabaiteko mu-ga sordets bat sortu zen Nafarroa eta bien artean. Garai horre-tako idazki bildumak beteak dira odol isurtze, lapurreta eta ekintza negargarriez. Gaiztaginen muga (*frontera de malhechores*) zuen bere izena. Guda gazteluak baziren bide guztian. Probin-tzia da, gaur ere, nafarroako ipuietan Gipuzkoa.

Gero, hogeita hamaseian txapel gorriak sartu zirelarik Gi-puzkoan, ez ziren anaien arteko harremanak konpondu. Lotsa-garri da, baina egiak ez du bide bat baizik. Berriz lapurreta, he-riotza eta sua. Gu beti besteen jokuko alporja, eta beti mutur joka.

Uste ez dela, gertakari hauek uzten dute herrien harreman-etan ondore mikatza. Nik dakit zer entzun ahal izan dudan gaz-tetan Gipuzkoan, 'naparra' bait nintzen. Berek arrazoi zuten, noski; eta nik ez nuen hobenik.

Azpi egiturako giro hau kontutan hartzekoa da, beste gora-behera askoren sustraiak aztertu nahi ditugunean.

### Bilborekiko beldurra

Harrigarriago da, nere ustez, bilbotarrekin gertatzen dena. Beldurgarriago agertzen dira Nafarroan giputzak baino. Beste era batean esanik, lehenago elkartuko litzateke Nafarroa Gipuz-koarekin, bilbotarrekin baino. Eta Atletik, bestalde, jarraitzaile asko du gure artean.

Etsaiengandik eredu harturik argituko dugu hobeki puntu hau. Euskal Herriarekin joan, ala ez, hasi zelarrik mintzatzen jendea, Bilboko sukurtsalismoaren beldur zen herria. Ez zuten Gipuzkoaren menpekotasunik aipatu egunkariek; Bilbokoa bakarrik. Hobe dugu horretarako Madrilekoa, idatzi zuten Iruiñean. Ez ziren, noski, abertzale.

Askotan egona naiz hori zergatik ote den itzulikatzen. Bilbo aspaldi sartu zitzaigun industrigintzako bideetan eta bizibide hobe zeukan guk baino. Hori izan daiteke hasiera. Beren bizi maila «hezetxo», gure herriko ama batek zioen bezala, harrokeriaz paseatzen bazuten munduan, etsaikeria eta bekaitza uzten zuten bidean. Uste hau ere, arrazoizkoa ala asmaketa hutsa, oso zabaldurik dago Nafarroan.

Baina, galdera bat dator orduan ezpainetara: nola jakiten zuten bilbotarren berri gure baserritarrek?

Azterketan jasotako erantzunek diote, 'Tres Puentes', Somorrosto eta Bilbo haundiko inguruan diren burdin meatzetan galtzen omen zela hemengo giza jendea. Batzu, ez ziren gehiago inoiz itzultzen; beste batzu, tuberkuloso eta bizi guztirako erretirik. Burundak behintzat badaki ongi horren berri.

— Eta zergatik joaten zineten? galdetu nion Lukas Zufiaurri.

— Herrian ezin ginelako bizi. Emakumeak bakarrik geratzen ziren etxean. Familia hazi, etxea jaso eta lurrak landu, dena horien kargu egoten zen. Gu berriz lurpean osasuna galtzen.

Denok dakigunez, Bilboko jauntxokeria talde dirudun batzuren jokabidea izan zen bakarrik, eta beste bizkaitarrek ez zuten horretan zer ikusirik. «Baskoak» izan ohi ziren zapaltzaileak, eta erdaraz agintzen zieten, erdaraz tutik ez zakiten gizonei.

Hau izango da, ala ez, giro txarraren arrazoietakoa bat. Gure basarritarrek nekez jakinen zuten, bestela, Nerbion inguruko biztanleen berri. Erriberako berri, gari epaitzera joatetik zekiten bezala, eta mandazainek bidez bide ibiltzetik.

## **Barnetik arima hustutzen**

### **Erribera eta Mendialdea**

Nafarroako euskal giroa, bestalde, barne problema du herriak. Barnetik joan zaio hustuz euskal arima.

Bana dezagun lurralde hau bitan: Mendialdea eta Erribera.

Erribera aspaldi galdu zen gure hizkuntzarentzat. Erromatarrek eta beste herrialde guztiek hankazaturik, ez dute sentitzen beren jatorrizko euskaldungoa.

Haienzat euskaldunak, hitzak dioen bezala, gure hizkuntza zaharra mintzo duten jendeak dira. Beren burua nafartar bezala daukate. Izan ere, eguzkiak eta mendez mende hartutako beste odol mota guztiek nolabaiteko enda berezia eman dute han.

Hori bera gertatzen da Mendialdean ere. Nire haurtzaroan, familia bat bakarra zen gure herrian Euskararik ikasi ez zuena. Aita lezaundarra, Handimendi hegoaldekoa, berandu arte euskara mintzatu den lurraldeko semea. Ama, berriz, bertakoa gu bezala. Seme alabek ez zuten euskararik egiten. Etxearen izen zaharra Txurionea izanagatik, «castellanos» deitzen zieten.

Odolez ere ez dute beren burua euskaldun sentitzen. Duela zenbait denbora, 1977ko abenduan, J. Caro Barojak hitzaldi bat eman zien Nafarroako apaizei. Talde ederra bildu zen. Euskal Herriaren jatorria agertu zuen.

Bere gaia amaitu ondoren, beste galdera askoren artean, honako hau egin zion Erriberako abade gazte batek:

— Don Julio, Kaparrosokoa naiz. Nafartarra naizela esaten dudan zentzu osoan aitor ote nezake *baskoia* ere naizela? Euskalduna alegia.

— «Baskoien lurraldekoa zarela zalantzarik gabe aitor dezakezu, erantzun zion hizlariak. Nafartarra zarenik, ez naiz hain zihur». Sekulako algara sortu zen entzuleetan.

«Zer da zuretzat Nafarroa? galdetu zion gero maisuak. Hasierako lurralde ttikia? (Bailara baten izena besterik ez zela izan, esana zuen ordurako). Etsaiek bulkatuz, muga Tafalla aldean zuen garaikoa? Herriberri, Olite hiriaren izena orduan sortua da, eta Tafallatik Peraltara zihoala adierazteko, «Nafarroatik Peraltara joan zela» idazten zuten. Nafarroa hitzak nahaspila haundia sor lezake».

Hizkuntz enda edo arraza, eta odol arraza ez dira gauza berdinak. Euskalduna, hizkuntz herri bezala hartzean, euskara ez dakiten guztiak bazterrean gelditzen dira, nahiz odol berekoak izan. Horrela ulertzen dute erdaldunek Nafarroan: «Yo no soy vasco, diote; soy navarro». Konturatu gabe, Nafarroa hitzarekin hizkuntz enda adierazten ari dira. Euskara galdu duten herrialdeena, alegia. Hor sartzen dira denak: arabiar, judutar eta euskal odolekoak.



Nafarroa erdibituaren hauzia hori da.

Gure ikasketa denboran, alderdi bitako gudari bezala, elkarren hutsak aurpegira botatzen ibiltzen ginen Mendialdekoak eta Erriberakoak. Gudu oso ezberdina gertatzen zen: euskaldunok alde batetik, eta beste guztiak, irunsemeak barne zirela, bestetik.

Hasieran, noski, ez zen hala. A. Picaud ibilkariaren denboran, XII. mendean, Auñamendiko baskoiak eta Lizarra aldeko nafartarrak euskaraz mintzo ziren denak.

### Nafarroa euskaldunaren eboluzioa

Nafarroa euskaldunari dagokionez, zoritxarrez, atzerakada haundiagoa egin du euskarak mende honetan, aurreko lau-bost mendeetan baino. Hau ere aztertu nahi izan dugu, nolabait, etnografi lanetan. Ondorio bezala, honako puntu hauk ikusi ditugu:

#### a) *Mende hasieratik gerratera*

Nekazari herriak ziren gureak, edo artzaiak. Lanbide gogorra eta irabazpide gutiko izerdia. Haien kezka nagusia bizibidea zen, eta euskarak ez zien lorik kentzen. Euskara mintzo zuten, besterik erakutsi ez zitelako. Ez zuten euskaraganako maitasunik. Berdin zitzairen uztea, ala mintzatzen jarraitzea.

Inguruko herriak erdalduntzean, barregarri gertatzen ziren eta lotsatu egiten ziren jende aurrean agertzez. Emakumeetan, batez ere, kalte haundia egiten zuen honek. Neskatilek galtzen zuten lehenik euskara. Soldadutzako pasaizo beltza dute gizonen gogoan; baina euskaraz mintzatzen jarraitzen dute gero.

Diru kontua ere bazen. Nafarroako lehenbiziko irabazpidea, nekazaritzaz kanpo, trenbideak ekarri zuen. Jende erdalduna zertorren Altsasu aldera, eta dirua bazuten esku artean. Asko edo guti, beti diru «freskoa» eskutan. Nekazariak noiz ikusten zuen dirua?

«Erdaldunak dirudunak, eta euskaldunok pobreak ginen» esango digute mende honen hasierako emakumeek. Hiriburuko jaun eta txapeldunak erdaldunak ziren, bestalde; herritarrek bakarrrik egiten zuten euskara. Ditziratsu agertu zen erdararen moda, eta ezinbesteko gauza bezala euskara.

Euskarak ez du deusetarako balio, esaten zuen herriak.

#### b) *Gerratetik aurrera*

Hogei ta hamaseiko gatazka, anaia arteko borroka izan zen.

Hau da, berriz ere, gure zorigaitza. Ez zen Euskal Herriarentzat irabazlerik izan; denok izan ginen galtzaile.

Nafarroa jauntxoan eskuetan zegoen, eta jauntxoek erabaki zuten haren aukera. Eskuinekoen alderdira jo zuen, zuriekin joan zen gorrien aurka, elizaren aldeko jende onekin atera zen Kristo Erregeren izenean anaiak hiltzera. Nafarroa gabe nola joanen ote ziren gauzak?

Ezin biziz zegoen euskaltzaletasunari adar bi itsatsi zizkion gerrateak: *zentzu politikoa* eta *sinesmen kutsua*.

Politikaren aldetik, gorrien kontua zen euskara. Zenbatek ez zuen bizia galdu euskaltzaletasunagatik!

Erdara tutik jakin gabe etxetik ateratako euskal mutilak, beren hizkuntza gorrotatuz itzuli ziren herrira. Euskaraz hitz egiten diegunoi erdaraz erantzuten ahalegintzen dira orain ere, eta ez diete seme alabei euskararik erakutsi. Nafarroako herrietan gaur bertan azter daitekeen gauza da. Nik neure odolekoetan ikusi dut.

Beldurrak garaitu du Nafarroan Euskara eta euskaltzaletasuna.

Elizak ere izan du horretan bere errua. Ekintza saildu batetara bultzatu zituen bere semeak. Eliza eta Jainkoaren fededunak ikusten zituen arriskuan. Nafarroako mutilak, ifernuko etsaiak hiltzera joan ziren gerrara. Eta Lizarrusti iragan orduko, Ataun, Goiherri eta Donostiako euskaldunak topatu zituzten aurrez aurre, hain gaiztotzat zeuzkaten deabru bezala.

Kristau eran mintzatzera behartuak ginen; erdaraz, alegia.

Horrexegatik, haur euskaldunak saritzen hasi ginelarik herriz herri, 1956an, harriturik eta ezin sinestuz gelditzen ziren jendeak. Orain arte hain txarra zen, eta euskarari indarra eman nahian zatozkigute bat batean?

Elizgizon eta serora askorentzat berandu arte iraun du euskal gauzei emandako kutsadura lohiak. Ez zen onezko gauza.

## **Erdal heziketaren eraso**

Estimu guti eta baztertze horren iturburu, gure heziketa izan da. Euskarak ez du inoiz ofizialtasunik ezagutu. Nafarroako errege zaharrek latin eta erdara zuten beren hizkuntza idatzia.

Irakaskintza erdaraz egin da beti herri euskaldunetan. Udal

etxeetan erdaraz jaso ohi izan dira euskaraz hartutako erabakiak. Lumagizon gehienak jendea erdalduntzera zetozen herrira.

Maisuek, batez ere, asmaketarik txarrenak geure hizkuntzan mintzo ziren eskolako haurrak zigortzeko zituzten. Gure denboran, eraztunaren ordeztan, «no hablaré más en vasco» berrehun aldiz etxean idaztea agintzen ziguten herrian.

Hamaika urteko haurraren buruko larrua zulaturik ikusi dut, askoz beranduago. Eta neskatila baten mihi azpiko zaina ebaki duen maisua ere izan da Nafarroan gure egunetan.

Eta irakaskintza hizkuntza arrotzean egiteak ondorio txarrak ditu gero ere. Erdaraz ikasitako gaiak, erdaraz baliatzen ditu euskaldunak bizi guztian. Ikus beza, adibidez, nor berak nola ateratzen dituen egunero diru kontuak. Nik behintzat erdaraz, ez bait zidaten aritmetika eta geometriarik euskaraz erakutsi.

Nik ezagutzen dudan gertakaririk bitxiena, Urdiaingo emakume batekin gertatua da. Ez zuen hitzik ulertzen erdaraz. Aitortza egiterakoan, hala ere, erdaraz hasten zitzaidan erretolika luze bat esaten. Hamar aginduak ere erdaraz zekizkien. Horien guztien ondotik, gero, honako hau esaten zidan: «Orain galdezazu, abade jauna».

Bere erdarazko sermoian zer esaten zuen ez zekiela mintzo zen. Hala erakutsi zioten haurtzaroan, eta gauza bera errepikatuz hil zen larogei ta zenbait urtetan.

Euskal eskolaezak, barnez hustu gaitu, geuretik ez ematean.

Zapalketa da hau ere; burubideen zapalketa, gerrate eta indarkeriarena bezala. Baina, ez digu azken arnasa kendu.

## **Nafarroaren euskal nortasuna**

### **Euskal idazleak**

Nafarroak ez du bere euskal nortasuna aitortu beharrik. Begiak ireki nahi dituenarentzat hor ditugu gure idazleak. Gure lurraldean mamitu ziren, Añamendi inguruan, euskal literaturako lehen fruituak.

Bernat Etxepare, garaztarra, izan zen euskarazko lehenbiziko liburuaren egilea. Urdazubiko Axular haundia, euskal idazle ospetsuena. Elkanoko Lizarraga, bildumarik ugariena utzi duena. Hiru zutabe nagusi euskara idatziaren arloan.

### Toki izenak

Toki izenetan daukagu gure nortasunaren beste ezaugarri ongi finkatua. Horik ez dira hauteskunde garaian jendea liluratzeko asmatu diren arrazoiak. Gizaldi askoren ahoz datorkigun aberastasuna ez da arinkeriaz baztertzeko gauza.

Ama Nafarroaren beso irekiak Errioxatik Behenafarroara heltzen ziren, eta euskaldunen garaipenik ospetsuena Orreagako gatazkan azpimarratu zuen Nafarroak. Ala bada norbait euskaldunei ekintza hori ukatuko dienik?

Beti euskaldun izan bada, zer dela eta galdu du orain Nafarroak bere euskal izaera? Eskolako liburuetan banaturik eman digutelako? Ikasgaiak aukeratzeko biderik ez dugu izan, eta eman zaizkigun horiek ez dute gure izaera haintzat hartzen. Norberak odolean daramana ez da inolako joku politikoz aldatzeko gauza.

Erriberako jende asko joku zikin honetan erori bada, ehun eta berrogei ta hamar urtez besterik entzun ez duelako da. Guraso euskaldunen seme alaba erdaldunak, berriz, beldurrak igarutako lore minduak dira askotan. Ez dira beti hobendun.

### Abertzaleen errua

Abertzaleok, bestalde, geure huts haundia badugu Nafarroan gertatzen ari diren gauzetan. Ez dugu jakin jende erremindua eskuratzen. Gogorkeriaz ez dugu asko aurreratuko.

Hasieratik adierazten gatozen giroa ikusirik, adibidez, hanka sartze ezin ulertua izan da, orain eta hemen, Euskadi hitzarekin sartu nahi izatea txapel gorrien eremuan. Itsuak ikusten du hori.

Hitz horrek adierazten duen aberria Euskal Herria da, noski, baina beste itsaskin batzurekin. Euskal Herria ontzat hartuko zen Nafarroan; edo Euskadi hitzarekin sutu direnetarik asko, ez ziren aurka agertuko. Baskonia hitza ere ez zen hain gaizki ikusia izanen.

Nik ez dakit politikoen artean potoak garrantzi gehiago ote duen barneko biperrak baino. Batzutan nik esango nuke baietz. Gero, ezin salduta gelditzen dira, bai potoa eta bai biperra.

Hori dela eta, Iruiñeko egunkarien arrazoi nagusia Nafarroa Euskal Herriko aurre-autonomian sartzen ez uzteko, oso entzute onekoa izan da belarri gogorrentzat; Euskadik berrogei ta hamar urte dituela, alegia; eta Nafarroak mila, bere erregeen kondairan.

Ez da nolana ereitea aski; garai egokian ereiten jakin behar du nekazari onak. Eta egin diren urratsak ez ziren denak egokienak Nafarroa euskal girotzen hasteko. Barnean nagoenez, barretik diot; beharbada beste ikuspegi bat dute hariak darabiltzatenek. Nik ez nuen horrela egingo.

Dena dela, aurreratuz goaz eta noizbait esnatuko da gure herria. Nik uste ari den mugitzen. Hamar etsairen aurka ari beharrean, hogueirekin aurkituko gara. Baina tira. Galduz ikasten da.

Nafarroako jauntxo den Marco I.a, bitartean, Madril aldera begira egindako egunean, Xabier eta Jatsu-ko saildu euskalduna ahoan duela agertu zaigu. Nafarroaren askatasunagatik dena galdu zuena, saltzaileen eredu. Azken hitzak ere euskaraz eman zituen, gorroto digutenean maisu.

Nafarroa euskalduna dela frogatzea baino zailagoa da horren euskal izaera ukatzea. Nafarroa eta euskara, historian zehar, elkarrengandik ezin bereizitako gauzak dira.

Done Miliaga, Errioxan, gure erresumako lurraldea izana da eta han ere utzi ditugu euskal zainak. Duela mila urte, gaztekeraz egindako lehenbiziko agerpenekin batera, euskaraz idatzirik ezagutzen ditugun lehenbiziko lerroak aurkitzen ditugu. Hizkuntza biak, latinez egindako liburu baten lerro artean.

Nafarroak betidanik izan duen elebitasunaren ezaugarria, baina euskarari eta euskaltzaletasunari inoiz uko egin ez diolako elebitasunaren marka.

J. M. S.

#### LA HORA DE NAVARRA L'HEURE DE LA NAVARRE

La dicotomía Navarra/País Vasco constituye una baza decisiva en la línea centralista de los grupos dominantes, de cara a la política de Euskal Herria. La tierra de los vascos padece primero el acoso de otros pueblos, tanto por el norte, como por parte de los árabes. Pero es, sobre todo, problema de división interna hábilmente concebida.

Guipúzcoa se separa en 1200 de la Corona navarra, y se crea el clima de tensiones y luchas banderizas que deterioran la convivencia. Vizcaya, por su parte, atrae con su temprana industrialización la mano de obra rural de una parte de Navarra, creando la imagen de temible imperialismo económico.

En Navarra se encuentra por otra parte, muy deteriorada la conciencia de su identidad vasca a causa de una larga política de gobernantes que han impuesto su criterio. El rechazo se manifiesta en la expresión generalizada «no soy vasco, soy navarro». Incluso en las zonas donde se habla euskara, la pérdida de la lengua tradicional supone desarraigo. Llamamos vascos a los vecinos que conservan su idioma.

Todo esto va unido a razones prácticas que fomentan la erosión y el deterioro. El euskara se refugia en zonas rurales, donde el nivel de vida no es muy boyante. La población urbana aparece deslumbrante porque maneja dinero y vive con desahogo. No hablan euskara.

En la escuela se persigue sistemáticamente la utilización de nuestra lengua, lo que supone gran rémora para el alumno euskaldun, que además es analfabeto en su idioma.

En el 36 se enrarece más el clima, con carga política que crea sensación de miedo entre los usuarios. Se añade a ello el signo religioso de la gloriosa Cruzada, que prevalece definitivamente en muchas cocinas.

Esta herencia tiene arraigo en el pueblo y es hábilmente utilizada por quienes están interesados en mantener viejas posiciones. Por eso la labor de concienciación es laboriosa y conflictiva.

La reacción es saludable y tenemos motivos para sentirnos optimistas en un próximo futuro.

La dichotomie **Navarre / Pays Basque** constitue un âtout décisif dans la ligne centraliste des groupes dominants, en vue de la politique d'Euskal Herria. La terre des vascons subit d'abord le harcèlement d'autres peuples tantôt par le nord, tantôt de la part des arabes. Mais c'est surtout problème de division interne habilement conçue.

La Guipuzcoa se sépare en 1200 de la couronne navarroise, et il se crée un climat de tensions et de luttes partisans qui détériorent la coexistence. La Biscaye, pour sa part, attire la main d'œuvre rurale d'une partie de la Navarre avec son industrialisation hâtive, créant l'image d'un impérialisme économique redoutable.

En Navarre, par ailleurs, la conscience de l'identité basque se trouve très détériorée à cause d'une large politique des gouvernants qui ont imposé leur critère. Le rejet se manifeste dans l'expression généralisée «je ne suis pas basque, je suis navarrois». Et même dans les zones où on parle l'euskara, la perte de la langue traditionnelle suppose déracinement: on appelle basques les voisins qui conservent la langue basque.

Tout cela s'allie à des raisons pratiques qui fomentent l'érosion et la détérioration. L'euskara se réfugie dans des zones rurales où le niveau de vie n'est pas très prospère, tandis que la population urbaine apparaît éblouissante parce qu'elle manie l'argent et vit dans l'aisance. On n'y parle pas l'euskara.

Dans l'école, l'utilisation de notre langue est systématiquement proscrite, ce qui occasionne un grand retard pour l'élève euskaldun, qui de plus reste analphabète dans sa propre langue.

En 1936, le climat se raréfie davantage avec des politiques qui créent une sensation de peur parmi les usagers. A cela s'ajoute le signe religieux de la glorieuse croisade qui prévaut définitivement dans beaucoup de foyers.

Cet héritage s'enracine dans le peuple et est habilement utilisé par ceux qui sont intéressés à maintenir les vieilles positions. C'est par cela que le travail de conscientisation est laborieux et conflictuel.

La réaction est salutaire et nous avons des raisons de nous sentir optimistes en un prochain avenir.

# Nafarroako euskal idazleak

Joan Mari Torrealdai

## Sarrera

Nafarroa Euskal Herri? Hori hala dela praxian frogatzen dutenetakoak dira euskal idazleak. Nafarroan jaieriko euskal idazle hauk direla eta, ikerketa bat ez baino ohar zenbait egin nahi nituzke. Kulturaren soziologiaren ikuspegitik arituko naiz, gainerako balioztapenak alde batetara utziz.

Lanaren muinera sartu aurretik, aitzin ohar zenbait zor zaizkio gaiari:

■ Duela guti izan da eztabaidarik zein den euskal idazle erabakitzeke orduan. Euskal gaia erabiltzen duena? Euskal Herrian jaioa? Euskal arazoa bereganatzen duena? Ala, euskaraz idazten duena? Kultur minorietan arazo honen tratamenduak arreta handia behar duela aitorturik ere, argi dago guretzat azken erizpidea: euskal idazlea, euskaraz idazten duena da. Hizkuntzaren erabilkerak markatzen eta erabakitzen du kalifikazio hori.

■ Nor den nafarra eta nor ez erabakitzeke ere, komunzki onhartua den erizpidea erabili dugu, besterik gabe: jaioerriarena. Bere horretan datu soil honek ez du ikaragarritzko baliorik, ongi dargigu. Horrela, Iruñean sortua delako, nafar idaz-



lea litzateke Jose Luis Lizundia bat, nahiz eta bere bizitza osoan Bizkaian bizi. Baina ezin zitekeen sekula nafar idazle izan Sebastian Mendiburu, luzaroan Iruñean bizi izan arren, Oiartzunen jaioa bait da. Kasu hauetan, eta jar litezkeen beste askotan, jaiotzaren erizpidearen pisua erlatibatu egin behar da.

■ Hirugarren oharra, zuzen-zuzenean dagokio Nafarroaren kasuari. Nafar idazleez ari garenean, zer ulertzen dugu? Nafarroako muga politiko-administratiboez mintzo gara bakar-bakarrik: muga horien barnean jaiorikoa da nafar idazlea. Seigarren Merinaldea bazter uzten dugu lan honetan.

Jakina da, Nafarroako muga horien barnean euskalki bat baino gehiago mintzatzen dena. Beste probintzietan ere, probintziaren hedadurak eta hauen izenpean ezagutzen diren euskalkien hedadurak muga desberdinak badituzte, askoz nabarmenago gertatzen da hori Nafarroan. Euskararen zortzi izkelgietatik seik ukitzen dute Nafarroa: Behe Nafarrera, Behe Nafarroaz gain, Lapurdin eta Nafarroaren parte on batetan hitzegiten da. Lapurtera, Lapurdin ez-ezik, Baztan aldean ere mintzatzen da. Gipuzkera, Sakanara sartzen da. Goi Nafarrera, aldiz, Gipuzkoako Oiartzun aldera iristen da.

Izkelgien eta muga politiko-administratiboen etengabeko gurutzatze honek, muga horien artifizialkeria salatzen du euskal idazlearen baitan. Mugaz gaindiko elkertasunak sortzen dira: hala probintzien mugaz gaindikoak, eta baita Estatuarenekoak ere. Ongi agertzen du kontzientzia hori, esaterako, Manezaundik, Bordel bere herritar idazleaz ari delarik: «Espainiakoa zen. Baina argitasun bat behar dugu eman hortaz. Nere herrikoa zen, Luzaidekoa; baina gu Espainiari eratzikiak edo lotuak izan nikan ere, Benafartarrak, Garazikoak gira, muga egileen gainetik...».

■ Kultura idatziaz ari naizenez, ez ditut hemen bertsolariak kontutan hartzen.

Merezi luke, hala ere, horien aipatzeak. 1960 urte inguruan halako susperraldi bezalako bat ezagutu zuen Nafarroako bertsolaritzak, herri zenbaitetan egin ziren txapelketei esker. Lekunberrin, Elizondon eta Lesakan egindako txapelketetan, gutxienez 25 bertsolari gaztek parte hartu zuen.

### **Nafarroaren ekarria Euskal literaturan**

■ Nafarroa, hasieratik egon da euskal literaturaren historian.

Lehen euskal idazlea, nafarra da: Bernard Etxepare. Eta euskal idazle guztietan gorena, Axular, nafarra halaber. Hala ere, Nafarroa ez da idazle harrobi aberatsa izan. Gutien eman duena ere ez da. Araba eta Zuberoaren aurretik dator, baina Gipuzkoa, Bizkaia, Lapurdi eta Behenafarroaren gibeletik.

*Euskal Idazleak, gaur. Historia social de la Lengua y Literatura Vascas* nire liburuan, 14 idazle nafar izendatzen ditut *sensu stricto*. Erizpide zabalago batzu erabiliz —Joan San Martinek egin ohi duenaren antzera, esaterako—, asko gehitzen da euskal idazle nafarren kopurua. 46 kontatu ditut. Horiatarik 12, XX mendearen aurrekoak, eta gainerako 34ak modernoak dira. Denetara, historiako euskal idazleak oro, 350 inguru litateke nire karkuluetan.

Zeintzu dira nafar idazle hauk, eta zernolako da hauen ekarria?

Ez da erraza bi hitzetan historian zehar izan diren idazle guztien zerrenda egin eta bakoitzaren berezitasuna azaltzea. Gailentxoek bakarrik aipatzera behartua aurkitzen naiz. Eta beste asko eta askok isilpean gelditu beharko dute lantxo honetan, leku faltaz; hala nola, Juan Beriain (XVI mendekoa), J. Etxamendi «Bordel» (1792), Bruno E. M. Etxenike (XIX mendekoa), P. Bernardino Biguria (XIX mendekoa), Pablo Artxaneko «Irunseme» (1892), eta beste asko.

#### **Etxepare, Axular, Lizarraga**

Euskal literaturaren historian, bi idazletan dagoke Nafarroaren loriarik handiena: Bernard Etxepare eta Axular. Bernard Etxeparek abiatzen du euskal literatura idatzia, 1545. urtean. Idazle nafar hau, Eiheralarren (Saint-Jean-le Vieux) jaioa da: lurralde hau 1525az geroztik Frantziako Estatuarenpean egon arren, artean Nafarroa zen.

Bigarren idazle sonatua, ba, Pedro Agerre Azpilikueta da, baserri izenez Axular (1556-1664). Urdazubin sortua, Sarako apaiza zen; eta han, Axularren inguruan eta honen eraginez, euskararen lehen literatur eskola eratu zen, kultur mugimendu interesgarri bat. 1643an argitara zen Axularren liburu bakarra, *Gero*, sei edizio izan duen liburu klasiko onhartua. Lapurteraz idazten du Axularrek.

Guztiok dakigu, Hego aldean baino bi mende lehenagotik bazegoela literatura idatzirik Ipar aldean. Hemezortzigarren mendera arte ez da Hego aldean gauza baliosik sortzen. Sor-

tzen denean, Lapurditik bereziki Gipuzkoara igarotzen da zentroa. Hiru gizon dira aupagarrienak, Larramendi, Mendiburu eta Kardaberaz, hirurak jesuitak. Hauetarik bat, Mendiburu, ez da nafarra, baina bai nafar euskalkikoa eta Nafarroan bizi eta lan egina: goi nafar iparraldekoa hizkuntzaz, Iruñean bizi izan zen, eta 30 urte luzetan euskara mintzatzzen zuten nafar herrietan ibili zen misiolari. Goi nafarrera erabiltzen du idazkietan.

Hauen ondoan, eta agian hauekin harremanetan ibilia, bada beste autore bat: Joakin Lizarraga (1748-1835). Iruñe ondoko Elkanon jaioa. «Gigante solitario de Navarra» deitzen dio L. Villasantek bere Literaturaren Historian. Zazpi idazlan ditu idatziak, horietako batzu berrikitan argitaratuak. Autore honen interesa, bere obraren barne-balioaz aparte, idatzi zuen euskalkian datza: gaur desagerturik den euskalkian idatzi zuen, Iruñe ondokoan, Goi Nafarrera Hegoaldekoan alegia.

#### «Eusko Pizkundean»

Aurreko mende guztietan baino idazle gehiago sortzen da Nafarroan XIX mendearen bigarren partean. Literatur historiek oro bereizten dute aldi hau, Pizkunde haroa, Foruak galtzetik (1876) azken gerrateraino datorrena (1936). Kultur gizon eta idazle oso ezagunekin topo egiten dugu hemen. Aipa ditzagun batzu:

- Arturo Kanpion, Iruñean jaioa (1854-1937), poligrafoa eta abokatua. Euskaldunberri honek, bere taiuz markatu zuen Iruñeko kultur bizitza. Bereak eta bost egin zituen Nafarroako historia errekuperatu nahirik. Anitz idazlan du. Euskaraz, bat bakarra, *Orreaga*, gipuzkeraz eta nafar izkelgitan idatzia.
- Enrike Zubiri, «Manezaundi» bezala ezagunagoa, Luzaiden sortu zen (1867-1943) eta Iruñean bizi, pintatzaile eta irakasle bezala. Saiolari eta artikulugile ezaguna, herri hizkera ongi menderatzen du.
- Pablo Fermin Irigaray, «Larreko» (1869-1949), Auritzen jaioa, medikua. Han eta hemen barreiatuak zeuden haren artikulua, arik eta haren seme Aingeruk inportantetxoena *Prosistas navarros contemporáneos en lengua vasca* liburuan bildu arteino. Manezaundirenak ere hor daude. Harrez gero, bi autoreok elkarrekin bezala ikusi ohi ditugu beti. Larrekoren seme Aingeruk bide berari ekin dio, artikulua eta azterketen bidez, Nafarroako hizkuntza eta kultura ezagutzera emanez.
- Aipamen berezia merezi dute kaputxinoek ere. Nafarroako

cuskal idazkulturararen historian leku aparta dute. Talde bezala funtzionatu dutela esan liteke, dela *Zeruko Argia* aldizkariaren inguruan, dela Lekaroz etxean. Hona hauetako batzu: Roman Dornaku Ormaetxea, «Roman M. de Vera», bezala ezagunagoa (1878-1959), Isaak Lopez Mendizabalekin batera ateratako Hiztegiak famatu egin zuena. Perez de Senosiain edo «Buenaventura Oyeregi» edo «Arbelaiz» (1886-1956), hau ere Hiztegi baten egilea: *Diccionario castellano-vasco y vasco-castellano*, eta artikulugile ugaria. Gure artean ezagunagoa da Miguel Olasagarre Zubillaga «Damaso Inza» (1886), bi libururen egilea, *Zeruko Argia* aldizkariaren sortzailea. Casto Inza Arbeo ere ezaguna da «Jorge de Riezu» bezala. Honen lanik bereziena, agian, Aita Donostiaren lanak argitaratzea da. Eta garai horretako gazteena, Agustin Zarranz Bermejo «Polikarpo Iraizoz» Ordenan (1897), artikulugilearen eta erlijiozko bi libururen egilea. Euskaltzain osoa da, Damaso Inza, A. Irigaray eta J. M. Satrustegiren konpainian.

#### Gaurko idazleak

Gazteagoen artean, hogeigarren mendean jaiotakoan artean ere, bada izen ezagunik. Hemen ere guti batzu izendatuko ditugu:

- Estornestarrek, Jose eta Beñatek bereziki, Isaban jaiোক, lan gaitza egin dute euskararen inguruan eta euskal kulturaren, idazle bezala eta editore gisan.
- Mariano Izeta Elizalde, Elizondoko erlojariaren lanak edozein aldizkaritan irakur daitezke. Elaberri bat ere badu, 1962koa:

*Diru galgarri.*

- Pedro Diez de Ulzurrun iruñear medikuak *Príncipe de Viana* aldizkarian kolaboratu du; baina bere lanik bereziena, «Príncipe de Viana Saila»-ren Zuzendari bezala egin zuen.
- Jose Mari Satrustegi da idazle berrietan oparoena, inongo zalantzarik gabe. Bere artikulugile ugariak landa, baditu publikatuak bospasei liburu. Alor askotan da ezaguna: ikertzaile, etnologo, saiolari eta Nafarroan euskararen promozionatzaile gisan.
- Jose Angel Irigaray, medikua hau ere, aitona eta aita bezala. Donostian bizi da. *Ez dok amairu* kanta-taldearen sortzaileetarikoa, *Artezi* diskaetxea darama orain. Olerkaria.
- Patxi Zabaleta. Leitzan jaio eta Iruñean bizi den abokatua. «Arturo Kanpion» Akademiaren sortzailea. Euskal idazle bezala, «Gorka Trintxerpe» alegia, hiru bat literatur liburu ditu.

### Nafar idazleriaren berezitasun zenbait

■ Nafarroako idazlego osoa lanbideen arabera ikusten badugu, erlijiozko lanbideak agertzen dira lehen lekuan: hogeitatu bat denetara (11 apaiz sekularrak, 8 kaputxinoak eta pasiotar bat). Medikuak datozen bigarren lekuan: 4; irakasleak gero: 3; editoreak: 2; abokatuak: 2; eta erlojari, kazetari, inginadore, idazkari, sukaldari, alpargatagile bana; eta abar.

Gorago aipatu dugunaren harian, kaputxinoak gailentzen dira, izen oso ezagunen bidez: A. Donostia, Jorge Riezu, Damaso Inza, Polikarpo Iraizoz, eta beste.

■ Nahiz eta denetara zazpi idazle Iruñean jaio, ez da handia izan hiriaren intzidentzia Nafarroako euskal idazleengan. Nafarroako hiriburuan, kultur animazioguneak falta izan dira. Kontrastez esateko, Donostiak, esate baterako, bestelako jokabidea izan du probintziako euskaltzaletasunari begira.

Hala ere, bada gauza harrigarri bat, hego aldeko beste hiru probintzietan ere halatsu eman zena: «Eusko Pizkundeko» *boom* hura, susperraldi hura, hiriburutan gertatu zen: Nafarroan Iruñean, «Asociación Euskara», «Revista Euskara» zirenen inguruan, Arturo Kanpion, Hermilio Oloriz, Estanislao Aranzadi, Juan Iturralde eta beste askoren eraginpean. Hiri esperientzia honek ez du, tamalez, segidarik izan.

■ Idazlea jaio egiten da, baina egin egin behar du. Idazle bilakatzeko, aukerak, ingurua, azpiegitura behar da. Infrastrukturarik gabe eta ingurunearen eztenik ez denean, nekez sor daiteke idazlerik. Horixe da euskal idazleriaren patua, eta are gehiago Nafarroakoarena. Idazle bokazioak sortzeko eta idazleari bideak errazteko kultur zentroak falta dira. Holakotzat har genezake agian Lekaroz. Aldizkariak ere munta handia izan dute euskal idazleriaren historian. Nafarroako kasua bera ikusi besterik ez dago, *Revista Euskara* haren inguruko mugimendua. 1919an sortu zen *Zeruko Argia*-ren inguruko kaputxinoen lana. Azken urteotan, *Príncipe de Viana* aldizkariaren idazleekiko eragina. Gure egunotan, *Punto y Hora de Euskal Herria*-ren lana ere aipa genezake.

Iruditzen zaidanez, euskal kultur pizkunde batetarako oinharriak jartzeko ahaleginak izan behar luke gaurregun lehenetsuena Nafarroan. Azpiegitura horren ondoan sortuko lirarteke idazleak.

J. M. T.

## LOS ESCRITORES VASCOS DE NAVARRA LES ECRIVAINS BASQUES DE LA NAVARRE

Entendemos por escritores vascos navarros los escritores de expresión euskara que han nacido en Navarra. Tomamos como territorio las fronteras político-administrativas y no las dialectales, que no coinciden en su totalidad con las provincias de las que toman la denominación: seis de los ocho dialectos del euskara inciden en el territorio navarro.

Navarra ha mantenido una presencia constante en la historia de la literatura vasca. La historia literaria vasca comenzó precisamente con un escritor navarro: Beñat Etxepare. Con otro autor navarro, la literatura vasca alcanzó la cima: Pedro Axular. Con su *Gero* (1643), el labortano llega a ser lengua literaria.

El siglo XVIII destaca en Navarra junto al oiztzuarra Sebastián Mendiburu otro «gigante solitario»: Joakin Lizarraga, natural de Elkano, cercano a Pamplona, que escribió en el alto navarro meridional, dialecto hoy desaparecido.

Epoca próspera en escritores en Navarra y en el resto del País es la del Renacimiento Vasco (1876-1936). Sobresalen Arturo Kampion en Pamplona, Manezaundi, Larreko, A. Irigaray, R. M. Vera, D. Inza, J. Riezu, P. Iraizoz, entre otros.

En la actualidad podríamos señalar una media docena de escritores: los Estornes, Mariano Izeta, P. Diez de Ulzurrun, Jose M. Satrustegi, J. A. Irigaray, Patxi Zabaleta.

Mirando la sucesión de escritores a lo largo de la historia, podríamos reseñar algunas características. Hay, por ejemplo, una preeminencia de profesiones religiosas, seguidas de profesiones liberales (médicos, profesores, editores, abogados...). La capital Pamplona no ha tenido la incidencia deseada en la literatura vasca. Han faltado centros de animación cultural. Con todo, el primer y más importante «boom», el del Renacimiento, tuvo lugar en Pamplona.

Hoy día, y cara al futuro, habría que crear y desarrollar una infraestructura que fuera capaz de dotar y de potenciar centros de animación cultural.

Nous entendons par écrivains basques navarrais les écrivains d'expression basque, nés en Navarre. Nous prenons comme territoire les frontières politico-administratives et non les dialectales, qui ne coincident pas dans leur totalité avec les provinces, qui leur donnent leurs dénominations: six sur huit dialectes basques sont en usage dans les territoires navarrais.

La Navarre a maintenu une présence constante dans l'histoire de la littérature basque. L'histoire littéraire basque commença précisément avec un écrivain navarrais: Beñat Etxepare. Avec un autre auteur, Pedro Axular, la littérature basque atteint son sommet. Par son *Gero* (1643), le labourdín devient langue littéraire.

Au XVIIIème, avec Sebastian Mendiburu d'Oyarzun, émerge en Navarre un autre «géant solitaire»: Joakin Lizarraga, originaire d'Elkano, près de Pampelune; il écrivit dans le dialecte haut-navarrais-méridional, dialecte aujourd'hui disparu.

L'époque prospère en écrivains pour la Navarre et pour le reste du Pays est celle de la Renaissance basque (1876-1936). On distingue entre autres:

Arturo Kanpion en Pampelune, Manezaundi, Larreko, A. Irigaray, R. M. Vera, D. Inza, J. Riezu, P. Iralzoz.

En notre temps, nous pourrions signaler une demi-douzaine d'écrivains: Les Estornes, Mariano Izeta, P. Diez de Ulzurrun, Jose M. Satrustegi, J. A. Irigaray, Patxi Zabaleta.

En regardant la succession des écrivains au long de l'histoire, nous pourrions relever quelques caractéristiques. Il y a, par exemple, une prééminence des professions religieuses, suivies des professions libérales (médecins, professeurs, éditeurs, avocats...). Pampelune, la capitale, n'a pas eu l'incidence souhaitée dans la Littérature Basque. Il y a manqué des centres d'animation culturelle. Malgré tout, le premier et le plus important «boom», celui de la Renaissance, se situe à Pampelune.

Aujourd'hui, et pour l'avenir, il faudrait créer et développer une infrastructure, capable de doter et de promouvoir des centres d'animation culturelle.

# Historia laburra

J. M. Jimeno Jurio

## 1. Batasuna eta aniztasuna

### Batasun etniko eta juridikoa

Euskal Herriaren eboluzio historikoa zuzen konprenitu nahi bada, ez da aski horren sustrai etniko eta kultural sakonetan ondo josia eta bat bera agertzen dela frogatzea. Kontutan hartu behar dira hainbat eta hainbat eratako desberdintasunak ere. Geografiaren alorretik hasita, hor dauzkagu itsasertzak, alde batetik, eta hibai arroak (Ebro hibaiaren isurbidea, batez ere), bestetik; Kantauri sistemako eta Pirinioko mendiak. Kontutan eduki behar da geologia ere, eta bioklima (Atlantiko itsasoaren, edo Mediterraneoren, edo eta bien arteko influentziarekin). Historiaurretik bertatik, aktibitate ekonomiko berezienak ere mugaturik agertzen dira: ihizea, arrantza, abelazkuntza, gatzagen hustirapena, zur lanketa, nekazaritza eta meatzaritza. Eta gizonaren finkapena hartu behar da kontutan, batipat: aldian aldiko beharren arabera, lekurik egokienetan kokatzen da gizona. Eta horrexek behartzen du, hain zuzen, zenbait ekin-tza desberdin desarroilatzerara.



Azil haroaren azkenetatik ederki aski froga daitekeen bezala, indoeuropar aurreko euskal herri haren batasunaren baitan, egitura politiko plural bat aurkitzen dute grekoerrromatarren iturri historiografikoek. Hala nola, Baskoinak (Gaskoinak Pirinioz harantz), Barduloak, Karistioak, Autrigoiak... Talde guzti hauek funtsezko ariurri bat ezartzen diote Euskal Herriaren izanari eta bilakaerari gaurregunera arte.

### Organizazio politiko-foral berezia

Ez dago dudarik egitura juridiko komun batetan oinharritzen zirenaz. Baina, hala ere, talde handi horietako bakoitzak bazuen bere tankera berezia, eta organizazio politiko-foral desberdina ere. Baskoinen taldean (gerora Nafarroa bilakatuko zenean), esate baterako, zenbait komunitateren izenak aurkitzen dira: Jakatarrak (Jaka komarkakoak), Segitarrak (Egea eta Cinco Villas aldekoak), Zaraitzuarrak (nafar ekialdeko Pirinioen haranetakoak), Irunberriarrak, Karatarrak (Aragoa haranekoak, Zarrakaztelutik Radarako lurraldean), Andelontseak, Iruñearrak eta Arakelitanoak. Gauza bera esan daiteke beste herrialdeei buruz ere. Gipuzkoako foru mapari begiratzen bazaio, nortasun berezia dutena ohartuko da bat Bidasoa baskoin aldetik hasi eta Urumearen ibarrera bitartekoek, Debaren zonako karistioek, Lenitz haranekoek edo Oiñatiko jaurerrikoek. Eta horrelaxe Bizkaian ere: Gernika-Markina-Bilbo hauzi barrutien gunean, esate baterako, eta Enkartzioetan eta Durangaldean; horien barruan jaurerririk eta munizipio liberrik ere egon zen, beren foru propioekin.

Herrialde bakoitzaren forua, talde eta leinuen libertate soberano eta erradikaletik sortzen da. Eta finkatu eta sendotu egiten du libertate hori. Honetantxe datza, hain zuzen, euskal udalen organizatzeko berezitasunik nabarmenena. Erresumen, jaurerien edo probintzien gainegitura politiko guztien aurretikoa da, eta, herritik bertatik jaioa zenez gero, demokrazi kutsua ematen dio Euskal Herriko Foru antolamenduari.

Berezitasun politiko horiekin batera, edo parean, euskalkien berezitasuna aurkitzen da. Batasunaren baitako aniztasunaren lekukorik nabariena, dudarik gabe.

Halaber, zenbait eratako influentziengatik, produkzio molde anizkorrengatik eta ondasunak banatzeko era desberdinengatik, egitura ekonomiko eta sozialak ere desberdinak izango dira. Horrela, jauntxo lurrak sortuko dira, «Ager Vasconum» delako nekazal zona aberatsetan (Ebroren nafar-errioxar-aragoetar Erriberan. Ikus nola hibai horren eskuinaldean aurkitzen diren Bur-

sao (Borja), Cascantum, Gracurris (Alfaro) eta Calagurris (Kalagurri) populazio baskoinak). «Saltus» delako zonalde menditsuan, ordea, beste egitura batekin jokatuko dute.

Jatorri eta sustrai berdineko herri baten aurrean aurkitzen gara, beraz. Anizkorra eta plurala, ordea, bere geografian, ekonomian eta hizkuntzan, soluzio politikoetan eta antolamendu juridikoan, egitura sozialetan eta temperamentu bereizgarrietan. Zenbait zirkunstantziak intzidituko du horretan, politikoak bereziki, eta denboraren diferentziak gero eta sakonagotuz joango dira. Alabaina, badirudi gaurregun batasunerako joeraren zantzuak ikusten direla, nazio identitatea bilatu nahiz eta Herri bezala bere eskubideak onhartuak izan daitezela esijituz.

## 2. Kolonikuntza. Erroma

### Lur Irekia

Euskal Herria bere baitan itxirik egon dela esan bada ere, deus ez urrutiago egiatik, baieztapen hori baino. Bere egoera geografikoarengatik, bere itsas portuak Baskonia edo Gaskoniako itsas muturrari zabalik, ibilbide erosoekin Pirinioan zehar, eta hegoaldera Ebro hibaia ebakitzen duela, Euskal Herriak zabalik eduki ditu betidanik bere atak.

Historiaurretik bertatik, zenbait herri eta kulturak gurutzatu du euskal lurra. Batzu ongietorritz onhartuak izango ziren. Ez hainbeste, agian, besteak. Baina, nolahi ere, zerikusi handia izan dute bertako kultur ondarearen aberastasun bidean. Kanpotik datoz, inondik ere, ontzi kanpanairearen kultura (Urbiako Pagobakoitzakoa lekuko), eraikuntza megalitikoak, lurlantze eta hazkuntz sistemak. Kanpotik zenbait erakunde eta modu politiko, erlijiozko zenbait kredo eta praxiarekiko influentzia (solstizioetako ur eta suzko zenbait zeremonia eta hain maitagarri zaizkigun zenbait mito). Eta kristautasunaren influentzia, batez ere. Eta, azkenik, esan dezagun kanpotik etorria dela gure hizkuntzak jasan duen erosioa. Latinarena aldi batean, Espainia aldeko eta Pirinioz harandiko erromantzeena gero, eta arabe eta hebraierarena ondoren. Erosio horren lekukotza ederra daukagu, tamalez, hegoaldeko lurralde zabal eta lauetan bereziki.

Kelta, erromano, godu, arabe edo frankoengandiko influentzia ez da hartu behar herri horien sarrera bortitz edo inbasioen fruitu bezala. Eta ondoren hemen finkatu izan balira bezala. Pasa ziren hemendik, eta urratsik ere utzi zuten. Ez ziren,

ordea, bertakotu, halako talde minoritarioren bat edo beste salbu. Eta hauk, esan genezake, herriak irentsi egin zituela, bertako komunitate politikoan, eta orobat linguistikoan, integratuz.

#### Keltarkuntza

Kelten influentzia garrantzitsuaz, Arabako haztarnategietatik edo Iruñeko arroatik edo eta Ebroren Erriberatik (Argedas, Fitero, Cortes) datorkigun materialeak hitzegiten digu. Hala ere, zenbait historiagileren arabera, Baskointzat jotzen dira Euskal Herriaren hegoaldeko biztanleak. Horrek esan nahi du, bertako euskal populazioak bereganatu egiten zituela kanpotarren kultur balioak, bere konposaketa etnikoan halako aldaketa berezirik jasan gabe.

#### Erromatarkuntza

Ondorio berdintsutara iritsiko ginateke, *erromatarren garaia*ri buruz ere. Era desberdinetako influentzia jasan zuen Herriak. Ez du ematen konkista biolento bat denik, eta are gutiago Latioko gizonen «inbasio» bat izan zenik. Andrebes baizik: herriak bere kasa eta piskana-piskana, bere egin zituen Erromak ekarritako politika eta kultur balioak. Soldadu baskoinek parte hartzen dute gerra punikoetan, eta nahiko goiz agertzen dira Kaskante «municipium latinorum veterum» bezala eta Kalagurri, berri, «sociorum urbs» bezala. Erromatarkuntza, beraz, hegoalde-tik hasten da, ekialde-hegoaldeko zonatan areagotuz. Eta apurka-apurka iruñarren lurretan zehar zabalduz, iparralderainoxe iritsiko dira, Arditurriko meategiek ederki aski frogatzen digutenez. Erromak berregituratu egiten du herrialde horietako politika: mendebaldeko herrialdeak Clunyo komentuarren jurisdiziopean ezarriko ditu, eta estatutu desberdinak emango dizkie Baskoniako munizipioei, Zaragozaren jurisdiziopean ezarri.

Sistema horrekin, eta «duunviri»en etorrerarekin, asko indartzen da munizipioen autonomia. Zeren horien eginkizun juridiko-militarrak gure «buruzagi» eta alkateen eskuetara pasako baitira, eta gaurregun arte iraungo. Gero, herritarrek ere parte hartzen dute «batzarre» edo kontseilu irekietan, foro aurrean bilduz, lehenengo, eta elizaldetan gero. Inperioaren azkena zela eta, III mendearen amaieran eta ondorengo mendean, nagusi edo jauntxoeren sistema indartzen da, zonalde erromatartuetan baitipat. Eta, jakina, kolonatu eta lurjabe haundiak sortzen dira. Alderdi bereizle berri bat gehitzen dio horrek Herriaren egitura sozialari.

### 3. Kolonikuntza, Toledo eta Córdoba

#### Autarkiazko aldia

Didymo eta Vereniano baskoin-erromatar nobleek, aldi batez, erresistentzia gogorra jartzen diete herri barbaroei Pirinio aldean beren morroiekin. Baina erori egiten dira azkenean, eta kanpotarrei bideak zabalik geratzen zaizkie. Horrela, behin erromatarrekiko lotura politikoan etenez gero, Erdi Haroan zehar bere militar funtzioekin iraungo duen aristokrazia indartsu bat jaitzen da, autarkiazko aldi luze bati hasiera emanez. Era berean, bertako nekazal kultura ere nagusitzen hasten da, eta munizipio eta herrialdeek autonomia estreinatzen, nobleziaren zuzendaritzapean. Bidenabar, iparraldeko frankoen eta hegoaldeko bisigoduen aurkako eta etengabeko burruka luze bati ekiten zaio. Hiru mende osoz iraungo duen burrukari, hain zuzen: hasi V mendetik, eta 711. urtera arte.

Sevillako Isidoro sainduak zenbait errege godoren bizitza kontatzerakoan sartzen zuen halako esaldi hura —«Domuit Vascones», alegia—, ez da ulertu behar benetako «nausigo» edo «domeinu» bat bezala, gurari edo nahikunde bat bezala baizik. «Domeinatu nahi izan zituela», alegia, baina lortu gabe, ordea. Toledoko monarkiaren azken erregeak, Rodrigok, presaka batetan utzi beharra izan zuen Euskal Herria, mairuen kontra jartzeko. Iragana baitzuten hauek, ordurako, Gibraltarko itsasartea, eta Penintsulan gora baitzetozen abiadura bizian.

#### Politik arloko aldaketa

Aldi honetan bertan, aldaketa nabarmen bat gertatzen da politikaren alorrean. Joakin Arbeloak bere *Los Orígenes del Reino de Navarra* liburuan, herri baten batasuna azpimarratzen du. Toledoko erregeek eta kronista bisigodoek «Provincia de Vasconia» eta «Vascones» izenez deitzen duten Herriaren batasuna. «Hitz horiek, bada —dio Arbeloak—, galdu egiten dute erromatarren garaiko esanahi hertsia hura eta osotasunezko zentzu bete bat hartzen». Eta penintsulako euskal familia osora hedatzen dira, hasi lehen Baskoinetatik (nafarretatik) eta Bardulo, Karistio eta Autrigoinak barrena.

Ez dute arrazoirik Schulten, Gómez Moreno, Menéndez Pidal eta Sánchez Albornoz bezalako autoreek, Baskoinak Galia aldera (Novempopulaniara, Akitanian) eta mendebal aldera (Bardulia eta Karistiara) militar godoen ihesi hedatu zirela diotenean. Teoria horrek ez du balio iparraldeko Herrialdeetaz dihardute-

nean (Lapurdi, Zuberoa eta Behe Nafarroaz bereziki). Erromatarren garaiko testimoniorik ere bai baitago, Herrialde horik euskaldunak zirela frogatzen duenik.

Iturri bisigodoek aipatzen duten batasun politiko hori, hala ere, ez da Arbeloak dioen bezain orobatekoa. Dударik ez batasun bat bazela hizkuntzaren aldetik eta espainol etsaiaren kontrako borrokarengatik. Eta batasun hori ez dela hausten herrialde bakoitzaren foru independentziarekin, geroago frogatuko den bezala. Alabaina, inondik ere etendura politiko nabarmen bat sortu da baskoinen lurraldean.

### **Apezpikutegia Iruñean**

Bisigodoak, behin Ebroren Erribera konkistatuz gero, Erriberin barrena, Iruñeraino iristen dira. Eta VI mendearen azkenaldera, gotzai bisigodoen egoitza bezala agertzen da hiri hori, bertako agintari direlarik. Geroago, Baskoniaren etsaiek Toledon antolaturiko kontzilioetan ikusiko ditugu. Iruñeko komunitateko fraile estranjero batek «De laude Pampilone» dokumentua erredaktatu zuenean, Baskoinak «jende barbaro eta etsai»tzat jotzen zituen bertan, jendea berorien kontra borrokatzera zirikatuz. Iruñea, beraz, zentralismoaren plaza bilakatzen da, eta bertan ezarriko dituzte euskaldun pagano eta matxinoak politikaz eta erlijioz menperatzeko erakundearen habia eta oinharriak. Esan beharrik ere ez dago, bada, bertako gotzaien influentzia gero eta hedatuzago joango dela, «Iruñeko Gotzai Barrutiaren» sakelaren mesedetan.

Mairuak Baskoniaratzean (714. urtean), zatiketa politiko-erlijioso berri bat sortzen da. Kasius izeneko konte batek, «ex genere gotus» («jatorriz godua», ez da ukatzen beraz jatorri euskaldunik), Damaskoranzko erromeria luze bati ekiten dio. Han Kalifari basailu omena eskaini ondoren, bere nagusitasuna mantentzen du Banu-Qasi leinuaren buru bilakatuz.

Orobat, populazio euskaldun-erromatartu-bisigodotua, islamiartu egiten da orain Ebroren behekaldean. Iruñeko agintariak, aldiz, errenditu egiten dira, «aman» delakoa sinatuz eta beren independentzia politikoa gordez.

### **Herriaren zatiketa hirukoitza**

Aldi honetan, bada, hiru nukleo politiko-erlijiozkotan zatitzen da Euskal Herria: baskoin islamiartuak hegoaldean, baskoin bisigodutu eta kristautuak eta baskoin paganoak. Azken hauen ganantz joango da zabalduz, gero eta bizikiago, Iruñeko gotzaien

influentzia. Hauen eliz barrutia, Onsell eta Uncastillo (Aragoe) euskal aitzinako lurretatik hasi, eta geroko Nafarroaren gehiena hartuz, ia Gipuzkoako herrialde osora hedatuko da.

Behin Astuariasko erreinua finkatuz gero, eta Alfonso I Katolikoak konkista biderei ekiten dionean, Araba eta Bizkaia Oviedoren itzalpera erortzen dira. Beren independentzia gordez, ordea. Testu zaharrek diotenez, «beren jabegoari eutsi zioten, Iruñeak, Deyok eta Berruezak egin zuten bezalaxe». Hala ere, inondik ere ez ziren oso gogo onez makurtuak izango. Zeren Fruelak —Katolikoaren semeak— kanpaina militar bat egin behar izan baitzuen Araba behin berriz menperatzeko. «Haren kontra altxatako Baskoinak garaitu egin zituen».

#### 4. Batasun politikoa

##### Karolingioen eta mairuen artean

Euskal lurra bi haundiren borroka artean gertatzen zaigu orain: karolingioak iparraldetik eta mairuak Cordobatik. Karlo-magnoren Zaragozarako kanpainak, Iruñea deseginez egin zuen erretiradak eta ondoren Luzaideko mendartearen (Ibañeta azpian) haren erretagoardiak jasan zuen derrotak (778. urteko abuztuaren 15ean), matxinada sail bat sortu zuen, katean, al-Andalus-en iparraldeko Markan. Abd al-Rahman I.ak zigor kanpaina bati ekiten dio Xertainis zeritzan euskal lurraldean zehar (Semen Indartsua dago hor). eta ekialdera sartzen da Belaskotarren lurrak barrena. Hauk izango dira, hain zuzen, erreinuaren jaiotzari bidea egingo diotenak. Lehen erregeek ez dute izenez *reges Vasconum* hartzen, *reges Pampilonensium* baizik. Ondoren, «Nafarroa» izena berenganatuko dute, populazioaren etnia aldetiko errealitatea batere aldatu gabe geratzen delarik.

##### Egina dago batasun politikoa

Antso Gartzzeizek (905-925), Gipuzkoa eta Gaskoniako dukerriko jaun delarik, zabaldu egiten du bere nagusigoa nafar-errioxar Ebroren arroa barrena Viguera eta Albeldaraino. Era berean, X mendeaz gero, Araba eta Bizkaia ere Nafarroako erregearen itzalpean jartzen dira. Antso III Handienak Penintsularen iparraldeko kristau lur guztiak bereganatzen ditu, eta Euskal Herri osoarekiko jurisdizioari eusten dio, Lapurdi, Baigorri eta Zuberoako bizkonterriak barne. Egina dago, beraz, batasun politikoa. Antso Handienak *Gaskonia osoko errege* titulua ezar-

tzen dio bere buruari, Banu-Qasitarren Erribera salbu. Baina hori ere Euskal Herriratuko zen Alfontso Borrokariaren garaian (1119an, hain zuzen). Ezin egokiago zioen, beraz, Gregorio Monreak «Nafarroa izan da euskal erakunde batu baten lehen adierazpen historikoa eta bakarra» zioenean.

Gaztelako Alfonso VIIIaren inperio egarriak, eta Antso Jakintsuarekin zituen istiluek, nafar lurren banaketa erabaki zuten 1179an. Logroño eta Errioxaren zati bat Gaztelaren menpera pasa ziren, Arabak, Gipuzkoak eta Durangaldeak Nafarroako jaurreriaren babesean jarraitzen zuten bitartean. Errege Jakintsuak, berriz, foruak ematen dizkie Donostia, Gasteiz, Biazterri, Bernedo, San Vicente de Sonsierra eta Trebiñori.

Bereziki aipatu behar da, «euskal hesparru osoaren oinharritzko zibilizazio batasunari erantzuten dionez gero», sei herrialdeotako foru eta erakunde juridiko, publiko eta pribatuek elkarren antz handia dutela. Batasunaren finkapen hori, alabaina, nafar koroaren itzalpeko garai honetan egin zen batipat, Monreak dioen bezala.

## 5. Gaztela eta Frantziarekin

### Jauntxoan jokoak

Afrikatik itzultzerakoan, Antxo VII Indartsuak (1194-1234) bere autoritatea inposatzen du kontraforuak ezarriz. Nafar etxe oneko semeek, aldiz, Obanosko Superjunta sortzen dute beren eskubideak defendatzeko. Erregea bere lurretatik urrun dabilen bitartean, Alfonso VIIak Gasteiz konkistatzen du (1200), eta barne tirandura latzak sortzen dira koroa eta honen herrien eta Arriagako Kofradiaren artean. Tirandura eta borroka horiek, bestalde, hirurogei ta hamabost urte luzez iraungo dute, Araba osoa Alfonso XI gazteluari eman arte, hain zuzen (1322). Itun horren bidez, bertako nobleziak bere bribilejioekin jarraituko du, Gaztelakoaren pare-parean. Eta honela, arabar jauntxokeriaren menpean, nausigo zentralistaren garaiari hasiera ematen zaio, eta bidenabar, Gaztelarekiko loturari esker, beren noble tituluak eta botere politiko eta ekonomikoak gero eta handiagotuz joango dira nagusi zentralista horik.

Gipuzkoak 1200ean Alfonso VIII onhartu bazuen, bertako nobleziaren lana dela dirudi horrek; Bizkaiak ere, geroago, egin-go zukeen bezalaxe. Nolanahi ere, batasun hori pertsonal hutsa da, bakoitzak bere independentzia, foru eta erakundeekin ja-

rraitzen baitu. Gaztelako Enrique IIIak berak aitortzen du: «nire Bizkaiko Jaurerria, berez apartekoa da, bere foru eta libertateekin». Eta Errege Katolikoek ere «nazio apartatua» deitzen dute. Felipe IVak, berriz, Gipuzkoa eta Arabari izen hori bera ematen zien.

Jauntxoen arteko burrukek —gogora Oinaztarrak eta Ganboarrak— XIIIetik XVerako mendeak betetzen dituzte. Mendebaldeko hiru herrialdeetan bereziki, eta baita Nafarroako ipar-mendebaldean ere.

### Frantsesen influentzia

Antso Indartsuaren heriotzarekin, Nafarroak Champagnearren dinastia estreinatzen du (1234-1284). Ondoren, Frantziako Capetotarren koroari elkartuko zaio, ia mende erdi batez (Joana Felipe Ederrarekin ezkontzean), eta gero Erreuxtarren etxera pasako da (1324-1441). Horregatik, oso nabarmena da, bi mende osoz, frantsesen influentzia. Karlos III Noblearen etorrerarekin, kanpoarekiko bakeak egiten saiatuko da erreinua eta luxuzko gastuetara entregatuko, bestalde. Kasu, esate baterako, Erriberriko eta Tafallako Jauregiak. Eta berdin saiatuko da, baita, bere ahaideentzako konterri eta jaurerri berriak sortzen: Arazuriko jaurerria Lanzelotentzako, Cortesko konterria Godofrententzako, Leringo konterria Luis de Beaumontekin ezkonduarik zegoen Joana anderearentzat. (Esan dezagun, parentesi artean bada ere, hirurok sasikoak zituela). Gero, Muruzabalgo bizkonterria bere anaia Leonelentzat eta Bianako printzerria bere iloba Karlosentzat. Noblezia ugaltzearen politika honek —eta halaxe jarraituko zuen gerora ere— borroka tamalgarriak sortuko ditu Bianako Printzearen heredentzi eskubidearen defendatzaileen (Beaumontarrak hauk) eta honen aita Aragoeko Joanen (Agramondarrak horik) artean. Eta azken erregeak, Juan Albreteko eta Katalina anderea ez dira istilu horik konpontzeko gauza izango, jadanik Nafarroa Fernando Katolikoaren plan anexionisten sareetan eroriz zihon bitartean.

## 6. Nafarroa Gaztelarekin

### «Berez erreinu»

Herrialde bakoitzak —bere borondate soberanoa ezarriz independente zen bitartean—, hauta zezakeen bere nortasun foralaren zaindari edo zuzendaritzarako konfidantzako gizon bat.



eta prebenda berrien bidez. Gorte zentralaren «eskuzabaltasunez», ugaldu egiten dira konterriak, markeserriak eta dukerriak, herri askorenganako aginteak (alkate-juezak, eta agintari eta udal funtzionariak izendatzeko eskubidearekin), eta askotan baita elizenganako patronatua eta apaizak berak aurkezteko eskubidea ere. Aldi berean, burgesia berri bat ere haziz doa Nafarroan, «mestero» indartsuen talde batetik datorrena, artalde izugarrien jabe zirenez gero.

Aristokrazia sekular eta eliztarraren nagusigoak eta herrien eskubideen ukapenek, etengabeko protestak eta hauziak sortzen dituzte zenbait abagune ekonomikotan. Eta gogorragotara ere jo zuten behin baino gehiagotan. Gogora, adibidez, XVIII mendeko giputz eta bizkaitar matxinadak, eta Fitero bezalako beste hainbat monastegiri egin zizkioten erasoak.

#### **Vasco ala euskaldun**

Aldi honetan «Vasco» kontzeptua —gentilizioa bere jatorrian— mendialdera biltzen da («Tierra de Bascos»), hizkuntz konnotapenak hartzen dituelarik. «Vasco», «Vizcaíno» edo «Bascongado»ren sinonimoa da Cervantesengan eta herri erabileran, eta euskalduna, euskaraz mintzatzen dena, adierazi nahi du. Ehundaka gotzai aginduk esijitzen diete beren apaizei Gipuzkoan eta Nafarroan «elizarrei beren hizkuntza euskaldunean predika diezaieten». Erdaldunak, beraz, ez dira euskaldun sentitzen; euskaldunak ez direlako, alde batetik, eta garo eta bagoaren lurraldekoak ez direlako, bestetik. Ituren eta Arano, Gipuzkoa eta Bizkaia, euskalduntzat jotzen dira. Ez horrela Mendigorria, Lazagurria edo Erriberri, nahiz eta nabarmenki euskaldunak izan hauk ere.

## **7. Zentralismoa**

### **Ondare soberanoaren salmenta**

Frantses iraultzaren ondorioetako bat, zentralismoa eta dena bateratzeko joera izan da. Behe Nafarroa, Lapurdi eta Zuberoa Frantziako «Basses Pyrénées» departamenduari eransten zaizkio. Eta frantses ereduari jarraiki, Madrilgo monarka absolutistek eta liberalek ere batasun obra hori burutu nahi dute. Carlos IVak, Bascongadak eta Nafarroa bere erregetzapean sartu nahi dituela adierazten die Nafarroako Gorteei 1796an, «inola-ko traba apartatzailerik gabe» (Espainiatik, jakina). Zentralis-

Arabak, Gipuzkoak eta Bizkaiak Oviedorantz, Nafarroarantz edo Gaztelarantz jo izan zuten bitartean, Nafarroak Aragoeko erregeri (1076), Champagneko konteei (1234) edo Frantziako erregeri (1284) ematen zion bere koroa. Hautabide hori, soberanotasunetik bertatik sortzen da. Eta txandako agintari berriek gorde egiten zituzten beren menpekoen konstituzioa, erakundeak, legeria eta libertateak.

1512ko dinasti aldaketa, harmaz inposatu zitzaion Nafarroari. Albako Dukearen armada gaztelauek, Leringo kontearen laguntza nafarrarekin, Iruñea konkistatzen dute. Bertako agintariak errenditu egiten dira, erreinuaren eta hauzokoen kondizio forala errespetatua izango zaieneko baldintzarekin. Hiru urte geroago, Aragoeko Fernandok Gaztelako koroopera sarrerazten du. Nafarroak, bada, odolezko bere anaien zori bera jasan behar izan du. Hauek XIII mendean egin zuten bezala, Nafarroak ere dokumentuan jarrerazi egiten du zera: «Gaztelako koroari elkartze hori, *unión egüe principal* bidez egin zela, bakoitzak bere lehengo nortasuna gordez, bai legeen aldetik, lurren edo gobernuaren aldetik». «Berez erreinu» bezala jarraituz, bere lurralde eta jurisdizioarekin, erakunde eta foruekin, Nafarroak independente eta soberano jarraitzen du.

### Aro berria

Oraindik ezin etsi eta, beste intentu bat izan zen, 1521ean, Nafarroa Enrike Albretekorentzat konkistatzeko. Alferrik orde: giputz nobleziako zenbait etxek (Loiolatarrek, adibidez) gaztelauei lagunduz, epe berri baten hasierari ekiten zaio euskal historian. Errege ordearen ekintza dela medio, foru erakundeak zindotu egiten dira Nafarroan. Erreinuko Diputazioa sortzen da, Gorteetako erakunde iraunkor bezala, hiru estamentuetako zazpi ordekariz osotarik. Gorteek, nafar Diputazioak eta Junta Nagusiek, gaitzets ditzakete foruekin ezados leudekeen errege agindu eta erabakiak (gogora bestela *sobrecarta* edo *pase foral* delako eskubidea). Eta esiji diezaiokete, bidenabar, horri berari, «irainen ordaina» ere.

Udal erakundeak, bere aldetik, eusten dio oraindik ere bere garrantziari. Baina noblezia eta burgeseriaren boterea handituz doan neurrian, gero eta gehiago kontrolatzen dituzte nafar udalak Hogeinako, Hamabosnako edo Hamaikanako Juntek. Eta esan dezagun gerora «zerga emaile nagusiek» akaparitzen dituztela botere horik.

Eliza eta Nobleziaren boterea ere gorakadan doa jaun titulu

moak, orduan, ugaltu egiten ditu bere erasoak Madrildik eta Euskal Herritik bertatik ere.

Cadizko Konstituzioak alde batetik, 1833ko probintzi banaketak bestetik, eta lehen karlistadan zehar Gorteak aldarrikaturiko neurriek azkenik, denek 1893ko urriaren 25eko legean amaitu zuten. Lege horrek baieztatu egiten zituen foruak, «Espainiaren batasun konstituzionala salbatuz gero». «Bascongadasetan» Junta Nagusiak eta foru berezitasunak gordetzea lortzen den bitartean —unitarismoaren mehatxupean beti—, nafar liberalismoa prest dago bere ondare soberanoaren salmenta negoziatzeko. Eta horrela, 1841eko legearen bidez, administral lentejazko platera autonomikoaren orde, erreinuaren oinordekotza saltzen du.

Etengabeko atsekabe, amorratio eta protestak zabaltzen hasten dira, gaurdaino, Euskal Herri osoan zehar. Gauzak horrela, Gobernu zentralak atxakia polita aurkitzen du azken karlistadan «probintzia matxinoen» azken autonomi aztarnak birrintzeko (1876). Gauzak hestuagotuz doazen neurrian, nahigabea eta ezinegona ere haizatu eta zabalduz doaz. Bizkaiko ekonomia abagune zabalkorrak, inmigratioak eta gizarte tradizionalaren aldaketek, sugartu egiten dute Sabino Arana Goiriren nazionalismoa, iruñear intelektualek inspiraturik (Iruñean biltzen baitziren, 1877az gero, «Asociación Eúskara de Navarra» zelako elkartearen). Euskal Herriaren nazionalitate kontzeptua sortu da, Euskadi.

#### **Foru berrintegrapen osorako eskariak**

Gero, «Partido Republicano Federal Navarro» delakoak, bere aldetik, lehen euskal autonomi estatutua erredaktatzen du Tuteran, 1883ko martxoaren 4ean. Estatutu horretan, 1515eko inkorporazio itunak onhartuak izan daitezela esijitzen da, eta euskaldun guztien «anai arteko elkarbizitza batetara» iritsi nahi dela adierazten.

«Foru berrintegrapen osorako» eskariek ere, badituzte beren «gailur aldiak». Hala nola: 1831-1832 (Gamazada Nafarroan), 1917-1919 (autonomi proiektua hiru mendebal probintziatarako eta nafar erreibindikapenak), 1931-1932 (Euskal Herri penintsularerako estatutuak; nafar gehienek apoioarekin, lehen aldian, baina gaitzetsiak 1932an nafar monarkiko liberal eta karlisten aldetik), eta azkenik, ofizialki onhartzen da Euskal Estatua, behin gerra zibila hasi ondoren. Ez alferrik, ordea: basakeriarik

gogorrenez, zanpatu eta lerdekatu egiten dira «probintzia traido-teak» (1937).

Nazionalismoa, deszentralizapena eta autonomia, dena «separatistmotzat» joz, euskal oligarkia industrial eta finantzariak, aristokrazia lurjabeak, burgeseria liberalak eta jauntxokeria karlistak, beren ahalegin guztiak jarriko dituzte Euskal Herriaren esizentziak birrintzeko. Mende eta erdi osoa zehar beren indarrak elkartzen saiatu dira autonomi golpe oro frakasa erazteko. Zentralismorik latzenari eusten saiatu dira, edo eta gehienez ere esan dezagun, ezinbestean, autonomia administratibo zabalxeago bat defendatzen ere ibili direla.

Herria, berriz, bere nortasun berezian eta bere eskubideetan oinarriturik, ehun eta berrogei ta hamar urte luzetan autonomia eske... Botere Zentralak entzungor egin du beti. Edo gauza bera dena: ez du inolako soluziorik eman. Aspaldiegian askatasunaren egarritik bizi den Herri hau, badirudi etsipenaren azken mugetarainoxe iritsi dela.

Euskaratzailea: **Gotzon Nazabal**  
J. M. J. J.

---

#### SINTESIS HISTORICA SYNTHESE HISTORIQUE

La diversidad geográfica, económica, foral, dialectal y de otros aspectos culturales de Euskal-Herria no constituye negación, sino por el contrario enriquece su profunda unidad étnica, jurídica y lingüística. La influencia de factores culturales exóticos en distintas épocas ha profundizado diferencias socio-políticas en los Herrialdes, sin alterar básicamente el sustrato de la población indígena mayoritaria. Los conatos centralistas de la monarquía visigoda, estrellados ante la oposición de los Vascones, lograron la escisión de buena parte de Navarra, dominada por los obispos godos de Iruña. Agentes exteriores producen a comienzos del siglo VIII nueva división político-religiosa; la Vasconia meridional se islamiza y constituye el señorío de los Banu-Qasi. La Vasconia visigotizada y cristiana será cuna del «Reino de Pamplona», al que se vincula tempranamente Guipúzcoa. El resto del País occidental, unido para oponerse al enemigo de Toledo, cae primero bajo la órbita de Asturias y, desde el siglo X al XIII en la del reino vasco de Pamplona, consolidándose entonces las instituciones forales y el derecho de todo el País Vasco, radicalmente afines. Conquistada Alava e incorporadas Guipúzcoa y Vizcaya a la corona de Castilla, que respeta su personalidad foral, Navarra pasa a depender de dinastías francesas.

El destino político sufre nueva escisión en el siglo XVI. Como sus hermanas occidentales, Navarra peninsular pasa a depender de la corona castellana, mientras Benafarroa mantiene su independencia, incorporándose más tarde a la corona de Francia y pasando finalmente (1789) a formar parte de un departamento francés, con Zuberoa y Lapurdi. El absolutismo borbónico y el liberalismo consuman la obra centralista y unificadora de España, mediante abolición de la estructura foral de los cuatro Herrialdes (1839). El hecho inaugura un período inacabado de insatisfacción, protestas y tensiones, a las que el poder central, lejos de dar solución correcta, ha respondido sistemáticamente con represiones o fomentando la división interna, agudizando cada vez más el problema de un Pueblo, Euskadi.

La diversité géographique, économique, forale, dialectale et d'autres aspects culturels du Pays Basque, ne constitue pas un déchet, mais au contraire enrichit sa profonde unité ethnique, juridique et linguistique. L'influence des facteurs culturels exotiques en diverses époques a approfondi les différences socio-politiques dans les six «Herrialdes» (ou provinces basques), sans altérer profondément le substrat de la population indigène majoritaire. Les tentatives centralistes de la monarchie visigothe, brisées par l'opposition des Vascons, entraînent la scission d'une bonne partie de la Navarre, dominée par les évêques goths d'Irunea (Pampelune). Des agents extérieurs produisent au début du VIII<sup>ème</sup> siècle une nouvelle division politico-religieuse; la Vasconie méridionale s'islamise et constitue la seigneurie des Banu-Qasi. La Vasconie visigothisée et chrétienne sera le berceau du «Royaume de Pampelune», auquel s'unit assez tôt la Guipuzcoa. Le reste du Pays occidental, uni pour s'opposer à l'ennemie de Tolède, tombe d'abord sous l'orbite des Asturies et, du X<sup>ème</sup> au XIII<sup>ème</sup> siècles, dans celle du royaume basque de Pampelune. Alors les institutions forales et le droit de tout le Pays Basque, radicalement proches, s'affirment. L'Alava étant conquise et la Guipuzcoa et la Biscaye incorporées à la couronne de Castille, qui respecte leur personnalité forale, la Navarre passe sous la dépendance des dynasties françaises.

Le destin politique subit une scission au XVI<sup>ème</sup> siècle. Comme ses soeurs occidentales, la Navarre péninsulaire passe sous la dépendance de la couronne castillane, tandis que la Basse-Navarre conserve son indépendance. Celle-ci est incorporée plus tard à la couronne de France et finalement (1789) fait partie d'un département français avec Zuberoa (Le Soule) et Lapurdi (Le Labourd). L'absolutisme des borbons et le libéralisme achèvent l'oeuvre centraliste et unificatrice de l'Espagne, au prix de l'abolition de la structure forale des quatre «Herrialdes» (1839). Le fait inaugure une période inachevée d'insatisfaction, de protestations et de tensions, auxquels le pouvoir central, loin d'envisager une solution correcte, a répondu systématiquement par des répressions ou en encourageant la division interne, ce qui rend de plus en plus aigu le problème d'un Peuple, Euskadi.

# Nafarroaren administralgo berezia dela eta

Pedro M. Larunbe

## Sarrera

Nafarroak, Gaztelako armada zela bide 1512an jasan zuen konkista gorabehera, bere instituzioen jabe iraun zuen XIX. mendera arte; ez zuen bere burujabetasunean galera haundirik izan ordurarte. Izan ere, Gaztelarekin bat egite hura pertsonala izan zen huts-hutsik, hau da: Gaztelako erregeak Nafarroako legezko erregeen tokian —hauek, konkistaren ondoren, mendiez haraindiko Nafarroan bizi izan ziren, eta handik gerora Frantziako errege izatera iritsi ziren—; Gaztelako erregeek, ordea, nafarren eskubide eta libertateei eusteko zin egin ohi zuten. Austria etxeko monarkek, Karlos I. agandik aurrera, zera eskatu izan zieten behin eta berriro beren ondorengoei: itzultzeko, alegia, Nafarroako Erresuma bere egiazko monarkei

Lehen gerla karlista amaitu ondoren, halako aldaketa kualitatibo bat gertatu zen. Nafarroa, Erresuma burujabe izatetik, probintzia autonomo izatera iragan zen; eta ordura arteko foru sistemen apur bat besterik ez zuen jaso, bere behin-lako burujabetasunaren oroigarri.

### Lege hitzartua?

«Foruen satrapa» direlako batzuk nafar herria engainatu nahi izan dute, gure Erresumari azkena eman zion Lege hari «Hitzartua» izena emanaz.

Delako Lege hori ezin genezake jo garaitu batzuren legetzat bestetzat: izan ere, Madrilgo Gobernuak eta Probintziako Diputazioak elkarren artean konpondua izan zen; Madrilgo Gobernua irabazlea zen, eta Probintziako Diputazioa, berriz, foru kontrako liberalismo zalerik sutsuenez osatua zegoen, autonomi sistema nondik lurrera botako zebiltzanez osatua alegia; izan ere, autonomi sistema horrek ez zuen uzten, Estatu osoaren mailan merkatu batasun nazionalista eta monopolista bat indar zedin.

Penintsula barneko beste euskal lurraldeak, 1876ko Uztailearen 21eko Legeaz galduko dituzte beren foruak; hauentzat, ordain gisa edo, kontzertu ekonomikoen gobernamentu bat ezarri zen, eta arian-arian zenbait automoniako ahalmen berreskuratuz joan ziren.

### Foruak: eskubide agiri

Nafarroako foruak, pribilegio batzu izan gabe, eskubide-agiri batetan oinharrituak daude; eta askatasuna, demokrazia eta aginte-gehiegikerien kontrola ditu, hain zuzen, eskubide horien euskarri nagusi. Oinharririk funtsezkoen hauk, zenbait garaitan, jakinaren gainean zapalduak izan dira, bai kanpokoen indarrez eta baita kanpotar horiekin elkar harturik zegoen bertako zenbaitenez ere.

### Aspaldidaniko jokabidee

Hala eta guztiz ere, Nafarroak berekin gordea du gaur arte nolabaiteko administralgo autonomia bat, eta berau dugu une hauetan batzuk sakralizatu nahi dutena, Euskadirekin elkartzen ez uzteko atxakia gisa. Horra berriro, espainiar nazionalismoak gure herriarekin aspalditxotik izan duen jokabide ezaguna: «zati ezak eta garaituko duk», alegia; nafarrei buruan sartu nahi zaie badutela zenbait ahalmen eta instituzio berezi; baina ahalmen eta instituzio horik ez ditugu joandako garaik demokratiko baten oroigarria besterik: bere garaiko kontzepzio absolutista guztien artean salbuespen bat zen eta bi Estatu baterazale eta jakobinoren onetan triskatua izan zen garaik demokratiko baten oroigarria besterik. Askatasun hondatzaileen ahalegin eskerga! Menperaketa kupidegabe baten azken hondarrak.

## Noiz eta nola galdu zuen Nafarroak bere burujabetasuna

1841eko Abuztuaren 16ko Legea ez dugu gertakari aislatu bat. XVIII. mendean gero, nabaria da autonomiaren aurkako zenbait konstante, Euskal Herri osoarekiko eta bereziki Nafarroarekiko.

### Gody-ren eginahalak

XVIII. mendearen azken aldera, eginahalak egin zituen Gody-k, Karlos IV.aren ministroak, Ebroko aduanak tokiz aldatzeko; baina Frantziako gertakariak (Konbentzio Gerla) zirela kausa, asmo hutsetan gelditu ziren. Iragan mendearen hasieran, berriz, zenbait obra idatzi zen honako helburu honekin «demonstrar la imaginaria personalidad independiente del Reino de Navarra y del status de las tres provincias vascongadas» (*Diccionario geográfico-histórico de España*, Real Academia de la Historia-k 1802an emana); *Noticias históricas de las tres Provincias Vascongadas*, 1806tik 1808ra bitartean idatzia; *Ensayo histórico de la Legislación de Navarra*, Zuaznavar-ek 1820an; zedula, gutun, patente, emendio, errege-agindu, etabarren Bilduma delakoa, 1829an...

### Madrildik eta Baionatik

Bai Baionan 1808ko Uztailaren 6an eta bai Cadiz-en 1812ko Martxoaren 19an emandako Konstituzioek, Nafarroa espainiar Erresumako probintziatzat joko digute, aldebakarki. *Juicio de sobrecarta* eta *Cámara de Comptos* direlakoak bertan behera galdu ziren errege-aginduz, 1821ean lehenengoa eta 1833an bigarrena. Javier de Burgos-ek 1833ko Urriaren 23an emandako Errege Dekretuan ere lurrera botatzen da Nafarroaren burujabetasuna, probintzia soiltzat ematen delarik; eta horregatik, hain zuzen, 1834eko Apirilaren 10eko errege Estatutuak Nafarroako ordezkariak dei egiten die Madrilgo Gorteetara. Nafarroaren burujabetasuna eta instituziorik jatorrizkoenak (hala nola Gorte Orokorrak, Erresuma Diputazioa, Errege Kontseilua, etab.) zapalduak gertatzen dira, «Novísima» deitu lege bildumak erabakiaren aurka (ikus I Liburua, 8. titulua, 33. Legea, eta 2. titulua, 59. Legea).

### Probintziako Diputazioa

Bidegabekeria nabarmen guztion goreneko puntua, Iruñean Probintziako Diputazioa ezartzea izan zen; forala izan balitz,



gaitzerdi, baina hori ere ez; eta berau izan zen, hain zuzen, Bergarako Abenikoak eta 1839ko Urriaren 25eko Legeak ezarritako foruen aldaketa «paktatu» zuena inongo legezketasunik gabe, batetik, eta erabat etsaien morroi bihurtuta bestetik. Lege hori nola taxutu zen, ikus neuk joan den Abuztuan *Deia*-n eman ditudan artikuluetan. Diodan argi eta garbi, zorionako «paktu» hori, Espainiako Gorteetako bi ganbaren artean aldatu, eztabai-datu eta onhartua izan zen Lege bat bihurtu zela, Espainiako Gobernuaren eta Probintziako Diputazioaren arteko negoziaketen ondoren.

Honetan ari ziren bitartean, Ebroko aduanak Pirinioetara aldatu ziren, 1840ko Abenduaren 6an, eta foru pasabidea kenda izan zen 1841eko Ekainaren 5ean. Zorigaitz samin eta negargarria, herri historian libre batentzat.

## 1841eko Legez geroko Foru Gobernabidea

### I. Foru Erakundeak

Nafarroako foruzaleak behin eta berriro lotu zaizkio eritzi honi, hots: Erresumako sistema berezi hark foru gobernabide bezala dirauela oraindik ere, bertatik espresuki kendu denaz beste orotan. Tesi hau zuzena da nire ustez, baina ez dadila uler hau aspaldiko garai batetan mugiezinik tinkatze bat bezala, aldinamiko batzu gordetze bat bezala baizik. Nola daiteke posible dian aldiko arazoei erantzuteko gai diren ahalmen berezi eta hau? Nafarroak betidanik eduki duen eta oraindik ere neurri batetan gordetzen duen ahalmenari esker eta ahalmen hori klausula orokor eta orotarako baten gisan emana egoteari esker, 1841az gero Konstituzio-batasunak inoiz izan ez dituen mugak ezarri badizkio ere.

Hauk dira Nafarroako erakunde politiko-administratiboak: Foru Diputazioa, Foru kontseilu Administraria eta Nafarroako Hauzitegi Administraria; bada beste zenbait erakunde ere. Heziketa Biltzarre Nagusia, Nafar Zuzenbidearen Ikasketa Kontseilua, Batzorde Bildumagilea, etab.

Ohartzekoa da, hiru organorik oinarrizkoenetan ageri den ahalmen klasikoen hirukoitzasuna.

#### 1. — *Diputazioa*

1841az gero zazpi diputatu foralez osatua dagoelarik, honako eginbehar eta ahalmen hauk dagozkio:

- A) Komenizko arauak eman, foru legeria gordez eta hobetuz, Nafarroako Gorteen ondorengo gisa.
- B) Legeskuera gisako hauzitegia izan, Nafarroako Kontseiluaren ondorengo bezala.
- C) Nafarroaren gobernamendu orokorra eramane eta Foru Administralgoa antolatu eta Udalen gaineko agintea izan, Nafarroako Kontseiluaren eta Erresumako Diputazio zenaren ondorengo den aldetik.
- D) Foruak gorde eta hobetzen saiatu hutsegina gabe, Erresumako Diputazioaren ondorengo delarik.

## 2. — *Foru Kontseilua*

Berrogeitahamar bokalez osatua dago. Parlamentu baten antzera, informabideaz, kontsultaketaz eta administratuen eskumenaz edo partehartzeaz arduratzen da erakunde hau; tamalez, ernamin dago oraindik, eta behar-beharrezkoa dugu ahal den guztia bizkor eraztea. Horren egitekorik nagusienak: Udal Administralgo eta Gobernamenduari dagozkien Araudi, ordenantza eta akordioak oro *onhartzea*, Foru Presupostuen eta Diru Kontuen *berri ematea*, Zor Publikoa erabiltzea, Foru arazoak eta, Diputazioaren erabakiz, kontseilatze berezia eska dezan beste edozein arazo. Hontaz, ikus 1977ko Azaroaren 20an *Egin*-en azaldu nuen komentarioa.

## 3. — *Hauzitegi Administraria*

Lau letratuk eta idazkari fedetari batek osatzen dute; organo espezialdu eta ordezkari bat da, eta Foru Diputazioari doazkion hauziak erabakitzea du bere egitekoa, oro har. Honako kasu hauetan ez du kompetentziarik: presupostuen legezketasuna uka dadinean, Udalek erabakitako zergak ez ezartzeko eskeetan, eta ordenantzak onhartzeko eskeetan.

## II. *Foru Administralgoa*

Ikus dezagun, laburki eta arin, Nafarroak administralgo arloan gaur egun duen zenbait kompetentzia, jatorrizko botere orokor hartatik bizirik iraun duenari esker daukan zenbait kompetentzia.

### 1. — *Administralgo Orokorra*

- A) Beharrezkoa dadinean, Estatuarekin itunak egin.
- B) Honako hauetaz arauak eman:

- a) Foru Administralgoaren antolamenduaz.
- b) Funtzionarien gobernamentuaz.
- c) Prozeduraz eta kontratapenaz.
- d) Bere zerga sistema bereziaz; berau, Estatuarekin Komenio Ekonomikoak eginez erabaki behar du.
- e) Nafarroako Zuzenbide Pribatua jasotzeaz, taxutzeaz eta hobetzeaz.
- f) Udalak, Kontzejuak eta foru legeriaren arauera gidatzen diren gainerako erakundeak gobernatzeko eraz.
- C) Administralgo hauziak erabaki; lehen instantzietan nahiz goradetan.
- D) Lekuko udal erakundeak babestu eta kontrolatu.
- E) Gainerako Probintzietan Estatuaren Administralgo kanpokoari dagozkion kompetentziak bete.

## 2. — *Sektore Administralgoa*

Oso zabala dugu. Nabarmentzekoak dira: Errege Eskubide administratiboak; Zerga eta Finantziaketa Administralgoa; Nekazalgoa eta Abelazkuntza; Industria; Naturaren Zaingoa; Obra Publikoak, Komunikabideak eta Garraioak; Urbanismoa, lur Planifikapena; Hazkunde Planifikapena; Heziketa; Profesio Hezkuntza; Arte eta Kultura; Turismo Promozioa; Osasuna, etab.

Badirudi oso zabala dela horretan nafar gobernabidea, baina teoria bakarrik dela aitortu behar. Egunetik egunera ugariagoak eta nabarmenagoak ditugu Estatuaren eskusartzeak eta foruekiko utzikeriak; eta horiek, nahi-eta-nahi-ez, gero eta murriztazo egiten dute autonomia, praktikan.

## **Azken gogoeta batzu**

### **Autonomia: batasungile**

Orain artekoaren harian, gogoraz dezadan arazo bat. Estatuaren egitura baterazaleak ukitu ere egin gabe uzten dituzten «urreautonomien» bolada honetan, bada nafar gobernabide indargabe hau euskaldunak zatikatzeko aipatzen ari denik, Nafarroa penintsulako Euskadi osoarekin elkartzea eragotzi nahi delarik.

Nafar autonomia kontserbatu ez ezik, indartu eta zabalduko bada, ez dago beste biderik, lau herrialdeak sistema bakar ba-

tetan sendo lotzea besterik, guztiaren eta zatiaren arteko dialektika dela bide. Eta hori ez litzateke, politikari estatalek eta hauen sukurtsalistek dioten bezala, Nafarroa ingurumari batetan integratzea, honela aspaldiko erresumaren euskalduntasuna ukatuz eta gure herriaren lurralde nortasuna apurtuz; aitzitik federatzea litzateke, zati bakoitzaren berezitasunarekiko begirunez.

Aurreautonomiaren testuan Nafarroaren izena aipatzea, hutsaren hurrengoa da. Iruzur egitea.

Aipamen horrek ezeren indarrik izango badu, 1841eko Abuztuaren 16ko Lege galgarri haren oztopoa desegin behar da lehenengo eta behin, halako moldez non Foru Kontseilua —Nafarroako Foru Diputazioaren organo aholku emaile hutsa orain— organo erabakile bihur dadin, Foru Gorporazioaz goitik. Horrelako erabaki bat amets hutsa da, arik eta oraingo Foru Diputazio frankista amorratu honek zutik dirauen bitartean, 1841eko Legea aldatzeko eta euskal batasunerako posibilitate guztien behaztopagarri, bide horretatik.

#### **Hainbat interes eta azpajoko**

Forua beren eta beretarren interes oligarkikoen onerako monopolizatu nahi duten eta, azal eta barne, euskaldunen etsai diren legegizon batzu, berriro ere jendea nondik engainatuko, foruen erabateko birrezarpena, independentzia beraz, aipatzen hasi zaizkigu uneotan, orain arte ondo isilik gorde badute ere. Sofisma, nafarrei honela moduz hitzegitean datza: nola ez bait zaigu posible gaur gaurkoz eskubide galduezin eta utziezin horik osorik lortzea, euts diezaigun dagoen dagoenean 1841eko Legeari: Estatuak hainbat eta hainbat aldiz momifikatu, gainditu, arautu eta aldatu izan duen Lege horri. Bestaldetik, betidanik demokrata omen diren horietako zenbait, euskal helburuaren etsairik gaiztoenak, hor ari dira, lau euskal herrialdeak elkartze-ko erreferendum baten bi herenen baiespina, Udalen oneritzia etab... behar direla eta. Erreferendumak, maiz, demokraziarik ezari legezketasun itxura eman ohi dio, eta badu berekin herriaren eskubideak murrizte bat; delako erreferendum asmo hori ere faxista da, Nafarroaren berezko izaera eztabaidatan jarri nahi bait du, eta, hortaz gainera, jenderik gehienaren informaziorik eta hezkuntzarik ezaz baliatu nahi da. Zergatik ez, hortakoz, Nafarroaren konkistaz eta Gaztelarekin, Estatu baterazalearekin alegia, elkartzeaz ere erreferendum bat egin, hirutatik bi gutienez alde behar izatekotan?

Azken-azkenean, aurreautonomiaren atzerapena azpajoko po-

litiko habila izan da, Gobernuak eta gure herrian foruzale laruz jantzirik dauzkan ordezkariak, eta baita beste zenbait alderdi estatalek ere ongi kalkulatuak. Joku makiabelikoa. Azken ondoriotaraino eraman nahi dute. Eta ezin hobeto atera zaie jokua. Herri mobilizapenak aipatzen dira atxakiatzat, eta «nafar arazo» delakoa, atzerapenaren arrazoiak hor ezarriz; baina kontu gutxitxo egin zaio beste zenbait punturi, hala nola aurreautonomiaren mamiari berari, ondo aztertuz gero, lotsagarria baita mami horren eskasa.

Saldu nahi zaiguna «deskafeinatua» ez ezik, gezurrez josia dago.

Makurkeria hauen aurrean, eta «negoziaketa» eta «parlamentarismo»en jokoa, Moncloako txeke zuriak eta Euskadiren kaltetarako den beste hainbat joko alde batetara utziz, galde dezagun: «Ez ote gara jabetzen, jasan ditugun ainako zorigaitzak jasan eta gero, gure herriak zer eskatzen duen? Axola gaberik gelditi ote gaitezke, gure lurralde batasunaren eskubidea zapaltzera datozkigun erreferendumen aurrean? Ez ote dakigu, bada, zenbaterainoko autonomia den ezinbesteko eta ezingutxiagoko? Noiz arte jasan behar ditugu geure nortasunari egin irri, gezur eta irainak? Ez aal dugu berriro esan beharrik izango, ez aal gara, Bloch-ekin, itxaropenaren utopiaz hitzegin beharrean aurkituko! Eta hain zoritxarrez euskal untziazen lemazain nahi luketen horiek, ez al dute behintzat untzia are eta gehiago haitz artean hondatuko!

Euskaratzailea: **Joxe Arregi**  
P. M. L.

#### SINGULARIDAD ADMINISTRATIVA NAVARRA SINGULARITE DE L'ADMINISTRATION NAVARRAISE

Este comentario trata de una aproximación al régimen foral de Navarra, el antiguo Reino que es fundamento y apoyatura básica del pueblo vasco. Pueden distinguirse tres etapas en el sistema foral navarro, sistema que recoge el derecho, costumbres, instituciones y principios de nuestro pueblo, en una visión ordinamentalista. La primera etapa llega a 1512, con una plenitud de soberanía e independencia. La segunda etapa tras la invasión y conquista de los castellanos se caracteriza por una unión personal a la corona de Castilla, conservando Navarra sus fueros y su soberanía: sus poderes legislativos (Cortes); judicial (Consejo Real), y ejecutivo (Diputación del Reino), son privativos e independientes; se acuña moneda; existen aduanas internacionales en el Ebro, etc.

Con la pérdida de la primera guerra carlista, el País Vasco sufre la imposición de la unidad constitucional del Estado nacionalista. Navarra, en virtud de las leyes de 25 de Octubre de 1839 y específicamente de la de 16 de Agosto de 1841, queda convertida en una provincia, manteniendo un régimen administrativo autonómico.

La Ley de 16 de Agosto de 1941 ha sido bautizada por los pseudoforalistas como Paccionada, pretendiendo hacer creer al pueblo que es un pacto o tratado entre dos entes iguales, cuando la realidad no es más que una Ley de vencidos, que arrebató a Navarra sus derechos, convirtiéndola en una provincia. Tal mito sólo busca mantener el status del caciquismo enquistado en esta tierra (sucesor de aquellos individuos, miembros de la Diputación Provincial que «pactó» con el Estado en 1840), fortalecer la naturaleza unitaria del Estado Jacobino e impedir que Navarra se una con los restantes territorios vascos.

En estos momentos de preautonomía (?) se vuelve a utilizar el nombre de Navarra para pisotear los derechos de nuestro pueblo.

Tras cuestionar la territorialidad vasca, se quiere con una hábil cortina de humo, propio del más venenoso marketing político, conducir a Euskadi a luchar por objetivos contradictorios con su ser y con sus derechos.

Ce commentaire traite d'une approximation concernant le régime foral de la Navarre, l'ancien Royaume qui est fondement et point d'appui du peuple basque. On peut distinguer trois étapes dans le système foral navarrais, système qui rassemble le droit, les coutumes, les institutions et les principes de notre peuple dans une vision «ordinamentalista». La première étape va jusqu'à 1512, marquée par une plénitude de souveraineté et d'indépendance. La deuxième étape, après l'invasion et la conquête des castillans, se caractérise par une union personnelle à la couronne de Castille, en conservant à la Navarre ses «fueros» et sa souveraineté: ses pouvoirs législatifs (Cortes), judiciaires (Conseil Réel) et exécutifs (Diputation du Royaume) sont privatifs et indépendants; on frappe la monnaie; il y a de douanes internationales sur l'Ebro, etc.

A la suite de la défaite de la première guerre carliste, le Pays Basque subit l'imposition de l'unité constitutionnelle de l'Etat nationaliste. La Navarre, en vertu des lois du 25 octobre 1839, et spécialement de celle d'août 1841, devient une province conservant un régime administratif autonome.

La loi de 16 août 1841 a été baptisée par les pseudoforalistes «Ley Paccionada», réussissant à faire croire au peuple qu'il s'agit d'un pacte ou traité entre deux égaux, alors qu'en réalité il s'agit d'une loi des vaincus, qui enlève à la Navarre ses droits, en en faisant une province. Un tel mythe cherche seulement à maintenir le statut du «caciquisme» enkyeté dans cette terre (successeur de ces individus, membres de la Députation Provinciale, qui pactisèrent avec l'Etat en 1840), à fortifier la nature unitaire de l'Etat jacobin et à empêcher que la Navarre s'unisse avec les autres territoires basques.

En ce temps de préautonomie, on abuse de nouveau du nom de la Navarre pour piétiner les droits de notre peuple.

Après avoir mis en question la territorialité basque, on veut avec un habile rideau de fumée caractéristique du plus vénénéux marketing politique, conduire l'Euskadi à lutter pour des objectifs contraires à sa nature et à ses droits.

# Nafarroako ekonomiaren arazoak

Jesus Bueno Asin

## Sarrera

Nafarroaren lurraldea (10.421 km.<sup>2</sup>) hegoaldeko lau euskal probintzien 59 % da eremuz. Populazioz, berriz, 19% dira Nafarroan bizi direnak (483.827 biztanle).

Nafarroako lurra oso aberatsa da baliabide naturaletan. Hor sartzen dira meatzeak, laborantzazko emaitzak, ganaduak, oihanak, ura, etab. Hala ere, azken 15 urteotan (1960-1975), Nafarroan industria sartu da bete-betean, eta mini-iraultza industrial honek aldaketa bortitzak sortu ditu bertako sozio-ekonomian.

Bide batez, Nafarroako eredu politiko forala, artean lurgintzazko ekonomiari hertsiki lotua, kinka larrian sartzen da, zeren eta ingurumari soziologiko eta ekonomiko berriari egokitu beharrean gertatzen baita.

Bestalde, nafar ekonomiaren aurreramendua itsumustuka eta senaren bultzadaz bezala egiten ari da, ez baita inondik ere ikusten eredu ekonomiko baten plangintza egokirik, hots: eskualdeko berezitasunetan oinarriturik, autonomiaren sostengu gotorra gertatuko den eredia eta Nafarroa Euskal Herriko egitura ekonomikoan integraraziko

duena. Halaz guztiz, Nafarroa integratua dago jadanik Euskal Herriko egitura ekonomikoan, bertan pisu berezia duelarik.

## **Nafarroaren eboluzio azkarra**

### **15 urte erabakitzaile**

Esan bezala, 1960-1975 urteetan, Nafarroako egitura sozio-ekonomikoak aldaketa larriak jasan izan ditu. Azken 15 urteok guztiz erabakitzaileak izan dira, zeren eta urte gutxi horietan nafar lurraldea izugarriro aldatu baita, aspaldiko zenbait mendetan baino gehiago, agian. Industriaren abiadura 1960-1964 urte bitartean hasten da batez ere, eta horrenbestez anartean nagusi zen laborantzazko ekonomiaren eitea hausten da, bide batez ekonomi molde modernoagoa sartzen delarik, industrial-hiritarra, alegia.

Halaz ere, Nafarroa gaurregun eboluzio bete-betean dago sozio-ekonomi mailan, zeren eta 1960az gero gertatu diren aldaketa larriek dinamika dialektikoa sortu baitute bertako ekonomi eredu ohizkoan, berau lurgintza-nekazaritzazkoa zelarik. Gainera, aldaketa horien ondorioak ez dira behin betikoz gertatu, ezen oraino ez baitituzte beren ondorio guztiak eman.

### **Gaurregun Kriaren zergatiak**

Horrela bada, lehenik ageri zaiguna zera da: industrializazioaren prozesuak abiadura ekonomiko-industrial berria ekarri badu ere, prozesu hori ez da oraino erabat burutu eta finkatu. Bestelako arrazoiren artean, nazioarteko krisi ekonomikoa dago, zeinek, 1969az gero batipat, inbertsioak murrizten baititu eta horrenbestez entpresarien planak moteltzen.

Bigarrenik, hazkuntz eredu berriak zenbait desoreka ere sortu ditu Nafarroako ekonomian eta gizartean. Lurralde mailan, esate baterako, eskualde batzu besteak baino abantailatuago gertatzen dira. Halaber, sektore mailan, zenbait produkzio sail (siderurgia, papergintza, kimika) hartzen dira hazkuntza industriaren oinharritzat, beste sektore batzu baztertutxeak edo bertan behera utziak gelditzen diren bitartean, hala nola, nekazaritza, abelazkuntza, etab.

Azkenik, Nafarroako industrikuntzak alde batera utzi du bertako industria autonomoaren hazkuntza, bost, bertan dauden balia bide naturalen transformakuntzan oinharritua, hala nola,



laborantza, abelazkuntza, oihanak, hazkurria eta laborantza in-guruko industriak (ongarriak, haziak, tresneria, etab.).

Gisa horretan, Nafarroari autonomia gehiago emango zio-keen politika ekonomikoa aukeratu beharrian, bertako baliabide naturalak eta bertako langileak enplegatuz, industria lagungarria sortzen da (batez ere siderometalurgiaren subsektorean), kanpo-ko ekonomien baitan dagoena, alegia. Seinalagarri da, hildo ho-netan, Nafarroan 60 multinazional daudela eta INI ere bai (Ins-tituto Nacional de Industria), beronek kontrolatzen dituelarik «Potasas de Navarra» eta «Laminaciones de Lesaca». Esan behar da, hain zuzen, Nafarroaren industrikuntza INIren finkamenduaz batera hasten dela, berak monopolizatzen baitu potasaren husti-rapena.

«Harrigarri da benetan eta leku gutxitan gertatzen dena, Al-dundegiko Jauregitik 10 km.tara, hots, lurralde bateko pertsona eta baliabideak babestu behar lituzkeen erakunde baten egoitza-tik kilometro gutitara, Potasasen tamainako meategia sortzea, berau INIk kolonizatzen duelarik, Estatuak berak, alegia. Esta-tu zentralak izugarritzko potasa kantitateak hustiratu ditu azken hamar-hamabi urteotan, baina etengabeko esplotakuntza egiteke hala ere, horrela espainol Estatutik kanpora joan ez zedin. Jen-deak dioenez, beste hamar-hamabost urterako potasa gelditzen bide da bertan. Potasaren 60% eta abar Belgika, Holanda eta Ingalaterrara esportatu da, horietan potasa ugari erabiltzen baita. Diputazioak, hein batetan, babestu eta eskuz esku jokatu du INIrekin, zeren eta ez baitu ezertxo ere egin nafar nekazari-entzat hain beharrezko den baliabide funtsezko hori espoliatua izan ez dadin. Nafar nekazaritzak premiazkoak ditu fosforoa, potasa eta nitrogenoa. Potasa bageneukan, baina ez da luzarorako gel-dituko, baldin eta eramaten badute»<sup>1</sup>.

#### **Hazkuntz eredia eta autonomi galera**

Beraz, errejimen foralak Estatu zentralari buruz nolabaiteko autonomia ematen badio ere, hautatu den hazkuntz eredia Fo-ruaren kontra doa, hots, Nafarroaren izaera eta nortasunaren kontra. Gainera, ez da nabari inolako joerarik gure baliabide naturalak hustiratzeko eta berorien potentzialitate ekonomikoaz baliatzeko. Are gehiago, munta handiko meatz ondasunei bu-ruzko eskubideak besteren eskutan utzi dira (potasaren kasua), eta hori laborantzarako hain beharrezkoak zirelarik. Gure erre-jimen forala sendotzeko, ahalik eta hazkuntza autonomoena bi-latu beharrian, kanpotik etorritako entresei laguntzen zaie,

zergak kenduz eta bestelako abantaila ekonomikoak ezkainiz, Diputazioaren Hazkuntza Industrialaren Egitarauari jarraiki. Noski, entrepresa horien kapitala eta erabaki gunea Nafarroatik kanpo dago, gehienetan multinazionalak edota Estatu espainolaren entrepresa publikoak baitira (INIren kasua).

Faktore guztiok adierazten digutenez, Nafarroa gaurregun eboluzio sozio-ekonomiko bete-betean bizi da, zeren eta abiadura industrialaren hildotik sartu bada ere, prozesu hori ez baita oraino erabat finkatu. Gainera, aukeratu den hazkuntz eredu ez da oso egokia. Eta Nafarroaren ezaugarri soziologiko eta ekonomikoak kontutan hartu ez direlarik, eskualdearen autonomia eta nortasun forala ere zapalduak gertatzen dira. Hortaz, Erresuma zaharreko ekonomia noraezean dabil, ez baitago plangintzarik eta hazkuntza autonomo baterako estrategiarik. Zenbait erakunde foral badiren arren, Nafarroako ekonomia senaren eraginez bezala dabil, bertako nortasunari eta izaera bereziari dago-kion hazkuntz eredu bilatu nahirik.

## Herriak eta hiriak

1959az gero, urte horretan jartzen baita praktikan «Plan de Estabilización» delakoa, Estatu espainolak bertan behera uzten du autarkian finkaturiko eredu ekonomikoa eta beste hazkuntz modu bati ekiten dio, industrigintzan oinharrituari, eta lurgintza-ganaderitzan sobera den laneskua irents dezanari. Izan ere, tenore horretan esan ohi zen bezala: Gizarte bat zenbat eta aurrerratuago izan, hainbat eta jende gehiago enplegatzen da industrian eta zerbitzuetan eta, bide batez, hainbat eta gutiago lurgintza-ganaderitzan.

## Ikuspegi desarroilista

Ikuspegi «desarroilista» honekin ekiten dio Nafarroak industrikuntzari, ahalik eta lanpostu industrial gehien sortzearen kezka tirriaturik. Hala ere, Diputazio Foralaren industri promoziorako politika, ideologia jakin batez baliatzen da eta, gauzatuko ez bada ere, kapital industrialaren zerbitzutan dago.

Industri poligonoak sortzeari ematen zaio bultzada, Nafarroako eskualdetan zehar kokatuak. Teorian behintzat, poligono hau leku batean bildu ordez han hemenka banatuz, nekazal populazioaren banaketa berria bilatu nahi zen, baina eskualdeen arteko populazio oreka mantenduz.

Horrenbestez ez da esan nahi, Nafarroa eskualdekatzeko plangintzarik bazegoenik edota nekazal herriei laguntzeko politikarik; ezta herriak suspertzeko asmorik bazebilenik eta eskualdea entitate supraherritar bezala eratzeorik, zerbitzuak leku batean bilduz, etab. Hala ere, preikusiak zeuden industri poligono guztiak ez dira gauzatu eta ez dute denek hedakunde mar-txa bera eraman.

Aldi berean, lurgintzak teknologia berria eskuratzen du (ma-kineria, haziak, ongarriak,...), anarteko autobaliatzearen ordez mekanizazio ugaria erabiliz. Guzti honen ondorioz, herrietako jendea hirira emigratzen hasten da eta lurgintzan ari zena in-dustriara abiatzen, horrela Nafarroatik kanporako emigrazioari atea ixten zaiolarik (Ameriketara, Gipuzkoara, etab.).

#### Lurgintza masiboki uzten

1950-1975 aroan, Nafarroako zonalde osoak jendez hustu egiten dira, mendialdean batez ere, populazioa urtetik urtera jaitsiz doalarik: Zangozako merinaldean <sup>2</sup> -1,52%, Lizarrakoan -0,64 %, Iruñekoan <sup>2</sup> -0,28 % eta Tafallakoan -0,16 %. Tuterako merinaldean bakarrik hazi zen populazioa (+0,64 % urteko hazkunde tasa) eta Iruñeko Arroan batipat (+5,36 % urteko hazkunde tasa). Honela, nafar populazioaren banaketak galdu egiten du aurreko urteetan zuen eskualdekako oreka, Iruñeko Arroan biltzen baita nafar guztien 45 % eta entrepren- sen 60 %.

Hona hemen nafar populazioaren banaketa portzentuala, es- kualdeka. Urtealdia: 1950-1975 (% hainbestean).

	1950	1960	1970	1975
Iruñeko Arroa ... ..	25	30	42	45
Iruñeko gainerako merinaldea ...	17	16	13	12,5
Zangozako gainerako marinaldea	10	8	6	5
Tafallako merinaldea ... ..	12	11,5	9	9
Lizarrako merinaldea ... ..	19	17,5	14	13
Tuterako merinaldea ... ..	17	17	16	15,5
<i>Nafarroa</i> ... ..	100	100	100	100

1969az gero, herrietatik hirirako emigrazioa ahuldu egiten da, lanpostuak ere ez baitira hain ugari sortzen. Horri esker, herriak ez dira erabat hustutzen, baina zenbait eskualdetako po-

pulazioa bereziki oso zaharra bilakatzen da. Egoera berri honek bi problema planteatzen ditu:

- a) Nafarroako bost merinaldeen mugak berrikusi beharra, 1841eko Lege Hitzartuan onhartuak berak, Iruñeko Arroa merinalde berezi bezala aitortu beharra ikusten baita, bertan nafar guztien 45 % bizi delarik. Horrek esan nahi du 1841eko Lege Hitzartua berrikusi behar dela eta oraingo errejimen forala berregituratu, bereziki «Reglamento de Administración Municipal de Navarra» delakoa.
- b) Nafarroaren eskualdekatze egokia egin beharraren premia larria eta, Diputazioaren aldetik, herriak suspertu eta promozionatzeko politika ekonomikoa, herrietan finkatzen baita nekazaritza. Eta oraintxe da garai aproposa. Zeren eta bestela, krisi industrialari gaindi dadinean eta ekonomi lanketa lehendik pilatua dagoen lekuetan lanpostu berriak sor daitezenean, Nafarroako herriei azken herio kolpea emango baitzaie, eskualde osoak eremu bihurtuko direlarik eta jendeak lurgintza masiboki utzi-ko duelarik.

## Egitura ekonomikoa

### Sektoreen emaitzak

Egitura ekonomikoa bera ere izugarriro aldatzen da. Esate baterako, 1962an, nekazaritzaren sektoreak Nafarroako Barne Produktu Osoaren 37 % ematen zuen. Emaitza horri, hazkurri edo elikaduraren subsektore industrialari dagokion portzentaia eransten badiogu, bien artean 45 % ematen zuten garai hartan, hots, Barne Produktuaren ia erdia.

Urte berean, 1962an, industria eta zerbitzuen sektoreek 30% eta 33 % eman zuten hurrenez hurren, hots, nekazaritzaren sektoreak baino gutiago, bakarka hartuta. Hurrengo urteetan, industriaren sektoreak indar handia hartzen du eta gailendu egiten da. Honela, Nafarroaren Barne Produktu Osoa gisa honetan banatzen zen 1975ean: industri sektoreak 44 %, zerbitzu sektoreak 42 % eta nekazaritza sektoreak 14 %.

Bestalde, industri sektorearen barruan ere aldaketa handiak gertatu dira. Aski da, horretaz jabetzeko, industriaren egitura osoa subsektoreka azterkatzea.

Nafarroa: Hona hemen, subsektoreka, sektore industrialeko

gehigarri balio osoaren egitura. Urteak: 1962-1975. Zifrak % hainbestean ematen dira.

	1962	1975
Meagintza ... ..	2	2,5
Elikadura ... ..	22	8
Ehungintza ... ..	3	1,5
Larru-oinetako-jantzigintza ... ..	8	6
Zurgintza-kortxoak ... ..	7	5
Kimika (produktu kimikoak) ... ..	9	7,5
Buztingintza-beira-zementua ... ..	5	5
Oinharrizko metaleak ... ..	2	10,5
Metalezko produktuak ... ..	14,5	27,5
Eraikuntza eta Herri Lanak ... ..	16,5	14,5
Ura-gasa-elekttrizitatea ... ..	6	3,5
<i>Guztira</i> ... ..	100	100

*Iturria:* «Renta Nacional de España»tik elaboratua (Bco. Bilbao).

Nafarroako industriaren barruan, 1962an, elikaduraren subsektoreak zuen pisu ekonomikorik handiena (Produktu industrialaren 22 %). Haatik, 1975ean, siderometalurgia gailentzen zaio, beronek industrigintzako gehigarri balioaren 38 % ematen baitu, hots, 1962an baino bi bider eta gehiago.

#### Egitura ekonomikoaren norabidea

Zuin nagusiak kontutan harturik, Nafarroako egitura ekonomikoak norabide hau darama:

- Nekazaritzak ez du lehen bezalako garrantzirik errenta emaile bezala. Gainera, teknologia berri batez baliatzen delarik, kera berria hartzen du eta bere lanketa berezia antolatzeke molde berria.
- Industri sektoreak ekarri du hamabost urteotako hazkuntza, eta bera da gailen gaurregun Nafarroako ekonomian, hurrena eta hurbiletik zerbitzuen sektorea datorrelarik.
- Industri sektorearen barruan, adar hauk nabarmentzen dira hazkuntzaren eragile nagusi bezala: metalezko produktuak eta oinharrizko metaleak, gero eraikuntza eta herri lanak, papera, elikadura eta produktu kimikoak da-

tozelarik. Esan nahi da, Gipuzkoan eta Bizkaian gailendu den ekonomi mota bera ari dela sartzen Nafarroan ere, influentzia nabaria delarik. Fenomeno hau interpretatu eta izendatzerakoan, ekonomilariak «olio mantxaren ondoriotzat» jotzen dute edota euskal probintzia industriatuenetan gailendu den produkzio moduaren «hedakuntza geografikotzat». Eragin hori 1964az lehenagokoa da, urte horretan ondu baitzuen Nafarroako Diputazio Foralak industri hazkuntzarako egitaraua.

- d) Halaz guztiz, eta beheraka egin badute ere, nekazaritzaren sektoreak eta elikaduraren subsektore industrialak Nafarroako Barne Produktu osoaren 18 % ematen zuten 1975ean. Zifra hori aski esanguratsua da eta, gerora begira, kontutan hartzekoa, elikaduraren sektorea oraino ere esperantzagarri ageri baita.

Azken funtsean, Nafarroaren industrikuntza gainontzeko Euskal Herrikoaren egitura berdintzera doa, industrigintza produkzioaren zenbait subsektoretan biltzen eta polarizatzen ari delarik, hala nola, siderometalurgia, papergintza eta produktu kimikoak. Aldi berean, ordea, ez dago asmorik nekazaritza-ganaderitzaren sektorea sendotu eta azkartzeko, oraintsu arte gailen izan den langintza, alegia. Gauza nabaria denez, geroari buruz, ez dago inolako estrategia ekonomikorik, zeren eta hazkurrien produkzioak gero eta garrantzi funtsezkoagoa izango baitu; gonbarazio baterako, mementu honetan petrolioak eta lehengaiak nazioarteko kontzertuan duten pisu beretsukoa.

### **Sektoreen arteko desoreka**

Bistan da, beraz, produkzio sektoreak alderatzen hasiz gero, desberdina eta oreka gabea dela ekonomi hazkuntza. Esan nahi da, egitura ekonomikoa aztertuz, sektoreen arteko desoreka larza nabari dela, eta Nafarroako baliabide naturalak ez direla behar bezala hustiratzen. Hazkuntz eredu honek espontaneoki bezala funtzionatu du, inolako plangintza eta razionaltasun ekonomikorik gabe, zeren eta plangintza hori, gehienez ere, indikatilboa izan baita eta ez derrigorrezkoa.

Hala berean, Diputazio Foralak, 1964eko Hazkuntza Industrierako Egitarauaren bidez, ekonomiazko abantail batzu ematea besterik ez du egiten (hala nola, zerga exentzioak, lurrak eta subentzioak), horrela entepresei Nafarroan finkatzeko bidea erraztu nahirik, beti ere ahalik eta lanpostu gehien sortzeko asmo larriak hartaraturik.

Laguntza ekonomiko horik nolnahi ematen dira, eta ez da sekula planteatzen entpresa mota batzu bereziz eta hobetsiz joateko komenentzia, esate baterako, entpresa horik modernoak ala zaharkituak diren aztertuz, nola produktuaren aldetik hala teknologiaren aldetik. Hain zuzen, gisa horretako planteamendurik egin ez delako, gaurregun entpresa «berri» horietariko asko zaharkituak daude eta berregituratu beharrean aurkitzen dira. Esan nahi da, lanpostu berriak sortu beharrean lan-gabezia sortzen dutela, eta horrela arazo laboralak larriago bihurtzen dira, gaurko ekonomi krisian berez nahiko larriak direlarik.

### Nafarroaren etorkizuna

Nazio guztietan konstante gisa ageri den printzipio batetik abiatuko naiz: nazio baten eredu edo estrategia ekonomikoak, craginkorra izango bada, bertako eredu politikoarekin ados egon behar du. Zeren eta biak elkaturik ez badoaz, ezin daiteke aurrera egin eta gainera ondorio kaltegarriak ekar ditzake, kanpotiko dependentziak indartuz. Are eta gehiago, nazio-estatua-ren barruan autonomia nahi duen eskualde bat baldin bada.

Nafarroak badu eredu politiko berezia, 1841eko Lege Hitzar-tutik datorren errejimen forala alegia, lehen karlistada galdu ondoren ezarria. Lege horrek *Nafarroako Foru zaharra haintzakotzat hartzen du, baldin eta Estatu espainolaren konstituziozko batasuna hausten ez badu behintzat.*

### Autonomia forala: burgesiaren amore ematea

Errejimen foral hau prekapitalista erako ekonomiari hertsiki lotua egon da, bertan ganaderitza eta laborantza gailen zirelarik eta, hein handi batetan, autohornidurazko sistema batetan bizi zelarik. Errejimen foralaren eta «autohornidurazko» ekonomiaren arteko sinbiosi hori zen, bain zuzen, Nafarroaren autonomia za-balaren sostengua.

Alabaina, iraultza industrial sartu ahala, Nafarroak ez du behar adinako indarririk bizimodu berrira egokitzeko eta errejimen forala gaurkotzeko. Horrela, produkzio molde nagusia aldatuz doalarik, «nafar burgeseria» —eta bera da aldakuntzaren eragile lehena —ez da gauza autonomia forala defendatzeko eta aurrera ateratzeko. Dena den, aztertu egin beharko litzateke «nafar burgeseria» hori nolakoa izan den.

Harrez gero, Forua maneiataua izango da, zenbait negozio ba-besteko (zergak kenduz, etab.) eta bestelako prebenda ekonomikorik eusteko. Ondorioz, hazkuntza ekonomiko-industrialia dela bide, Nafarroak ez du aurreramendurik lortzen bere soberanian edota autonomia ekonomikoan.

Hildo beretik, edozein entpresari sarrera ematen zaio, nahiz modernoa nahiz zaharkitua izan. INIK erabateko monopolioa eskuratzen du potasa meategiak hustiratzeko, eskubide guztien jabe eginez. Bestalde, nafarrek Aurrezki Kutxen bidez aurreratutako dirua ihesi joan da etengabe, eta horrela industrikuntzarako hain beharrezko ziren finantzabideak eskas izan dira. Hazkurri iturri den laborantz sektorea bertan behera utzi da, nahiz eta baliabide naturalak ugariak izan eta, gerora begira, munta handikoak. Herri ondasunek ere (lurraldearen 43 % herriarena da) jasan dute kontrako kolperik eta pribatizazio asmorik franko, lur horik babestu eta laborantza-ganaderitzaren zerbitzutan jarri beharrean. Hibaietako ura Madrildik planifikatzen eta erregulatzen dute, kanpotiko entpresen faboretan jartzeko noski, Erriberako laborantzaren zerbitzura ipini beharrean. Trenbide vasconavarro delakoa desagertu delarik, Alduideskoa egitamu hutsa da oraino. Komunikabide modernorik ez dugu, eta gainerako Euskal Herriaz eta Europako Ekonomi Elkartiaz lotzen gaituzten bideak oso kondizio txarretan daude. Nafarroako nekazariek, ganaduzaleek eta herriek ez dute Forua ezagutzen eta ez dakite honen abantailen berri, zeren eta limosnak eta subentzio foralak besterik ez baitute ezagutu. Eta abar eta abar.

Esan beharrik ez da, horrela ez dagoela Nafarroaren nortasuna eta potentzialitate ekonomikoa aurrerantz bultzatzerik. Ezta Nafarroako Erresuma soberanoa eta bere Forua eraikitzerik ere. Bestelako interes uherrak ageri dira guzti horretan. Zeren eta zernolako Forua defendatu nahi da, nafar herri osoarena ala nafar banaka batzurena?

Nafar sentimendua suspertu eta bultzatu nahi izan da (ezen ez nafar kultura), baina beti ere zenbait interes ekonomiko «foralistaren» sostengu eta euskarri zen heinean. Bestalde, berriz, Nafarroan *finkaturiko* burgeseriaren beste sostengua zentralismo espainola da, Madrilen kokatua bera. Zentralismo horrek Foruari damaion arreta eta babesa guztiz interesatua da, zeren eta osagarri polita gertatzen baita administrazio zentralak duen boterearentzat. «Burgeseria foruzalderen» kontraesan hau oker historiko nabarmena da, eta luzaro gabe burgeseria berorren kontra bihur daiteke<sup>3</sup>.



Esanak esan, gauza nabaria da, azken hamabost urteotako industri hazkuntzaren ereduak, oldez ala moldez, Nafarroa gainontzeko Euskal Herrian integratu duela ekonomi mailan. Izan ere, Nafarroako ekonomiaren industrikuntzak euskal probintzien arteko lotura ekonomiko ohizkoak hestutu egin ditu bide batez eta harreman berriak sortu, azkenean solidaritate berri baten kateak finkatuz.

### Nafarroaren integrakuntza ekonomikoa Euskal Herrian

Ekonomi aldetik begiratuta, beraz (eta argudio historiko-kulturazkoetan sartu gabe), Nafarroa Euskal Herrian integratua dago jadanik. Nafar ekonomiak badu pisu eta munta berezirik euskal ekonomiaren egitura osoan. Horretaz, Nafarroa egitura horretatik bereizi nahi izatea nafar herriaren eta Euskal Herriaren interes ekonomikoen kontra jokatzeari da. Eta jokabide horren arrazoi bakarra hauxe dateke: Nafarroan finkaturik dauden zenbait talde ekonomikoren interesak babestea eta aurrera ateratzea<sup>1</sup>.

Mementu honetan, Nafarroa eta beste euskal probintziak «tenore konstituente» batetan daude, zeren eta hego aldeko lau probintzientzat eredu politiko bateratua egin nahi baita. Tamalez, baliteke Nafarroa Euskal Herritik aparte geratzea politika mailan. Nire ustez, oker larria litzateke horrelakorik gertatzea, horrek atarramendu txarrak ekarriko bailituzke nafar ekonomia-erentzat eta, oro har, euskal ekonomia-erentzat. Nolanahi ere, Nafarroa sozio-ekonomi aldetik eboluzio bizi-bizian dagoelarik, bere nortasunari dagokion eredu ekonomiko baten beharrean dago, hots, bere ahalbide giza-fisikoetan oinarritua. Alegia, lurgintzan eta industrian oinarrituriko ekonomi eredu behar du Nafarroak, bere autonomia forala sostengatu eta indartuko duena eta, bestalde, testuinguru ekonomikoa haintzakotzat hartuko duena, hots, Euskal Herriaren egitura ekonomikoa. Zeren eta Nafarroaren eredu politikoa osagarria ez bada eta eredu ekonomiko berezi batetan oinarritzen ez bada, autonomia handi bati eutsiz, Nafarroa galeran irtengo bait da eta Erresuma burujabe izatetik Estatu espainoleko probintzia soil izatera amilduko bait da gainbehera bizkorrean.

<sup>1</sup> GAVIRIA, M.: «La Cuenca de Pamplona en el conjunto espacial navarro» (Iruñean emaniko hitzaldia) in: *La Cuenca de Pamplona*, Ed. Caja de Ahorros Municipal, 209 or.

<sup>2</sup> Iruñeko Arroan sartzen diren herriak kontatzeke.

<sup>3</sup> Ikus BUENO ASIN, J.: «A dónde vas Navarra?», in *Punto y Hora de Euskal Herria*, 70 zenb.

<sup>4</sup> Ikus BUENO ASIN, J.: «Por una Comunidad Económica Vasca», in: *Punto y Hora de Euskal Herria*, 69 zenb.

Euskaratzailea: **Joxe Lizarralde**  
J. B. A.

#### PROBLEMATICA DE LA ECONOMIA NAVARRA PROBLEMATIQUE DE L'ECONOMIE NAVARRAISE

Navarra representa el 59% del territorio y el 19% de la población de Euskadi Sur.

En el periodo 1960/1975, su estructura socioeconómica ha experimentado cambios importantes. El despegue industrial iniciado entre 1960/64 significa una ruptura con el tipo de economía agraria-rural, dominante hasta entonces, para dar paso a otra de corte industrial-urbana.

Dentro del sector industrial, motor del crecimiento, los subsectores más desarrollados son: transformados metálicos, metálicas básicas y papel; lo que evidencia la influencia ejercida por los núcleos industrializados más próximos de Guipúzcoa y Vizcaya. Con lo cual, la dinámica del crecimiento industrial ha contribuido, sin pretenderlo, a reforzar la integración económica de Navarra con el resto del País Vasco.

Se rompe el equilibrio poblacional existente de una Merindad a otra, concentrándose en la Cuenca de Pamplona hasta un 45% del total de navarros, así como el 60% de las empresas. Ello está exigiendo una revisión de los límites tradicionales de las cinco Merindades, reconocidas por la Ley Paccionada de 1841, e incluso de la misma Ley Paccionada, dado que se han modificado sustancialmente las circunstancias socioeconómicas con las que se correlacionaba el modelo político emanado del Fuero navarro.

Pese a todo, hoy Navarra está en plena evolución socioeconómica y a la búsqueda de un modelo político-económico acorde con su personalidad, basado en la potencialidad de sus recursos y, siendo realistas, integrado en la estructura económica del País Vasco a la que de hecho está vinculada.

La Navarre représente le 59% du territoire et le 19% de la population d'Euskadi Sud.

Dans la période 1960/1975, sa structure socioéconomique a expérimenté des changements importants. Le décollage industriel initié entre 1960/64 signifie la rupture avec le type d'économie agraire-rurale, dominant jusque là, en donant lieu au type d'économie industrielle-urbaine.

Dans le secteur industriel, moteur de la croissance, les sub-secteurs les plus développés sont les suivants: les transformés métalliques, les

métalliques basiques et le papier; ce qui met en évidence l'influence exercée par les noyaux industrialisés les plus proches de Guipuzcoa et Biscaye. Ce qui montre que la dynamique de la croissance industrielle a aidé, sans le prétendre, l'intégration économique de la Navarre avec le reste du Pays Basque.

Il se casse l'équilibre de population existant d'une «Merindad» (bailliage) à une autre. Elle se concentre dans le bassin de Pampelune jusqu'un 45 % de tous les navarraï, et le 60 % des entreprises. Cette situation nouvelle exige la révision des limites traditionnelles des cinq bailliages, reconnues par la Loi Pactisée de 1841, et même la Loi Pactisée elle-même, puisque les circonstances socio-économiques qui ont donné lieu au modèle politique né du Fuero navarraï ont été substantiellement modifiées.

Malgré tout, aujourd'hui la Navarre est en pleine évolution socio-économique et à la recherche d'un modèle politico-économique propre à sa personnalité, basée dans la potentialité de ses moyens et, pour être réalistes, intégrée dans la structure économique du Pays Basque, à laquelle de fait elle est déjà liée.

# Kontzentrazioa eta osagarritasuna euskal ekonomian

Jose Antonio Mendikute

## Sarrera

Idazlan honetan, bitan zatituko dugu Euskadiko ekonomia: alde batetik Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa, eta bestetik Nafarroa. Honela ikus ahal izango ditugu bi zatien arteko ezberdintasunak eta baita horien osagarritasuna ere. Lan hau egitean, Bilboko Banketxeak 1972. urteko datuekin oraintsu argitaratu duen «Input-Output» taula erabiliko dugu oinharri bezala.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako produkzio guztia 544.494,5 milioi pezetakoa izan zen urte hartan, eta Nafarroakoa 99.962,2koa. Hona hemen sektoretan banatuak:

	ARABA, BIZKAIA ETA GIPUZKOA		NAFARROA	
	Balioa (Milioi pezeta)	%	Balioa (Milioi pezeta)	%
Nekazaritza- -Arrantza	20.469,5	3,76	12.922,0	12,93
Industri sektorea .	370.996,1	68,14	54.922,4	54,94
Zerbitzu sektorea .	153.028,9	28,10	32.117,8	32,13
<i>Guztia</i> .	<i>544.494,5</i>	<i>100,—</i>	<i>99.962,2</i>	<i>100,—</i>

### Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa

Herrialde honen ezaugarria, industri sektoreak duen garrantzia izango da. Bestalde, zerbitzuen portzentaiak sektore honen ahulezia nabarmentzen du.

Xehetasun gehiago emanaz, bi industri abarrek produkzio balioren % 28,73 lortzen dutela ikus dezakegu.

— Burdin eta altzairu industriak ... 89.459,8 milioi pezeta

— Metalezko produktuak ... .. 66.970,3 » »

Industri sektoreko kontzentrazioa erakusten digu hurrengo koadroak:

Produkzio maila	Zenbat abar sartzen diren	Produkzioa (milioi pezetatan)	%
10.000 milioi baino gehiago ...	9	263.620,8	69,8
5.000 miliotatik 10.000 milioitara	7	57.385,7	15,2
5.000 milioi baino gutiago ...	29	56.668,6	15,0
<i>Guztia</i> ... ..	45	377.675,1	100

Ikusten dugunez, bederatzi aktibitate abarrek industri produkzioaren % 69,8 lortzen dute. Are gehiago, abar hauek osatzen dute hiru probintzietako produkzioaren ia erdia.

Lanpostuei dagokienez, hona hemen industri sektorearen zerrenda:

Izena	Lanpostuak	% industri sektorean
Metalezko produktuak ... ..	96.745	24,52
Konstrukzioa eta Obra Publikoak ...	59.910	15,19
Burdin eta altzairu industriak ...	35.155	8,91
Makinagintza eta ekipoak ... ..	23.671	6,—
Materiale eta aparailu elekt. eta eln.	22.753	5,77
Haltzariak eta zurezko produktuak	17.918	4,54
Kautxo produktuak ... ..	14.119	3,58

Bi abarrek lortzen dute industri sektoreko lanpostuen %39,71. Datu honek, industri sektoreko kontzentrazioa baieztatzen du.

Hurrengo zerrendan, zerbitzu sektoreko abarrik garrantzitsuenak agertuko ditugu:

Izena	Lanpostuak	% industri sektorean
Banaketa ... ..	77.835	24,56
Pertsonal zerbitzuak ... ..	64.085	20,22
Ostalaritza eta antzekoak ... ..	30.976	9,78
Lurretiko garraioak ... ..	21.466	6,77
Administralgo Publikoa eta Nazio Babespeidea ... ..	20.621	6,51

Zerbitzuetan ere kontzentrazioa nabari da. Bi abarrek betetzen dute lanpostuen % 44,78.

## Nafarroa

Has gaitzen lehenik koadroa aztertzen. Nekazaritza-Arrantza sektorea alde batetara utzirik —Nafarroaren berezitasuna sektore horretan nabaria bait da—, beste sektoreetan orekatuagoa azaltzen zaigu Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarekin gonbaraturik.

Ikus zer nolako kontzentrazioa azaltzen den industri sektorean:

Produktzio maila	Zenbat abar sartzen diren	Produktzioa (milioi pezetatan)	%
10.000 milioi baino gehiago ...	—	—	—
5.000 milioitik 10.000 milioitara	2	12.351,2	22,49
5.000 milioi baino gutiago ...	43	42.571,2	77,51
<i>Guztia</i> ... ..	45	54.922,4	100,—

Lanpostuei buruz, hona hemen industri sektorearen zerrenda:

Izena	Lanpostuak	% Industri sektorean
Konstrukzioa eta Obra Publikoak ...	12.885	16,90
Metalezko produktuak ... ..	8.548	11,21
Fruitu eta barazki kontserbak ... ..	7.018	9,20
Haltzariak eta zurezko produktuak	3.213	4,21

Ez dago zerrenda hau luzatu beharrik. Garbi ikusten dugu Nafarroan ez dela sortzen beste hiru probintzietan bezalako kontzentrazioarik.

Zerbitzu sektorean berdin gertatuko da:

Izena	Lanpostuak	% Industri sektorean
Pertsonal zerbitzuak ... ..	9.079	13,62
Banaketa ... ..	7.436	11,16

Bi abar garrantzitsuenek gutti lortzen dute beste hiru probintziekin gonbaraturik, hau da: % 27,78 zerbitzu sektore osoan.

### Osagarritasuna: Nafarroa eta hiru euskal probintziak

Azkenik, azal dezagun Nafarroaren eta beste hiru probintzien arteko osagarritasuna.

«Merkatal balantzak» koadroan, tauletako hirurogeitahiru abarrak hamahirutan laburtu ditugu. Laburpen honek erraztu egingo digu azterketa eta ondorioen agerpena.

Ikusten dugunez, hamahiru abar multzotatik zortzitan, Nafarroako merkatal balantzaren zeinuak beste hiru probintzietakoen alderantzizkoak dira. Honek zera esan nahi du, adibidez: lehen abar multzoan, Nafarroaren exportapenak inportapenak baino handiagoak direla, eta beste hiru probintzietan, batera harturik, exportapenak tikiagoak direla inportapenak baino.

Aldiz, 5. abar multzoan exportapenak tikiagoak dira Nafarroan inportapenak baino, eta beste hiru probintzietan exporta-

## MERKATAL BALANTZAK

72

J. A. MENDIKUTE

AKTIBITATE ABARRAK	ARABA, BIZKAIA ETA GIPUZKOA			NAFARROA		
	Expor- tapenak	Inpor- tapenak	Gaine- rakoak	Expor- tapenak	Inpor- tapenak	Gaine- rakoak
1.— Nekazaritza, abelazkuntza, oihantzantza eta arrantza ...	5.486,2	16.900,1	— 11.413,9	4.587,6	2.978,1	1.609,5
2.— Meagintza ... ..	805,2	8.431,5	— 7.626,3	1.054,3	650,0	404,3
3.— Jan produktuak, edariak, ta- bakoa ... ..	7.996,3	20.007,0	— 12.010,7	5.607,2	5.112,2	490,0
4.— Ehunak, janzkia eta larrua ...	4.796,3	11.534,1	— 6.737,8	3.519,4	3.364,3	155,1
5.— Kautxo, produktu kimikoak eta petrolioak ... ..	25.390,2	20.683,6	4.706,6	1.692,4	5.692,6	— 4.000,2
6.— Oinarrizko metaleak ... ..	46.109,6	33.835,2	12.274,4	1.932,3	5.522,7	— 3.590,4
7.— Metalezko produktuak, maki- nagintza eta ekipoak ... ..	80.718,4	38.980,2	41.738,2	10.378,7	8.828,2	1.550,5
8.— Eskulanezko beste industriak	20.364,5	13.613,4	6.751,1	7.793,7	3.625,3	4.168,4
9.— Gasa, elektrizitatea eta ura ...	1.259,5	3.203,6	— 1.944,1	312,2	879,8	— 567,6
10.— Konstrukzioa, beira eta buz- tingintza ... ..	2.137,7	2.106,6	31,1	281,5	401,7	— 120,2
11.— Garraio eta komunikabideak	4.753,5	11.457,1	— 6.703,6	936,3	1.904,5	— 968,2
12.— Banaketa ... ..	14.108,3	6.269,7	7.838,6	2.082,5	1.395,1	687,4
13.— Zerbitzuak ... ..	16.933,7	18.754,7	— 1.821,0	4.177,2	3.020,3	1.156,9



penak handiagoak gertatzen dira inportapenak baino. Eta hone-  
la gertatzen da zortzi sektoretan.

Aski garbi ikusten da, Nafarroako ekonomia eta beste hiru probintzietakoa elkarren osagarriak direna. Alegia, Nafarroako aborokinek ezin osa ditzakete beste hiru probintzietako behar-  
rarak; baina bi ekonomien arteko joera osagarria baieztatzen du azterketak.

*J. A. M.*

#### CONCENTRACION Y COMPLEMENTARIEDAD EN LA ECONOMIA VASCA CONCENTRATION ET COMPLEMENTARITE DANS L'ECONOMIE BASQUE

Hemos dividido la Economía Vasca en dos partes: por un lado, Alava, Guipúzcoa y Vizcaya, y por el otro, Navarra.

Al analizar las diferencias entre ambos bloques, se observa la alta proporción que supone el sector industrial en el grupo de tres provincias, en tanto que el sector servicios aparece muy débil.

Por el contrario, la economía navarra aparece más equilibrada en las proporciones de producción total que logra en los sectores industrial y servicios.

Otra diferencia a resaltar es la mayor concentración de la producción en unas pocas ramas tanto en la industria como en los servicios, en Alava, Guipúzcoa y Vizcaya que en Navarra. La economía navarra ha logrado una mayor diversificación.

Al analizar la complementariedad se observa que de trece sectores en los que hemos agrupado las sesenta y tres ramas de actividad económica que aparecen en las Tablas «Input-Output», editadas por el Banco de Bilbao, ocho sectores tienen signo distinto en la balanza de bienes y servicios de las tres provincias y de Navarra. Es decir, si en las primeras presentan un superávit en la segunda tienen déficit, y viceversa. Se confirma, pues, que las economías de ambos bloques tienen tendencia a complementarse.

Nous avons considéré l'Economie basque en deux parties: d'un côté, Alava, Guipuzcoa et Biscaye; de l'autre, Navarre.

Quand on analyse les différences entre l'un et l'autre bloc, on observe la prédominance du secteur industriel dans le groupe des trois provinces, tandis que le secteur services y apparaît très faible.

Au contraire l'économie navarraise apparaît plus équilibrée que les trois autres quant aux proportions de production totale atteintes dans les secteurs industriels et services.

Une autre différence à souligner c'est une plus grande concentration de la production en peu de branches, tant dans l'industrie que dans les ser-

vices, en Alava, Guipuzcoa et Biscaye qu'en Navarre. L'économie navarraise atteint une plus grande diversification.

En analysant la complémentarité, on observe que des treize secteurs dans lesquels nous avons groupés les soixante trois branches d'activité économique, qui apparaissent dans les tableaux «Input-Output», édités par le Banque de Bilbao, huit secteurs ont le signe différent dans la balance des biens et des services des trois provinces et de la Navarre. C'est à dire, si dans les premières ils présentent un excédant, dans la seconde ils ont déficit, et vice versa. On constate, donc, que les économies des deux blocs ont tendance à se compléter.

# Nafarroaren egungo historiari sarrera

Mari Kruz Mina

## I. Karlistada eta 1841eko Lege Hitzartua

Errejimen zaharrear, Penintsula Iberiarreko Euskal Herria lau foru herrialdetan banatua zegoen: Araba, Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroa. XIX. mendean, liberalismoaren arrakastarekin, burutzen da estatuaren zentralizapen prozesua, merkatu nazionala sortu beharrak eraginik. Foru errejimeneak, beren aduana- eta fiskal autonomiaz, eragotzi egiten zuten prozesu hau. Foru errejimena- ren eraldakuntzan, ez botere zentrala bakarrik, baita foru herrialdeetako beste gizarte sektore zen- bait ere interesaturik zen, eta eragin handieneko sektoreak gainera, beren interesak zaintzeko estatu espainol liberalean integratzearekin kontaktzen zu- ten eta.

### Noblezia foruaren aurka

Nafarroan, Erriberako lur aberatsen jabe zen noblezia, guztiz interesaturik zegoen Foruen adu- ana-autonomia desegiteko, eta aduanak Ebrotik Pi- rinioetara aldatzeko, zeren horien nekazal aboro- kinek, eta ardoak bereziki, Gaztelan bait zuten be- ren merkatua. Nafarroako 1780ko Gortetan jada- nik, San Adriango markesak mugak lekuz aldatzea

defendatuko du, «Nafarroa merkatalgo nazionalen integratzeko», espainolean, jakina. Gorte berauetan, nobleen estamentuko 23k mugen aldatzearen alde bozkutzen dute, 8ren kontra.

Noblezia hau, liberalismoak berekin zekarren lurjabeoari buruzko lege-aldakuntzan ere interesatua zen. Errentapen estableness eta gauzezko ordainketaren ondoan, errentapen askeak eta diruzko pagamenduak birbalioztatu egiten zituzten haien propietateak.

Errejimen liberalak, bestalde, eliz eta zibil desamortizapenaren premia planteatzen zuen. Errejimen zaharretik estatu liberalerako bidean, egiteko inportantea dute desamortizapenek, estatu liberal kapitalistatik sozialismorako bidean nazionalizazio eta sozializazioek duten bezainbatekoa. Jabegoaren molde feudala aldatu nahi zen, pribatu eta burgesa bihurtuz. Desamortizapenaz interesatuenak, noski, dirua zutenak ziren. Eliz desamortizapenaz ere baliatuko zen noblezia honen parte bat.

Foru gobernamentuak, azkenik, autonomia politikoa suposatzen zuen, gobernu erakunde propioak izatea. Baina beste hiru euskal herrialdeetan erakunde politiko gorena udal errepresentapenean oinharrituriko Batzarre Nagusiak ziren bitartean, Nafarroan Gorte estamentalak ziren, non estamentuka bozkutzen bait zen: Apaizeria, Noblezia eta Unibertsitateak (udaletxeak), eta zeinaren lehendakaritza eliz estamentuko bati bait zegokion beti. Apaizeriaren botere instituzional hau eragozpen zen lehen aipaturiko nobleziaren gogozko eraldakuntzak zertzeko. Yanguas y Mirandak zioenez, aski zuen apaizeriak komeni ez zitzaion lege baten kontra bozkatzea, lege hura blokeiatzeko. Horra zergatik ezabatu nahi zituen klase dominatzaileak garaiko erakunde tradizionalak, gorte estamentalak, alegia.

Horregatik, aristokrazia lurjabe honetan aurkituko du liberalismoak bere laguntzarik handiena Nafarroan.

### **Nekazalgoa eta apaizeria, galtzaile**

Nekazalgoa galtzaile ateratzen da lur-hustirapen sistema berriarekin; aduana Pirinioetara aldatzeak, janari eta janzi merkea galeratzen zizkion (adua eskubideak Nafarroan 7 %, eta estatuko beste lurretan 33 % ziren eta); desamortizapenak, berriaz, hauzo-lurrak jabego pribatu bihurtzearekin mehatxatzen du. Ez da, beraz, harritzekoa aldaketari kontra egitea, eta foruak defendatzea, horrek esan nahi zuenarekin.

Baina egoera aldaketa honetan galtzailerik handiena, apaizeria izanen da. Ez zaizkio bakarrik hamarrenak kenduko eta bere

propietateak arriskutan jarriko: lehentasun politikoa ere galdu egingo du Nafarroan. Apaizeriak Nafarroan duen eragina, propietate handietatik ezezik, bere numerotik ere badatorchio; 1797an, 2.778 elizgizon bazen 221.728 bizilagunentzako, hau da, 79 biztanleko elizgizon bat. Hauei elizatik dependatzen zutenak gehituz gero, 4.739taraino iristen dira. Guztiz konprengarria, ondorioz, apaizeriaren protagonismoa tirabirakoan.

Karlisten alderdian, nekazalgoari eta apaizeriari nekazal noblezia tipia elkartuko zaie. Noblezia hau propietate tipien jabe zen, eta horretatik atera zituen On Karlosek bere armada buuruak. Jatorri horretakoak dira Guerge, Olo, Sarasa, Eraso, Mendiri, Ladrón de Cegama.

Estatuaren beste lurraldeetan, Karlismoa atzerakoia eta pribilegioak atxeki zalea bada ere, Euskal Herrian mugimendu erabat herritarra da, foruek sortutako egoera dela bide.

Karlismoaren hondamena, estatu liberalaren garaipena da, eta lau euskal herrialdeak estatu espainolean integratzea.

Gerrari azkena eman zion Bergarako Akordioaren ondotik, 1839ko urriaren 25eko legeak, euskal herrialde bakoitzeko komisio errepresentatiboak osatzea proposatzen du, gobernu zentralarekin foruen aldakuntzaz hizketatzeko, foruak Espainiako konstituzio batasunari egokitzeari buruz. Lau euskal lurraldeek batera hasten dituzte negoziaketa lanak, baina nekazal interes nafarren presio handiagoak, eta nafar aristokraziak Madrilgo Gortekin zituen harreman hestuegoek, eta Gorte estamentalekin burkatu beharrak (zeren apaizeriak indar handia bait zuen eta giro politiko berriaren kontra erabiltzen bait zuen): guzti horrek esplikatzen du gobernu zentralarekin akordio batetara heltzeko nafar komisionatuak presatuagoak izatea. Horik horrela, bidea asko erraztua zuten Gortetan Nafarroako deputatu zen Agustín Armendarizekin, sasoi hartan Gobernazioko ministro zena-ekin.

### Nafar foralitate berria

Hortik etorriko da Foruen Aldakuntza Legea edo 1841eko Lege Hitzartua, nafar *foralitate berria*-ren abiapuntu izanen dena. Izan ere, behin Foruaren alderdirik makurrenak kenduz gero (aduanak lekuz aldatuak, gorte estamentalak kenduak, desamortizatzen egiten...), hitz batez esateko, behin Nafarroa estatu espainol liberalean integratuz gero, nafar liberalak nafar berezitasunaz baliatuko dira eta foruen aldeko herri sentimendua mantenduko dute, Forutik interesatzen zaiena gordez. Autonomia

fiskal eta administratibo bihurtuko dute Forua, probintzia kontrolatuz segitzeko eta presio fiskal ttipiagoa jasatzeko. Nafarroako liberalak foruzale agertuko dira beti, nahiz eta horien foruzaletasunaren erreferentzi puntua 1841eko Lege Hitzartua izan.

## II. Oligarkia eta «Nafartzaletasuna»

Nafarroa ere, karlismoaren feudo izan delako topiko ezagunaren kontra, estatu espainoleko beste lurak bezalaxe, aristokrazia lurjabearen menpe egonen da: produkzio harreman berriei esker nekazal burgeseria izatera etorria (jaurgoak latifundio bilakatuko dira) eta desamortizaturiko lurren erosle berriein indartua zen aristokraziaren menpe.

### Nekazal burgeseria eta lurren erosleak

Komentu eta monastegietako propietate handiak, nafar politikan lehen mailan egonen diren pertsonen eskuetara pasatzen dira. Ez da kasualitatea 1852ko Diputazioan, adibidez, zazpi diputatu foraletatik sei elizari desamortizaturiko ondasunen erosle artean agertzea. Eta sinbolo esanahitsua da, Foru Jauregia bera, Karmeldar Oinhusen komentua izana, eliz desamortizapenetik jaioa izatea.

1855ean, klase dominatzaile hau *foralitate berria*-z baliatuko da desamortizapen zibilari buruz estatuarekin akordio batetara heltzeko; ez desamortizapena galerazteko, jakina, baizik Diputazioetik kontrolatu ahal izateko, eta honela estatuari eman beharreko salmenten % 20ko zergetatik aske izateko. Horrela, Hego-Nafarroako hauzo-lur eta eskorta gehienak jabego pribatu egingo dituzte, iparraldeko baso eta pentzeen hauzo-jabegoa errespetatuz hala ere; ez zitzaien eta hainbeste interesatzen. Bigarren desamortizapen honek indartu egingo du nekazal burgesiaren nagusigoa, baina baita hegoaldeko nekazalgoaren protesta areagotu ere; eta geroztik, eskortzen erreibindikapenak gaur arte iraungo du.

Burgeseria lurjabe hau, estatuko beste herrietakoa bezalaxe, liberalismo moderatuaren politikari jarraikiko zaio lehenik, eta liberalismo kontserbazaleari gero. Foru errejimenak ematen dien kontrolbidearekin, lurjabeok betidaniko lur-estrukturaren barnean gordeko dute Nafarroa, eta industrigintzari muzin egingo diote, demografia eta ekonomia geldieraziz.

1857tik 1930era artean, 300 milatetik 100 mila nafar, beren

lurraldea utzi eta lan bila abiatu beharrean izan dira. Hauetarik asko, Bizkaia eta Gipuzkoa euskal probintzietara aldatuz.

### **Nafartzaletasunaren ideologia**

#### *Euskal abertzaletasunaren aurka*

Klase nagusi hau izango da preseski, *Navarrismo* edo Nafartzaletasunaren ideologiaren sortzaile. Nafartzaletasuna, nafar berezitasuna nabarmen baten agergerri da, dudarik gabe, eta *foralitate berria*-ren defentsan finkatuko da, botere zentralaren behin eta berrizko erasoaldien kontra. Baina Nafartzaletasun hau be-  
 rau, geroxeago, Euskal Abertzaletasunak euskal batasunaren alternatiba politikoa lehen aldiz proposatuko duelarik, politikoki erabilia izango da, nafar oligarkiaren probintzi mailako nagusigoa arriskutan jarriko lukeen batasun zabalago batetan integrazte asmo ororen aurka. Horren espresio bideak hauk izango dira: *El Eco de Pamplona* lehenik, *El Eco de Navarra* gero, eta *Diario de Navarra* 1903az geroztik gaur arte.

Nafartzaletasun honek ez luke alderdi politiko baten monopolio izan nahi. Bestalde agertzen da, alderdien eta klaseen arteko diferentzien gainera: «Nafarroaren interesak gauza guztien gainera», honela herri osoaren interesak oligarkiaren interesekin nahasiz. Bide honetatik, nafar herri bizitza despolitizatu egin nahi zen, administrazio bihurtuz politika. Horregatik hain zuzen, oligarkiaren prentsa ez da behin ere alderdi prentsa bezala agertzen, baizik eta itxuraldatu egiten da beste titulu ordeko batzuren pean: «Nafarroako interes material eta moralen defentzaileria» (*El Eco*), «Egunkari independentea» (*Diario*), eta hauteskundeetan kandidatura «administratibo», «independiente», «ordenezale» eta «gizarte zaintzaileak» lagunduz.

#### *Zentralismo maskaratua*

Mistika foruzale bat ukan arren, Nafartzaletasun hau ez da zentralismoaren maskara besterik. Interes ekonomikoak tartean sartu ezik, eta herri osoa mobilizatzeko ez bada (1893ko Gamazada lekuko), errazegi galtzen ditu foru atribuipeak botere zentralaren alde, ordenu publikoari eta polizia dagokionez, irakaskuntzari, soldaduskari, etab.

#### *Katolikotasun porrokatua*

Nafartzaletasunak, azkenik, katoliko porrokatutzat definitzen du bere burua. Ezin zitekeen bestela izan, faktore erlijiosoak hain eragin handia duen Nafarroa batetan, non apezpikuak ez bait ditu bakarrik hauteskundeetako kandidatuak onhartzen zein ez-onhartzen, baizik eta indulgentziak (50 egunekoak) ere ema-

ten, Margaritetan (Karlismoaren emakumeen sailean) izena ematen duten emakumeei, eta zenbait Banku ere gomendatzen, sainduagoak direlako edo. (*La Vasconia*-k, adibidez, apezpikuaren gomendioa aipatzen du bere publizitatean). 1936an, oligarkiari bere ideologiaren justifikapena eskainiko dio faktore erlijioso honek, sektore herritar handiak bere interesen alde mobiliza ditzan.

### III. Euskal abertzaletasuna

Nafartzaletasun hau eztabaidatu egingo da 1876az gero. Bigarren karlistadaren ondoren, foru errejimen kontrako kanpaina zabala bizten da estatu espainolean, 1841eko legetik sorturiko nafar foralitatea bera hauzitan jartzen duena. Baina erasoaldi 'batu honek, erantzun batua ukanen du euskal lau lurraldeen aldetik.

Erromantizismo giroak lagundurik, kultur eta literatur alorretan ukanen du erantzun honek bere adierazpenik bikainena. Bilboko «Sociedad Euskalerra» eta Nafarroako «Asociación Euskara», euskal kultur berbizkunde honen adierazgarri dira.

#### Euskal kultur berbizkundera

Nafarroako «Asociación Euskara»k, 1878ko urtarrilaren 6an sortuak, zabalduko du, hain zuzen, *Zazpiak bat* lema, eta «Revisita Euskara»ri helburu hau emango dio: «gure nazionalitatearen baieztapena zientzi alorrean»; euskal nazionalitatearena, jakina, Sabino Aranak geroago formulatuko zuen berarena.

Alabaina, baldintza sozio-ekonomikoez huts eginen dute Nafarroan, Bizkaian ez bezala, euskal identitatearen kontzientzi hartzearen kultur mugimendu hori alternatiba politiko abertzale bihurtuko. Nafar gizarte aldagaitzean ez zegoen identitatea galtzeko arriskurik, Bizkaian gertatzen ari zen bezala, industrigintza eta inmigrazioaren ondorioz. Baina, Nafarroan, batez ere, politika nazionalaz interesaturiko klase soziala falta zen. Ergile bezala, abertzaletasuna bergeseriak bultzatzen zuen une historiko hartan, nafar bergeseriak kezkatu begiratu behar, noski, bera baino bizkorragoa agertzen zitzaion bilbotar bergeseriari.

#### Eragin politiko eskasa

Euskal Abertzaletasuna, alderdi ideologiko bat baino ez da izango Nafarroan. Eta hauteskundetako horren arrakasta par-



tzialak karlistekiko eta integristekiko aliantza koiunturalen fruitu izango dira, haren ordezkari Irujo, Aranzadi, Cuchillos eta beste pertsonalitate ezagunen eraginez. 1911tik, *Napartarra* astekarian oin harturik aurkeztuko dira hauteskundeetan. 1917an, integristekin bat eginik, hiru kontzejal erdietsiko dituzte Iruñeko Udaltxean. 1922an, badituzte zortzi, karlistekin egin Aliantza Foralaren kandidatura zela medio. Manuel Aranzadi hiru aldiz segidan izanen da Gorteetan Nafarroaren Ordezkari eta Manuel Irujo foru deputatu hautatzen dute 1919, 1921 eta 1923etan, 1919 eta 1923an akta anulatzen bazaio ere.

1931n, estatu mailan lehen aldiz planteatzen delarik nazionalitateen problemari irtenbidea bilatzea, «Nafartzaletasuna»ren arrazonomendu zaharrek oztopo izaten jarraituko dute Nafarroaren beste euskal herrialdeekiko batasunerako, nahiz eta lehen batetan Errepublikaren kontra autonomiaz baliatu ahal izateak estatutuaren asmoa entzat hartzera eraman. *Dario de Navarra-k*, hala ere, gogoz kontra eta ezinbestean onhartzen du Lizarrako Estatutua.

#### IV. Karlismoa

##### 1868ko iraultza: aukera berria

Karlismoa, lehen karlistadan foru errejimena defendatu eta desamortizapena burukatu zuena, desagertu egingo da indar politiko bezala Bergarako Akordioaren ondoren. 1868ko iraultzak aukera berri bat eskainiko zion. Hala dio Roman Oyarzun-ek *Historia del Carlismo* bere liburuan: «...nadie podía vislumbrar ni la posibilidad siquiera de un resurgimiento del carlismo... fue necesario el triunfo de la revolución septembrina para que se fijaran los ojos de todos los antirrevolucionarios en Carlos VII. El carlismo casi muerto, empezó a ser mirado como una remota esperanza, como un núcleo de atracción de elementos católicos y conservadores...» Sektore sozial hau liberala zen gehienbat, baina izaturik zeukan iraultza sozialaren arriskuak.

Adibiderik argiena, Vessollatarrak ditugu Nafarroan: liberal moderatuak ziren 1833an, Estatutuaren Gorteetan Erreinuko handikia zen markesa 1834ean, eta karlista bilakatu ziren 1876az geroztik; markesa, senatore karlista izan zen lau aldiz.

Alabaina, Euskal Herriko klase herritarrentzat, 1839 aurreko foru egoerara itzultzea da gerra eta desamortizapen lana ezabatzea.

## Bi karlismo

Karlismoak, honen euskalduntasuna ukaezina bada ere, nafar kontzientziaren eta euskal kontzientziaren arteko zerikusia planteatzen du. Bigarren karlistadan, euskal Estatu konfederal batek funtzionatu ere egiten du, On Karlosen gudaosteek okupaturiko euskal lurraldeetan.

Baina burgesia kontserbazalea bereganatzeko, desamortizapen lurren erosleak errespetatu egingo dituela hitzematzen du Karlos VII.ak Morentin-go Manifestuan (1876), karlismoaren erreibindikapenik herritarrenari uko eginez.

Orduz gero, karlismoaren programak urritu egiten du edukin foruzale herritarra eta emendatu edukin katoliko anti-iraultzailea. Honen ondorio politikoa, zera izango da: karlismoaren gidaritza liberal kontserbazaleengana gero eta hurbilagotzea Restaurazio garaian, hauteskundeetarako elkar hartuz, nahiz eta haren prentsak, *El Pensamiento Navarro*-k, anti-liberalismoaren mistika mantendu, burruka harmatuaren nostalgia barne.

Hala eta guztiz ere, Nafarroan, eta erdialdean bereziki, iraun dirau karlismo herritar batek, nekazal gizarte estableak berea duen inertzia ideologikoa dela bide. Bi karlismo hauk trebeki deskribatu ditu Blasco Ibañez-ek, 1901ko Gorteetan alderdi karlistaren jokutiarri egotzen dionean Basilio Lacort-ek sorturiko *El Porvenir Navarro* egunkari errepublikarraren debekatzeko zuzengabea. Honela dio: «[delako jokutria] ez da mendira doan eta txapela janzten duen karlismoarena; baina bestearena, maltzurraena, Nafarroako kontserbazaleen lehen buru den Vadillo-ko Jaun Markesaren alde bozkatzeko dutenena, eta karlista izenez ministeriala denarena eta politikak momentuan eskaintzen dizkion irabaziez gozatzen denarena».

Karlismoaren gidaritzaren eta lekuko oligarkiaren elkar aditze nabarmen hau, beren interes berdinen adierazgarri dena bestalde, hauteskunde orduko burruka politikorik ia ezean agertuko da. Eta burrukarik ematean, pertsonalitateen artekoa izanen da, benetako alternatiba politikoen artekoa baino areago.

Kataluniatik bultzaturik, 1917az gero abiatuko den autonomi mugimenduak, alabaina, sen foruzale eta euskalduna iratzartu egingo ditu karlismoaren sektore batetan, alderdiaren barnean desakortasun zenbait sorreraziz. 1919ko «mellisten» zatiketa ez da karlismoaren pertsonalitateen arteko, On Jaime eta Mella-ren arteko etsaigoaren ondorio izanen; bi horiek autonomiari buruz eta foruen integritateari buruz errepresentatzen zituzten joera desberdinen ondorioa baizik. Foruzaleak, Gabino Martínez eta

Joakin Baleztena buru dituztela, On Jaimerekin geldituko dira; «zentralistak», aldiz, Vázquez Mellarekin joanen, Víctor Pradera buru dutela. Menturatan galdu gabe aitor daiteke, karlismoaren zatiketaren arrazoi funtsezkoa foruen arazoa izan zela. Hori adierazten du, behintzat, Víctor Praderak, Baleztena eta Martinezi *Diario de Navarra*-tik zuzentzen dizkien eskutitzetan, beren «Comité Proautonomía» famatuarekin batera, «los verdaderos explosivos de nuestro antiguo régimen» bezala salatzen dituelarik.

### Abertzaleengana hurbiltzea

Elementu atzerakoienek eta zentralistenek alderdi karlista uztearekin, errazagotu egiten zaio honi abertzaleengana hurbiltzea; eta horrela, 1921ean, Alianza Forala sortuko dute, «reintegración foral plena y estrechamiento de vínculos con las provincias hermanas» lemapean. Politika honek arrakasta izango du 1921eko hauteskunde probintzialesetan eta 1922ko munizipalesetan; abertzaleek eta karlistek Iruñeko Udaletxea eta Diputazioa kontrolatuko dituzte epe labur batez, programa progresista samar bat abiaraziz. Udaletxean: Iruñeko Zabalguneko lur espekulapenari ezezkia; Diputazioan: presupostuak bihalakotzea, heredentziei eta kapitalaren irabaziei zergak ezartzea, zerbitzu sozial-ongileak gehitzea, eta Aurrezki Kutxa Probintziala eraikitzea, bertako bankaren aldetik eragozpenak izanik ere.

Abertzaleen eta karlisten arteko elkarlan honek, Primo de Rivera-ren diktadura garaian etenezak, lau euskal probintzientzako estatutuen aldeko mugimendua abiaraztea erraztuko du Errepublikaren lehen aldirian. Baina karlismoaren barnean bazen oraindik aski elementu hura euskal politika foruzaletik aldentzeko, integrista eta mellistengana hurbilerazteko eta oligarkia nafar eta espainolaren politikarekin bat egitera eramateko.

Rodezno bezalako jaunak, birakuntza hau esplikatzeko giltzarri dira. Roman Oyarzunek adierazten digu zergatik jarraitu zuen hark karlistatan: «...de las personalidades del partido las más se fueron con Mella y algunas de las que no le siguieron a pesar de hallarse en completa penetración con él obraron así por puro cálculo, pues vieron que la masa de sus feudos permanecía con D. Jaime y se fueron tras ella porque la masa eran votos en las elecciones...» Rodeznok, alfonsinoengana hurbiltzen saiatu ondoren, *Acción Nacional* sortuko du 1931ean, Goi-cochea eta Vallellanorekin bat, Errepublikaren kontrako lehen erresistentzi indarra. Errepublikaren aurkako politika honek,

erreakzio espainolarekin kolaboratzera eramango du, eta, horretarako, estatutuaren aldeko prozesutik aldendu beharra dauka Nafarroak.

Karlismoa, «foralitateaz» ahantzirik, oligarkia indartzera dator berriz ere, hauteskundeetan erreazionario eskuindarrei oin-harri herritar bat eskainiz, eta boluntarioak, erreketek alegia, 1936an berena ez beste kausa baten alde bizia emango zutenak.

## V. Ezker politikoa Nafarroan

Nekazal gizarte inobilista batetan, aurrerazaletasunaren aldeko indar politikoak ezin zitezkeen izan bazter lekukotasun bat baino. Kontutan hartzekoa da, egungo Nafarroaren lehen aldie-tan Armadak izan zuen egitekoa. Aurrerazaletasun politikoaren izenik ospetsuenen artean lau, militarrek dira: Espoz y Mina liberal progresista, eta Serafin Olave, Moriones eta Lacort errepublikanoak.

### Nafarroako alderdi federal errepublikanoa

Nafarroako alderdi federal eta errepublikanoa, bere lehendakari Olaverekin, Euskal Herriko alderdi federaletan ongien organizatua izango da. Foru arazoari buruz, planteamendu tradiziozalen jarraitzaile agertu nahi du, baina foruaren irakurketa progresista bat eginez. 1883an, «Constitución Regional para Navarra» landu zuten Tuteran, Euskal Estatu (hobe, agian, Nafar Estatu Osoa deitzea) izan zitezkeenaren bizkarrezurtzat hartuz Nafarroa; Euskal Estatu hau Estatu Espainol federaleko beste errejioekin federatua nahi zen, eta historian zehar aldi batez edo bestez Nafarroako Erreinuaren zati izandako lurralde guztiez osatua. «Asociación Euskara»koek *Zazpiak bat* lema erabiltzen duten bitartean, federalok ez dira mintzo ez Lapurdiz eta ez Zuberoaz, baina bai Behe-Nafarroaz, eta, hegoaldeko lau probintzi-ekin batera, Errioxa ere integratzen dute. Baina beren laikotasuna zela eta, ez zuten gauza handirik egin ahal izan, katolikotasuna hain errotua duen Nafarroa batetan.

### Sozialismoaren etorrera

Mende honen lehen urteetan, sozialismoa sustriak egiten hasten da Iruñean, erresistentziako langile elkarteak direla medio. 1903an baziren hamalau, 1902az gero federakuntza bat osatuz. Gregorio Angulo izango da, 1913an, Iruñeko Udaletxeko

lehen kontzejal sozialista, liberal eta errepublikanoekiko hauteskunde koalizioan.

XX. mendearen lehen herenean, kordokadura politiko inportante baten lekuko da nafar nekazalgora. Karlismoa nekazal errei-bindikapen herritarretatik urruntzearekin, Erriberako jornalari anitz UGT sindikal sozialistara pasatzen dira, mugimendu politiko hura utzirik. 1928an, Nafarroako sozialistak «Federación Vasco-Navarra»n integratuak daude.

Nafar ezkerrek, itxaropenez hartuko du Bigarren Errepublikak, eta batez ere hegoaldeko jornalariak, lur-arazoari buruzko erantzun egokia espero bait dute harengandik. Anarkista eta sozialisten indarra inportantea izanen da Erriberan. 1932ko azkenaldian, UGTk bazituen 112 sail eta 15.000 langile, eta Tuterako Udaletxean, adibidez, 14 kontzejaletatik 9 sozialistak ziren.

Susmoz begiratuko dute autonomi arazoa, Forua gobernu errepublikanoaren neurri progresistenen kontra iharduteko bide bezala erabili nahi zela Nafarroan ikusten zutenek; izan ere, bai bait zen Nekazal Erreformaren Legea, zuzeneko zergei buruzko erreforma fiskala, eta 29. artikulua eraturiko udaletxeen berriztapena «kontraforu» kontsideratuak izan zitezten saiatzen zenik.

1936an, sozialista eta errepublikanoek —gutiago euskal aberzaleek—, faxismoaren errepresiorik gogorrena jasanen dute. Egiteko dago oraindik demokraziaren eta askatasunaren alde bizia eman zuten nafarren zerrenda.

Euskaratzailea: **Joan Joxe Iturrioz**  
M. K. M.

#### INTRODUCCION A LA HISTORIA CONTEMPORANEA DE NAVARRA INTRODUCTION A L'HISTOIRE CONTEMPORAINE DE LA NAVARRE

En el S. XIX con el triunfo del liberalismo, culmina el proceso de centralización del estado, empujado por la necesidad de creación de un mercado nacional. En la transformación del régimen foral no sólo estaba interesado el poder central, sino también los sectores sociales dominantes de las cuatro regiones vascas. En Navarra, la nobleza terrateniente, muy ligada por otra parte a la nobleza castellana, estaba interesada en la integración aduanera, en la transformación liberal del régimen de propiedad de la tierra, en el proceso desamortizador y sobre todo en finalizar con unas instituciones políticas: las Cortes estamentales, en las que el clero

tenía un poder excesivo, que utilizaba contra el nuevo orden de cosas. Esto no quita, para que una vez suprimidos los aspectos más disfuncionales del Fuero, aprovecharan el hecho diferencial navarro y el sentimiento foral popular para convertir el Fuero en autonomía fiscal y administrativa, contenido en la «nueva foralidad», y seguir así controlando la provincia y verse sometidos a una menor presión fiscal.

A partir de entonces Navarra al igual que el resto del estado español va a estar controlada por esta clase terrateniente, que se va a identificar políticamente con los postulados del moderantismo, primero, y del conservadurismo después. Va a ser precisamente esta oligarquía, la generadora de la ideología del NAVARRISMO; y cuando el Nacionalismo Vasco plantee por primera vez en la Historia una alternativa política unitaria vasca, este navarrismo a ultranza va a ser utilizado como arma política contra cualquier intento de integración de Navarra en una unidad superior que pusiera en peligro la hegemonía de la oligarquía navarra en la provincia.

El Carlismo que en la 1.<sup>a</sup> Guerra carlista había defendido el régimen foral y se había opuesto a la desamortización, en 1876, para atraerse a la burguesía conservadora, renuncia a sus reivindicaciones más populares y foralistas y aumenta el contenido católico y contrarrevolucionario de su programa. Sin embargo, el movimiento autonómico de 1917, va a despertar en un sector del carlismo su vena foral ocasionando tensiones en el seno del partido que acabarán en la escisión de 1919. La salida de los elementos más reaccionarios y centralistas capitaneados por Víctor Pradera, del partido carlista, posibilitará el acercamiento de éste a los nacionalistas vascos, que formarán en 1921 la Alianza Foral, y cuyos éxitos electorales les llevarán a controlar aunque por breve tiempo el Ayuntamiento de Pamplona y la Diputación y realizarán una política foralista y relativamente progresista. Esta colaboración facilitará en 1931 la puesta en marcha del movimiento estatutista vasco, pero de nuevo el carlismo, olvidándose de la «foralidad» volverá a reforzar las filas de la oligarquía brindando a la derecha reaccionaria una base popular en las elecciones y unos voluntarios, los del requeté, que en 1936 iban a dar su vida por una causa que no era la suya.

Au XIX<sup>ème</sup> siècle, avec le triomphe du libéralisme, s'impose le procès de centralisation de l'état, poussé par la nécessité de créer un marché national. Dans la transformation du régime foral non seulement le pouvoir central était intéressé, mais aussi les secteurs sociaux dominants des quatre régions basques. En Navarre, la noblesse terrienne, très liée d'ailleurs à la noblesse castillane, était intéressée à l'intégration douanière, à la transformation libérale du régime de propriété foncière, au procès de désamortisation et surtout à mettre un terme aux institutions politiques: les Cortes «estamentales» dans lesquelles le clergé avait un pouvoir excessif qu'il utilisait contre le nouvel ordre de choses. Ce qui n'empêche pas qu'une fois supprimés les aspects moins favorables du «Fuero», on profite du fait caractéristique navarrais et du sentiment foral populaire pour convertir le Fuero en autonomie fiscale et administrative, expression de la «nouvelle foralité», et pour continuer ainsi à contrôler la province et également se voir soumis à une plus légère pression fiscale.

Dès lors, la Navarre, comme l'ensemble de l'état espagnol, va être contrôlée par cette classe terrienne, qui va s'identifier politiquement avec les postulats du modérantisme d'abord, et ensuite du conservatisme. C'est

précisément cette oligarchie qui sera génératrice de l'idéologie du NAVARRISMO. Et lorsque le Nationalisme Basque posera pour la première fois dans l'histoire une alternative politique unitaire basque, ce navarrisme outrancier sera utilisé comme arme politique contre n'importe quelle tentative d'intégration de la Navarre en une unité supérieure qui mettrait en danger l'hégémonie de l'oligarchie navarraise dans la province.

Le Carlisme, qui pendant la Première Guerre Carliste avait défendu le régime foral et s'était opposé à la desamortisation (vente publique des biens communaux ou ecclésiastiques) en 1876 pour concilier la bourgeoisie conservatrice, renonce alors à ses revendications plus populaires et foralistes et augmente le contenu catholique et contrerévolutionnaire de son programme. Cependant, le mouvement autonomiste de 1917 va réveiller dans un secteur du carlisme sa veine forale en occasionnant des tensions au sein même du parti, qui aboutiront à la scission de 1919. Le départ des éléments plus réactionnaires et centralistes dirigés par Victor Pradera, du parti carliste, rendra possible le rapprochement de celui-ci aux nationalistes basques, qui formeront en 1921 l'Alliance Forale; leurs succès électoraux les emmèneront à contrôler, quoique pour peu de temps, la Mairie de Pampelune et la Députation, et ils réaliseront une politique foraliste et relativement progressiste. Cette collaboration facilitera en 1931 la mise en marche du mouvement statutaire basque. Mais le carlisme, oubliant la «foralité», renforcera de nouveau les rangs de l'oligarchie en offrant à la droite réactionnaire une base populaire dans les élections et des volontaires —les «requetés»—, qui en 1936 allaient donner leur vie par une cause qui n'était pas la leur.

# Nafarroako hauteskunde orokorrak

Jose I. Ruiz Olabuenaga  
Victor Urrutia

## Sarrera

### Hauteskundeen azterketarik eza

Denon burutan daukagu zer nolako tirandurak sortu dituen UCDko nafar parlamentarien posturak, Euskal Herrirako Autonomiaurrekoari buruzko Lege-Dekretoak dela eta. 1977ko ekainaren 15-eko hauteskundeetan garaile atera baziren ere, gaur dudatan jarriko genuke nafar diputatu horien ordezkari izaren jatorria. Egia esateko, oso exkaxak izan dira —batere baliorik gabeak direla ez esatearren— egun horretako hauteskundeetako buruz egin diren azterketak. Eta horrexegatik, nolabaiteko eritzi kolektibo lauso ea dudamudazko bat sortu besterik ez dute egin. Lerrotxo hauen bidez, beraz, ondorio batzu atera nahi genituzke —sinpleak izango badira ere, garbiak ordea— hauteskunde horien benetako esanahiari buruz.

### Presio zentrala

Hasteko, esan dezagun Nafarroako hauteskundeak, erresuma osoan bezala, ez zirela boterearen presiotik salbatu. Beste arazo batekin aurkitzen ziren, ordea, hemen: euskalduntasunaren aldeko kausa ahularekin, alegia. Guztia, Espainiako Telebistaren eta erresumako astekari eta egunkariengatik,



batipat. Presio sozial honek oso ondorio grabeak izan ditu, dudarik gabe, nahiz eta ezin baieztatu, bestalde, konbokatoriaren erresultaduak presio guzti horren arabera gertatu direnik.

### **Abstentzio marjena**

Abstentzioaren aldetik ere eman zen marjen bat, nahiz eta marjen hori ez izan Bizkaia, Gipuzkoa edo Estatu mailako beste zenbait probintziaren mailakoa. Gero esan behar da, baita, horren intzidentzia ez dela hain sistematikoa izan, herri konkretu batzu salbu. Guzti horregatik, bada, eta hitz batean esateko, ezin esan daiteke balantza politikoa joera batengana ala bestearengana erortzen denik.

### **Bereizgarriak nagusienak**

#### **Atomismo politikoa**

Nafarroako hauteskundeetan garbien nabarmentzen dugun gauza *atomismo* politikoa da. UCD bera ere ozta-ozta iritsi da ehuneko 28ra; bigarrena berriz, ehuneko 20rekin jarraitzen zaio; ehuneko 7tik 9rako batekin hirugarrena, laugarrena eta boskarrena. Gauza bitxia, benetan: bi bloke nagusiak bateratuta ere, ez dira boz-emaita guztien erdira ere iristen. Eta badira hamabi partiduraino, ehuneko 2aren maila iragan zutenak.

#### **Metropoliko eta inguruneke botoen desberdintasuna**

Bigarren karakteristikarik nabarmenena, metropoliko botoaren eta inguruneke botoaren arteko desberdintasunean bilatu behar da. Nafarroaren metropoligunea edo nukleoa, Iruñeak eta beste ingurumariak (Burlada, Villava, Antsoain, Zizur...) osatzen dute. Eta metropoliak, probintziako gainerakoaren gonbarazioan, aski desberdin eman zuela botoa esan behar da. Metropoliarren botoak gaurregun suposatzen duenaz aparte (nafar hautesleriaren ehuneko 41,5), areagotu egin behar da horren garrantzia. Zeren gero eta haundiagotuz baitoa, eta pauso bizitan gainera, nafar metropoliratuaren kopurua. Hitz batean esateko, dudarik ere ez dago metropoliko hauteskundearen pisua astunagoa izango dela hurrengo hauteskundeetan.

Aipatu dugun atomismo politikoa hori, bestalde, nabarmenago agertzen da motropolian, ingurumarian baino. Horrek esan nahi

du, alderdi minoritarioci ugaldu egin zaiela hautesleria. Bi bloke nagusiak, ordea (UCD eta PSOE, alegia), galeran atera dira bertan.

### **Alderdi politiko estatalen arrakasta**

Hirugarren karakteristika, alderdi politiko «estatalen» (UCD, PSOE, AET, PC...) arrakastarekin zertuko genuke. Izan ere, horiek lortu dute, gonbaraziorik gabe gainera, botorik gehiena. Eta horiez aparteko alderdiek, alderdi «nafarrek» («nafar» hitzarekin Espainia mailan oihartzun edo adarrik gabeak esan nahi da), ehuneko 35,7 exkax bat besterik ez zuten lortu. Honela AFN, UAN, UNAI, FNI, APN, MONTEJURRA taldeek. Bien bitartean, ehuneko 63,3 lortu zuten estatalek (UCD, AET, PSOE, FDI, PSP, PCE, FUT).

*Politika nafartzalea* ausente egon bazen iragan hauteskundee-tan, ez zen presentean egon *politika euskaltzalea* ere. Apenas lortu baitzuen honek ere halako arrakastarik. Esan dezagun bi bloke zirela euskaltzaletasunaren ordezkari bezala: UAN eta UNAI alegia. Bada, bi blokeren artean ez zuten hautesleriaren ehuneko 16,2 ttiki bat besterik lortu. Mili asko dantzatu da, orduz gero, PNVren hankasartzeari buruz. Bere izen historikoa-rekin azaldu behar (omen) baitzuen horrek, eta ia inork ere eza-gutzen ez zuen «matrikula» ezarri zion bere buruari. Hala ere, ondorioak ez ziren, seguraski, oso bestelakoak izango, nahiz eta beste kanpaina taktika batekin jokatu.

Itxurazko desarrazoi honen arrazoa, nafartzaletasuna, nafartzaletasuna bezala, sekula hauteskundearen sutatik pasa ez delako ote den ematen du. Nafartzaletasun euskaltzalea jarri ez zen bezalaxe, bestalde. Horregatik, argi dagoela dirudi, botoak harra-patzeko interesarekin Nafarroan erabili zuten hauteskunde auto-nomiaren estrategia hori, ez zela han Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan bezala «itsatsi». Beste era batera esateko, Nafarroako hau-teskundeak espainol hutsak izan ziren.

### **Hiru ondorio**

#### **Ordezkaritzarik eza**

Soziologi mailan ere atera daitezke beste hiru ondorio nagusi, 1977ko nafar hauteskundeetatik. Lehenengo, ez dagoela inongo talde politikorik Nafarroaren ordezkaritza egin dezakeenik. UCD-

ren ehuneko 28,5eko garaipen hori, ez da aski nafar herriaren desio edo gogoaren ordezkari dela aldarrikatzeko.

### Planteamendu espainolista

Bigarren, nafartzaletasuna bera ez dela oraindik hauteskunderen probatik pasa. Slogan eta estereotipo propagandistikoen mailan besterik ez da aurkitzen oraindik. Zer gertatuko litzateke, orduan, behin hauteskundeetara joz gero, nafartzaletasuna amets ustel eta kimera bat besterik ez dela frogatuko balitz? Baina ez. Ziur gaude, egon, ez dela kimera hutsa. Nafartzaletasuna, benetako joera autonomista bat dela ez dago ukatzerik. Eta joera horren garantia bakarra, hauteskunde aurretik Euskal Herriaren hesparru sozio-politikoan Nafarroaren autonomia eskaintzen zuten alderdi politikoen garaipen elektoralean datza, inondik ere. Hala ere, oraingoan behintzat lider politikoen «konpromiso» hori ez da egokitu (bere balioa ukatuko ez badugu ere) hautesleriaren gogo edo desioetara.

### Botoaren ebentualtasuna

Hirugarren ondorioa, berriz, probintziaren jite metropolitanoetik datorke. Metropoliti aldeko erresultaduen desberdintasunak puntu bat jartzen digu begien bistan: hurrengo hauteskundeetan areagotu egingo dela, noski, diferentzia hori. Zeren jatorriz nekazal girotik populazio etorkina (dela Nafarroa bertatikoa, ala kanpotikoa) gero eta hiritarragotuz joango baita. Horregatik, metropoliguneko demografia hazi doan heinean, epe «laburrera» —eta erdi epera batez ere—, nafar botoak oso beste bidetatik joko du oraingoaren aldean. Esan nahi da, gaurrengungo nafar botoa, bere bataz besteko banaketan eta joera berezietan, behin-behineko botoa dela, «ebentuala» alegia. Eta gero eta bizikiago aldatuz joango dela, jadanik hasia den bezalaxe.

Ordezkaritza falta, nafartzaletasunaren ausentzia eta ebentualitatea: horra iragan ekaineko nafar hauteskunderen ariurriak. Esan beharrik ere ez dago errealitate izugarri batetan datzateela. Hauteskunderen planteamendu espainolistak, edo hobeto esateko, planteamendu postfrankista horrek, ez du eskierki zentzurik izango hurrengo hauteskundeetan. Alabaina, gauza bat jartzen zaigu begien bistan, hots, planteamendu postfrankistak hiru alternatiba aurkezten zizkiela nafar bozemaileei, eta, ikuspuntu horretatik, nahiko esanguratsua dela hauteskunderen erresultadua.

## Indarrak mapa politikoan

### Atomismo politikoa zonaka

Izugarría zen benetan Nafarroako atomismo politikoa. Hain izugarria, non ez bait zen inolako lotura edo koherentziarik ikusten Nafarroako zenbait zona administratibo edo geografikoren baitan. Aipatu zona desberdin horietan, nolabaiteko homogeneotasun bat susmatzearren edo, 8 subzonen ordezkaririk liratekeen 4 zonatan zatitu dugu probintzia.

1. 1.1. — Ipar-mendebaldeko haranak, Gipuzkoa eta Iparraldearekin mugatzen dutelarik.
- 1.2. — Sakana, Gipuzkoa eta Arabarekin mugatuz.
2. 2.1. — Metropoli aldea.
3. 3.1. — Mendebaldeko Nafarroaren erdialdea, Araba eta Logroñorekin mugatuz.
- 3.2. — Ipar-ekialdeko haranak, Iparraldea eta Aragoerekin mugatuz.
- 3.3. — Nafarroaren ekialdeko erdialdea, Aragoerekin mugatuz.
4. 4.1. — Mendebaldeko Erribera.
- 4.2. — Ekialdeko Erribera.


Zonaldeen desberdintasunak, bestalde, bi gauza nabari eskaintzen dizkigu:

- a) Ez du alderdi bat bakarrak ere antzeko portzentaien homogeneotasunik eskaintzen, inongo zonaldeetan.
- b) Ezin aurki daitezke, ezta bi zona ere, indar politikoen konposamendu edo «konbinazio» berdintsudunik.

### Euskaltzaleetasuna

Hala eta guztiz ere, eman daiteke mapa politiko horretan bizirik dirauten indar politikoen esistentzia salatzen diguten zenbait konstante. Noski, konstante horiek, beren interpretazio zuzen batetarako, aipatu ditugun hauteskunde baldintzak (planteamendu estatalista eta metropolitartasuna, alegia) ez ahanzteak eskaintzen dute.

— *Muga Euskalduna*: Euskal probintziak (Gipuzkoa eta Arabarekin) mugatzen duten zona guztiek, beren bi alternatiba euskaltzaleetan (UAN, UNAI), portzentaia handiago bat ematen dute probintzia mailako botoen batz bestekoaren aldean.



- |  |                                     |
|--|-------------------------------------|
| 1 Ipar-Mendebaldeko haranak                  | 5 Deiherria                         |
| 2 Agoitz-Irunberri arroa eta Pirinio haranak | 6 Ekialdeko erdialdea               |
| 3 Sakana                                     | 7 Mendebaldeko Erribera             |
| 4 Metropoli aldea (Iruñe arroa)              | 8 Ekialdeko Erribera (Tutera aldea) |

Gipuzkoarekin mugatzen duena, dezisiboagoa da Arabarekin mugatzen duena baino. Baztan, Sakana eta Lizarrako zonaldeak nabarmentzen dira bereziki, gainerakoen gonbarazioan.

% Probintziala	UAN	UNAI
Leitza ... ..	6,8	9,3
Goizueta ... ..	37,7	10,0
Baztan ... ..	22,2	1,6
Bera ... ..	17,2	7,7
Larraun ... ..	17,0	13,7
Lesaka ... ..	14,5	16,9
Ultzama ... ..	14,1	12,5
Etxarri Aranatze ... ..	39,1	5,5
Altsasu ... ..	12,7	2,5
Olazagutia ... ..	5,7	4,3
Uharte Arakil ... ..	5,3	23,3
Lizarra ... ..	10,4	18,1
Oteitza ... ..	3,1	22,0
Ierri ... ..	3,0	7,8
Biana ... ..	2,5	4,2
Amezkoa Bengoa ... ..	2,3	7,1
Uranzia (Los Arcos) ... ..	1,7	3,3
Sesma ... ..	1,4	2,5
Allo ... ..	1,4	6,7
Arronitz ... ..	1,3	15,3
% bataz bestekoa 1.1.ean ... ..	21,3	6,9
% bataz bestekoa 1.2an ... ..	12,2	6,1
% bataz bestekoa 3.1ean ... ..	5,8	12,1
% bataz besteko probintziala ... ..	6,8	0,3

Gipuzkoarekin mugatzen duten zonetan, UANen euskaltzale-tasunak aise gairditzin du probintzia guztiko bataz bestekoa; ez horrela, ordea, UNAIk. Arabarekiko mugetan, berriz, UNAIk lortzen du hori, eta ez UANek. Aragoerako isuraldea duen Pirinioaurreak, berriz, bai UANen eta bai UNAIren euskaltzale-tasunari, maila berdintsuan ematen dio bakoitzari bere botoa. Eta hemen ere gairditu egiten dute probintziako bataz bestekoa.

	UAN	UNAI
Agoitz ... ..	16,1	8,7
Erro ... ..	9,7	11,6

Metropoli aldeaz salbu (ondoren agertuko dugun bezala), UAN suntsitu egiten da Nafarroako mapatik. Eta UNAIk ere prozesu berdintsua jasaten du, 3.2ko zonaldearen gune batzutan (Tafalla aldean), bere bataz bestekoa ganditzea lortzen badu ere. Hala ere, bi indarrak probintziako beren bataz bestekoa baino beheratxoago gelditzen dira.

	UAN	UNAI
Irunberri ... ..	4,4	12,6
Artaxona ... ..	1,7	13,8
Larraga ... ..	—	12,2
Gares (Puente la Reina) ... ..	1,8	10,2
Tafalla ... ..	11,5	13,4
Aibar ... ..	2,0	14,5
Kaseda ... ..	1,7	10,1
Erriberri ... ..	6,8	6,4
% bataz bestekoa 3.2an ... ..	4,6	8,5
% bataz bestekoa probintzian ...	6,8	9,3

— *Metropoli aldea*: Probintziako hautesleriaren ehuneko 41,5 suposatzen duen Metropoli alde honek, Muga Euskaldunaren eta Erdialdearekin bateratzen duten eta probintziako gainerrako lurraldeetatik apartatzen duten zenbait antzeko puntu eskaintzen ditu.

Lehenengo esan behar da, euskaltzaletasuna probintzi mailan baino bortitzago agertzen dela bere bi formuletan. Bi bloke nagusiak (UCD eta PSOE), aldiz, ez dira hemen beren bataz besteko orokorrera iristen.

Eta bigarren, bi handien (UCD - PSOE) ahuleziarengatik, eta euskaltzaletasunaren (UAN - UNAI) eta indar extremoan (AET - AFN) presentziarengatik, gorengo mailak jotzen ditu atomismoak.

Bi alderdi indartsuenak, beraz, «probintzianoagoak» dira, beste lau minoritarioak (UAN, UNAI, AET eta AFN) «hiritaragoak» diren bitartean.

	UCD - PSOE		UAN - UNAI		AFN - AET	
Zizur ... ..	24,0	20,1	6,0	11,4	3,1	6,1
Burlada ... ..	25,7	25,1	4,5	12,5	4,5	9,9
Villava ... ..	17,3	19,9	7,3	12,0	6,9	8,2
Iruñea ... ..	22,7	18,2	8,5	12,2	8,9	6,8
% bataz bestekoa						
2.1 zonan ... ..	23,2	19,3	7,6	12,1	7,0	7,1
% bataz bestekoa						
probintzia osoan ...	28,5	20,8	6,8	9,3	8,3	5,0

— *Erribera*: Probintziako totala bere atomismoaz eta euskaltzaletasunaren eta indar extremisten presentziaz bereizten baldin bada, bi Erriberak (mendebaldekoa eta ekialdekoa) *minoría edo guttiengo boriexen ausentziaz* bereizten direla esan behar da. Zonalde horietan duten bataz bestekoa, probintzi mailakoa baino askoz ttipiagoa baita. Eta, gainera, horko giroa UCD eta PSOE-ren *bipartidismoak* akaparitzen du erabat.

Bi alderdi nagusi horien arteko «Derby politikoa» nabarmen baino nabarmenagoa da. Orain, kontrajarrera hori, inon baino gehiago, Tuteran aldeko Erriberan agertzen da: hertsu eta bortitza da bi etsaien arteko tirandura lurralde horietan.

	UCD	PSOE
Andosilla ... ..	18,1	42,6
Miranda ... ..	20,1	31,6
Sartaguda ... ..	21,7	28,8
Lerin ... ..	24,2	22,7
San Adrian ... ..	28,0	41,0
Karakarre ... ..	29,9	20,0
Martzilla ... ..	32,5	25,9
Azkoien (Peralta) ... ..	36,1	28,5
Mendabia ... ..	38,8	32,3
Lodosa ... ..	40,6	26,5
Falzes ... ..	41,6	21,3
Kaparrotsu ... ..	47,8	28,6
Funes ... ..	48,3	22,5
Arketa ... ..	21,7	40,6
Valtierra ... ..	22,0	20,4
Kastejon ... ..	23,2	52,4
Tutera ... ..	26,2	30,0
Kortes ... ..	28,8	48,8
Ribaforada ... ..	29,8	36,9
Alesnes (Villafranca) ... ..	32,6	36,3
Bañuel ... ..	34,4	37,3
Zintruenigo ... ..	35,4	34,4
Murtxante ... ..	35,1	19,7
Kabanillas ... ..	35,5	38,5
Fustiñana ... ..	35,6	26,8
Orbitas (Ablitas) ... ..	37,0	22,2
Kadreita ... ..	39,5	26,4
Kaskante ... ..	41,0	24,2
Milagro ... ..	43,3	20,9



	UCD	PSOE
Korella ... ..	44,6	26,5
Mendizorrotz (Monteagudo) ... ..	46,1	27,6
Fitero ... ..	48,9	25,7
% bataz bestekoa 4.1ean ... ..	33,9	28,6
% bataz bestekoa 4.2an ... ..	32,5	31,4
% bataz besteko probintziala ...	28,5	20,8

### Guttiengo extremoak

Bi guttiengo edo minoria extremo nabarmen aurkitzen ditugu Nafarroan: eskuinekoa bata (AFN) eta ezkerrekoa bestea (AET). Hautesleriaren ehuneko 8,3 eraman zuen lehenengoak, eta ehuneko 5 bigarrenak. Bi biak elkarrengandiko jite berdinekin eta UCD-PSOE gehiengoenganako antitetikoekin aurkezten zaizkigu. Hiritarrago dira kanpoko baino, lehen esan dugun bezala, alde batetik, eta probintzia osoan zehar barreiaturik aurkitzen ditugu, bestetik, zonalde bat beraren salbuespenik gabe.

### Karlismoa

Gero, karlismoaren kasuarekin aurkitzen gara. Karlismoa izan da, izan ere —bere Jurramendi edo Montejurra bertsioan—, hauteskunde erresultaduetako ausente handia. Nafarroaren erdialdeko zonetan (nola mendebaldean hala ekialdean) bakarrik aurkitzen dugu. Bere punturik indartsuenak, probintzi mailako ehuneko 3,2 exkaxeko bataz bestekoa gaudituz, honako herriotan bakarrik agertzen dira: Irunberri (ehuneko 20,3), Biana (ehuneko 18,4), Artaxona (ehuneko 11) eta Zangotze (ehuneko 10,3). Ez du beste inongo zonatako inongo herritan goragoko portzentaiarik lortu.

### Ondorio gisa

1977ko ekainaren 15eko nafar hauteskundeak, bada, planteamendu estatalista (UCD - PSOE) batetik soluzionatu ziren. Euskaltzaletasuna ere lehiatu zen jokoan sartzen. Arrakasta handirik gabe, ordea. Karlismoa, berriz, ia zeharo zokoratua geratu zen jokotik.

Etorkinen problematikak ez du zerikusirik izan, gainerako euskal probintzietan hainbesteko garrantzia izan duen bitartean.

Langileriak, aldiz, ongi sentiarazi du bere pisua Metropoli aldean eta industriguneetan (Lesaka, Altsasu, Olazagutia, San Adrian, Tuter). Zonaburuek (Iruñea, Lizarra, Tafalla, Tuter), bestalde, ezkereranzko joera iraunkor bat aurkezten dute. Eta berdintsu egiten dutela esan daiteke —neurri ttipixegoan izango bada ere— euskaltzaletasunerantz ere.

PSOEren sozialismoa, bi Erriberetan UCD etsaiaren paretsuko agertzen den bitartean, ez da ordea UNAI, AET, PSp (PC salbu) bezalako beste bloke sozialistek akaparatzten duten indarren jabe egiten.

Euskaltzaletasuna, indar garrantzitsu bat da, bi Erriberetz aparte, Nafarroa osoan. Eta beste bi blokeak bezain indartsu —edo bortitzagoa, agian— litzatekeen hirugarren taldea bezala agertzen da.

Azkenik, esan dezagun, hauteskunde aurretik akordaturiko Autonomiaurreko Itunaren bloke sinatzaileek, hautesleriaren gehiengo bereganatzea lortu zutela.

Euskaratzailea: **Gotzon Nazabal**  
J. I. R. O. — V. U.

#### ELECCIONES GENERALES EN NAVARRA ELECTIONS GENERALES EN NAVARRE

Un análisis de la consulta popular del 15 de Junio de 1977 en Navarra mostraría las características siguientes: atomismo político, discrepancia entre el voto metropolitano y el voto periférico, éxito de los conjuntos políticos de obediencia estatal (UCD, PSOE, AET, PC).

Hay pues una ausencia de navarrismo político que corre pareja con la ausencia del vasquismo político. La razón está en que el navarrismo como tal no fue sometido a prueba electoral, como tampoco el navarrismo vasquista. Las elecciones han sido, pues, simplemente «españolistas».

Un análisis detallado permite llegar a tres conclusiones:

- 1/ el hecho social de que ningún grupo político representa hoy por hoy a Navarra.
- 2/ la eventualidad del voto, a causa sobre todo del crecimiento demográfico del área metropolitana.
- 3/ el a-navarrismo electoral. Además, el examen zonal de los votos demuestra que el vasquismo es fuerza significativa en toda Navarra, excepto las Riberas, y llega a ser el tercer grupo de igual o superior fuerza a los otros dos bloques.

Une analyse de la consultation populaire du 15 Juin 1977 en Navarre montre bien les caractéristiques suivantes: atomisme politique, différence entre le vote métropolitain et le vote périphérique, et réussite des ensembles politiques d'obédience étatique (UCD, PSOE, AET, PC).

Il est notoire dans ces élections l'absence du navarrisme politique et du basquisme politique. Mais il ne faut pas se tromper parce que, en fait, le navarrisme en tant que tel ne fut pas soumis à l'épreuve électorale, de même que le navarrisme basquisant non plus. Ces élections, donc, ont été «espagnolistes».

Après une analyse détaillée, il y a trois grandes conclusions qu'il faut tirer au clair:

- 1/ le fait social qu'aucun groupe politique représente aujourd'hui la Navarre.
- 2/ l'éventualité du vote, à cause surtout de la croissance démographique de l'aire métropolitaine.
- 3/ l'a-navarrisme politique. Les données examinées en détail montrent, en plus, que le basquisme est une force signifiante en toute la Navarre, exception faite des deux «Ribera». Le basquiste est, en effet, le troisième groupe avec force égale ou supérieure aux deux autres blocs.

## Bibliografía

- AGUIRRE, J. A.: *Entre la libertad y la revolución*, Geu, 1976.
- A. I. N.: *Estructura y situación de la Industria de Navarra*, 1972.
- BELTZA: *El Nacionalismo Vasco*, Txertoa, 1976.
- CAMPION, A.: *Consideraciones acerca de la cuestión foral y los carlistas en Navarra*, Madrid 1876.
- CAMPION, A.: *Discursos políticos y literarios* (1907), La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao 1976.
- CAMPION, A.: *Navarra en su vida histórica*, in J. ALTADILL: *Geografía del País Vasco-Navarro*, Vol. I, 381-513 or.
- CAMPION, A.: *Navarra en su vida histórica*, Pamplona 1925.
- CASTRO, J. R.: *Yanguas y Miranda*, Pamplona 1963.
- CIAURRIZ, A.: *La abolición de los fueros vascos a través de la prensa* (3 Vols.), Ed. Auñamendi, 1976.
- CLAVERIA, C.: *Historia del Reino de Navarra*, Pamplona 1976.
- DONEZAR, J. M.: *La desamortización de Mendizábal en Navarra*, Ed. C.S.I.C., Madrid 1975.
- ESCODERO, M. - VILLANUEVA, J.: *La autonomía del País Vasco desde el pasado al futuro*, Txertoa, San Sebastián 1976.
- ESQUIROZ, F.: *La Historia de la Propiedad comunal en Navarra*, Ed. Semanario Merindad.
- ESTORNES ZUBIZARRETA, I.: *Carlismo y abolición foral*, Auñamendi 1976.
- EUSKALTZAINDIA: «Faktore etnik Sozio-kulturalak» in: *Euskararen liburu zuria*, 316-332 or.
- GARCIA Y BELLIDO, A.: *España y los españoles hace dos mil años*, (Col. Austral 515).
- GARMENDIA, V.: *La segunda guerra carlista. (1872-1876)*, Ed. S. XXI, 1976.

- GOMEZ CHAPARRO, R.: *La desamortización civil en Navarra*, Ed. Universidad de Navarra, Pamplona 1967.
- GUENDULAIN, C. de: *Memorias de D. Joaquín Ignacio Mencos, Conde de Guendulain, 1799-1882*, Diputación foral de Navarra 1952.
- ILARREGUI, P.: *Memoria sobre modificación de los fueros*, Pamplona 1872. Diputación foral de Navarra en la Biblioteca de Derecho foral, Pamplona 1966.
- JIMENO JURIO, J. M.: *Navarra jamás dijo no al estatuto Vasco*, Ed. Punto y Hora, 1977.
- LACARRA, J. M.: *Historia del reino de Navarra en la Edad Media*, C.A.N., Pamplona 1975.
- MONTOYA, P.: *La intervención del clero vasco en las contiendas civiles (1820-23)*, San Sebastián 1971.
- MUTILOA POZA, J. M.: *La desamortización eclesiástica en Navarra*, Ed. Universidad de Navarra, Pamplona 1972.
- NAGORE, L.: *Apuntes para la Historia. (1872-1886)*, Institución Príncipe de Viana, Pamplona 1964.
- OLAVE DIEZ, S.: *Reseña histórica y análisis comparativo de las constituciones forales de Navarra, Aragón, Cataluña y Valencia*, Madrid 1975.
- OLAVE DIEZ, S.: *El pacto político como fundamento histórico general de la nacionalidad española y especialmente como manifestación legal de la soberanía independiente de Navarra en unas épocas y en otras de su autonomía sin perjuicio de la unidad nacional*. Madrid 1878. Diputación foral de Navarra en la Biblioteca de Derecho foral, 1966.
- OLCINA, E.: *El carlismo y las autonomías regionales*, Seminarios y Ediciones, Madrid 1974.
- OLORIZ, H.: *Navarra en la Guerra de la Independencia*, Pamplona 1910.
- ORTUETA, A.: *Nabarra y la unidad política vasca*, Barcelona 1931.
- ORTZI: *Historia de Euskadi*, Ruedo Ibérico 1975.
- OYARZUN, R.: *Historia del carlismo*, Alianza Editorial, Madrid 1969.
- RODRIGUEZ GARRAZA, R.: *Tensiones de Navarra con la Administración central (1778-1808)*, Diputación foral de Navarra 1974.
- RODRIGUEZ CARRAZA, R.: *Navarra de Reino a Provincia (1828-1841)*, Ed. Universidad de Navarra, Pamplona 1968.
- SANCHEZ CARRION, J. M.: *El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra*, 1970.
- SOLA ALAYETO, A.: *Navarra. Sus tierras - I*, Ed. Gómez, Pamplona 1972.
- STRABON: *Geographia*, Lib. III (Iberia).
- TANCO LERGA, J.: *Navarra. Sus hombres - II*, Ed. Gómez, Pamplona 1972.
- UGALDE, M.: *Síntesis de la Historia del País Vasco*, Ed. Vascas 1977.
- VARIOS: *La Cuenca de Pamplona*, Ed. Caja de Ahorros Municipal de Pamplona, 1977.
- YANGUAS Y MIRANDA: *La contragerigonza o refutación jocosería del ensayo histórico crítico sobre la legislación de Navarra, compuesto por*

- D. José María Zuaznavar, Pamplona 1833. La Diputación foral de Navarra en la Biblioteca de Derecho foral, 1966.
- ZABALA, F. de: *Historia del Pueblo Vasco*. 3 vols. Añamendi 1973.
- X. X.: *Distribución de la población de Navarra por Municipios, edades y sexos. Según Padrones Municipales 1975*. (3 tomos), Diputación foral de Navarra, 1977.
- X. X.: *Cifras estadísticas de la Provincia de Navarra*, Memorias Anuales de la Cámara Oficial de Comercio e Industria de Navarra.
- X. X.: *Atlas de Navarra. Geográfico-Económico-Histórico*, Ed. Diáfana, S.A., Barcelona 1977.
- X. X.: *Tablas Input-Output de Alava, Guipúzcoa, Navarra y Vizcaya*. Servicio Estudios Banco de Bilbao.
- X. X.: *El agua y la autonomía navarra*, Comisión Gestora del Agua, 1977.
- X. X.: *Navarra. Prospectiva Año 2000*, Diputación foral de Navarra, 1977.

## Lenin paperontzira

Apirilaren barnean PCE egiteko den IX. Kongresurako tesiak prestatzen ari da haren komite zentrala. Tesiotako bat, leninismoaren ordez «marxismo erreboluzionarioa» jartzea da.

Erreakzioak, pentsa zitezkeenak dira. Alderdiaren barnean basko militante askok, zaharrenek bereziki, nekez uler dezakete hain mitifikatua eman zaien Leninen dotrina, haren politika eta burruka-ren zimentarri teoriko sendo eta mugiezina, hain errazki dinamita daitezkeenik. Katalunian, Madrilan, Asturiasen, Sorian kontrako ahots asko altxa da. Zentralismo demokratikoak utzi ohi duen baino gehiago agian. Kongresuan, onartu egingo dute noski. Zentralismo demokratikoaren sisteman horrela gertatzen dira eta kontuak. Militante asko oso kezu dago eurokomunismoaren aldaketak arin eta seriozitatez teorikoki gabe egiten ari direlako. Gainera, ordezko beste alternatiba teoriko taxuzko eta biribilik ez dute inon ikusten. Orduan zertara datoz aldaketa horiek?

Alderdikoa ez denak, presakako aldaketa horren esanahiaz eta sakontasunaz galdetzen du. Zein interes du Santiago Carrillok hone-lako aldakuntza zalapartatsutan sartzeko? Axaleko makilaia hutsa ez bada ere, zirugia estetikoaren hebakuntza kokkorretik harantz ez ote doan susmoa du askok. Eurokomunismoaren fenomeno osoaren oportunitatea bera eztabaidatzen da hemen ere.

Dogma federekin berdinduz gero, badakigu zer pasatzen den. Haren zalantzak kolokan jartzen du hau. Ideologia ororen itsumen dogmatikoki gabe funtzionatzea kosta egiten zaio fedeari. Edozein federi. Komunistari ere bai. Horregatik sortzen zaizkio honi ere Lefebvre batzu, edozein dotrin aldaketari gorrotoz erasotzen diotenak.

Egia da beste alderdi komunistek orain baino lehen ere nahi aina aldaketa egin dutela leninismoaren pantaila kendu gabe. Eurokomunismoaren izen heretikorik gabe ere. Historiaren eboluzioarekin justifikatu ohi zirenak. Horrela, izen beraren izana aldatuz joan ohi da. Izenak badu indar magikorik, dudarik gabe. Horregatik, leninismo hitza zaharkituztat ematearekin gogor jo du Carrillok. Galeriaren onginahia irabazteko musaje apainketa hutsa ote da? Barrura begira, alderdiak ez bait zeukan aldaketa asko egin ez-nik, orain arte egin duen bezala, hitza bera ukatu gabe.

Zer baztertzen da leninismoa pikutara botatzearekin? Leninismoa zer den zehatz jakin behar litzateke. Stalinen beranduko kreazioa da «marxismo-leninismoa» espresioa. Eta inola ere ez da garbia

Leninekin duen zerikusia, ez eta honek Marxekin duena. Leninek ez zuela Marxen zenbait tesi nagusi tutik ere ulertu, gauza ezaguna da, aspaldi esana dutenez (Pannekoek, Korsch, etab.) Neuk ez dut sekula ulertu zergatik hartu behar dudan Lenin pentsalari eta filosofo handitzat. Hala ere, garbi dagoena zera da, leninismoak dogmatismo stalinistaren usain nabarmena duela. Ez bait zuen Stalinek sistemaketa hori debalde egin, bere diktaduraren astakeriak zuzentzeko baizik. Izen hau baztertzearekin stalinismoaren aztarna dogmatiko eta antidemokratikoak, alderdi komunistek jaso dituztenak, uxatu nahi izan ditu.

Bistan denez, izena trukatzearekin ez da izenarena besterik kontuzten. Baina garrantzirik ez duenik ezin da esan. Alderdi baren asaldatu direnek frogatzen dutenez.

Leninen irudi sakratu, mitiko, beneratua, hainbeste intzentsu hartu duena, paperontzira doa, bada. Tesi hori IX. Kongresoko onhartzen bada, eta onhartuko du, Carrilloren Moskurekiko harremanak lehendik ozpinduta badaude, ez dira asko gozatuko. ■ *Manolo Pego*.

## Prentsa katalana krisian

Euskal Prentsa krisialdi batetan aurkitzen dela entzuten da gure artean. Kinka horren errudunak egunkari elebidun berriak direla gehitu da, gainera. Sakonagora joaz, espreski analfabetatu den Euskal Herriaren euskal eskola gabezia aipatzen zaigu. Inoren gaitzen aipua kontsolagarri pobrea izan arren, ez gaude bakarrik ezbehar hauetan. Prentsa katalana ere krisian dago.

Otsaileko zenbakietan, Kataluniako kultur aldizkari zenbaitek hitzegin du arazoaz: «La caiguda del quart poder» dio Girona-ko *Presència*-k, «La Premsa catalana en un temps de prova» idazten du *Serra d'Or*-ek. Prentsa katalanarentzat, izan ere, 1977ko urtea urte beltza izan da. Bi asteakari hil dira, eta *Avui* egunkari katalana hestualdi ekonomiko larria bentzutu behar izan du.

Zer gertatzen zaio Kataluniako Prentsa katalanari?

1966an, *Tele/Estel* asteakariak 80.000 ale ematen zituen argitara, eta 1970ean 20.000taraino jaitsi zen, berehala desagertuz. Gerratearrean, aitzitik, bestelako egoera ageri zen: Berceleonako hirian bakarrik zazpi egunkari katalan agertzen ziren, gaztelaniazkoak hama-bi ziren bitartean (egoera hura gerratean katalanarentzat aldeagotu egin zen oraindik). Gaurregunean, oster, apenas elkartzen den egunkari bakar bat aurrera ateratzeko lain indar. Lehenengo bere hila-betecetan, 100.000 ale saltzen zituen *Avui* egunerokoak; orain, alderantziz, 40.000/50.000 aletaraino erori da. Joan den abenduan, kanpaina oso bat egin behar izan da harpidetzak bildu eta herriari



berari dirua eskatzeko, kapitala ez baitzeturren, nonbait, egunkaria salbatzera.

Astekarien artean, *Arreu*-k atcak itxi behar izan ditu 1977an, nahiz eta Kataluniako ezker zabal baten ahotsa bilakatu nahi izan eta PSUC haundiaren aterpean egon. Beste hainbeste gertatu zaio *Oriñflama*-ri ere (hau Unió Democràtica de Catalunya-ren mutila eta, bokazioz, erdi-eskuinaren ahots izan arren). *Presència*, asteroko izatetik, hilabetekaritara joan da. *L'Avenç* histori aldizkaria ez da seigarren zenbakitik gora pasa.

Bizi-normaltasun bat ezin lorturik dabil, beraz, Prentsa katalana, berrogei urtek ezarritako kultur anormaltasun baten azpian dago. Gertakari horien aztertzaileek hiru arrazoin nagusi aipatzen dituzte: 1) Hizkuntz arazoa: katalanak ez du lortu oraindik (edo 1939tik hona galdu egin du) gizarte irakurlearen normalizapena. 2) Ekonomiaren ezina: merkatua irabazteko, gutieneko maila ekonomiko bati gaina hartu beharra dago, eta maila hori orain berrogei urte baino askoz gorago kokatua dago gaur merkatuaren legeetan (bi milioi ez, baizik 200 behar dira egunkari bat kaleratzeko); derrigorrezko dirutza horik ezin dira kasik herri arruntarengandik jaso. 3) Arras premiazkoa da autokritika egitea. Hona puntu pentsagarri batzu: a) Prentsa katalanari entresa zentzua falta zaio, b) informazioa, egunkarietan batez ere, direkzio politiko zabal baten faltaz ibili da (*Arreu*, komunista zen; *Oriñflama*, kristaudemokrata; *Canigó*, abertzale radikala). Hala epaitzen du Jaume Guillamet-ek arazo hau.

Gertakari eta kritika guztien artetik bai al dago irtenbiderik? Oron gain, Kataluniaren birkatalantze eta alfabetatzea eskatzen da; baina hori iristeko ere, Prentsa behar...

Nork daki Generalitat-ek, Autonomiarekin, ez ote duen irtenbide berririk ekarriko. «Prensa del Movimiento» deitua hiritarraren lepotik bizi izan da, hau da, Estatuaren subentzio bidez. Tresna hori Gobernu Autonomikoaren eskuetara baletor, agian horixe katalandu liteke eta berorri eman Estatuaren aterpea.

Bestalde, Gobernu Prentsaren ondoan, komeni da beste Prentsa katalan babestu batentzat lekurik uztea, batez ere herritar zentzua duten argitalpenak lagunduz. Honela, hizkuntza katalanak ezezik, herri askatasunak ere izanen du tokirik, kapital onez hornituta bizi den beste Prentsaren ondoan. ■ *Joseba Intxausti*.

## Tolosan «el baile de la cisterna»

«A chaud» idazten dut. Gertakariaren berririk badugu: Martxoaren 27an, goizeko ordu batetan, merkantzi tren bat irauli egin da Tolosaren erdi-erdian. Eroritako bagoien artean azido zianhidrikoz beteriko upa daramana dago. Arrisku handiko azidoa: To-

losa eta ingurua, gau hartantxe desager zitezkeen. Egunetan iraudu arriskuak, likidoa osoki beste upa batetara hustu eta handik eramane artean.

Artean, beldurra eta ikara suelto eta libre ibili dira Tolosako kaletan eta etxetan. Berriak, sasi alarmak, erdi egiak, gehiegikeriak, susmoak, susmurrak izua eta lazdua sortu dute tolosarren baitan. Ikararen ikaraz, bost mila tolosarrek herria bertanbehera utzi eta hanka egin dute. Herrian gelditu direnen artean ere, ikara horrek kilimatu du, bai, jendearen bihotz hondoa.

Ikara horretan amaitu da dena. Eta hala hobe. Gaitz erdi.

Zer ikasirik eman du, hala ere, gertakari honek.

Arriskuz inguraturiko eta defentsarik gabeko herri bat aurkitu dugu. Tolosa ez da kasu horretan dagoen bakarra. Euskal Herriko gainerako herriak ere halatsu daude, batzu okerrago: kamioa eta trenbidea herri barrutik, lantegi arriskutsuak. Edozein istripu gertatuz gero, irtenbide azkarrik ez, Autodefentsarako antolatu gabe daude gure herriak. Gerora, zerbait pentsatu beharra legoke, estranjerian egin ohi denaren antzera. Zer egin istripu bat gertatzen delarik, edo ezbehar kolektibo bat, edo eta atake bat? Ezin gaitzke gertatzearen zain egon; aurretiaz prestatu behar dira irtenbideak eta jendea. Noski.

Gertakari honen aurrean, gure pentsamendua ezin daiteke herri mailako azterketan gera. Tolosako honek, zibilizazioari begira ere zer pentsaturik franko ematen du. Teknika eta tresna berriak sortu eta sortu bihardu gizonak. Arriskuez axola gutiegirekin. Etekin eta interes pribatuek dute munta eta ardura. Ondorioa hau da: gizona gero eta arrisku handiagotan murgildurik aurkitzen dela. Berezko eta izadiko arrisku eta ezbeharrez gain, gizonak berak sortuak daude orain: eta ez dira gutienak eta ez ttipienak. Momentu honetan, txex, begira dezagun Europara: zentrale nuklearrak hor ditugu, bonba atomikoa ere bai, karreteratan garraio arriskutsuz kargaturiko kamioiak, trenbideak berdin, gure buru gainetan errusiar satelite zoro bat kontrola galduta, non eroriko den ez dakigula, Amoco Cadiz itsasontzia leherturik eta Britainiako itsasertza hondatu duelarik, hainbeste lantegi arriskutsu gure herri barnetan edo ingurutan, eta abar. Hauxe da gure zibilizazioa.

Tolosan gerta zitekeena, eta edozein herritan gerta daitekeena, zibilizazio honengatik ordaindu beharko genukeen prezioa izango litzateke. Zibilizazio honetaz baikor eta pozik ibili gara orain arte. Sestaori eta Labe Handiei egin zaizkien kantak datozkit gogora. Lotsaturik gaude orain, gure eskuetan obra zikina ikusirik. Edo eta beldurturik. Hasi berriak gara hazkuntzaren, aurrerapenaren, progresoarean auzpegi beltza ikusten. Munstrokeriak sortu ditugu. Frankenstein bere egilearen aurka bezala, ez ote da zibilizazio hau egin duen gizonaren aurka altxatuko?

Tolosakoa gertatu eta gero, arriskua alden du eta gero, jendea

ikaraterik ez dagoenean, ez dut ulertzen zergatik ez den jendearen heziketa gehiago lantzen. Jendea ezin daiteke ezjakinean luzarago eduki: arriskuen kontzientzia sortu behar zaio. Baina batez ere, edozein ezbehar gertatzen zaiolarik, irtenbideak eman behar zaizkio, zer egin erakutsi behar zaio, inprobisazioak gaingitu egin behar dira, herria prestatu behar da. Urgentziaz pentsatu behar dira geroko soluzioak.

Tolosakoaren aurreko lehen erreakzioak bide hori hartu behar-ko luke, nire eritziz. «Danza de la cisterna» edo dena delakoa, folklorismo hutsa iruditzen zait. Ez dut fitsik festaren aurka; baina pena litzateke okasio hau herriaren heziketarako ez baliatzea. «Danza de la cisterna», beste aukera galdu bat da. ■ *Joan Altzibar.*

## Piarres Broussain (1859-1920)

Piarres Xarriton

«Zendako hainbertze eskualdunek zuten hain maite Broussain, zergatik den haren orroitzapena luzaz egonen bihotzetan, zendako duten hanitzek bihozmin haren heriotze ustegabekoaz, dezatan erran lehen bai lehen: osoki gizona baino zelakotz oraino, izan baditeke, «eskualduna». Eskualdunak, Eskual Herria eta Broussain, oro bat zitzaizkoten, kasik, gutarik zombaiti». Horra zer idazten zuen Jean Etchepare medikuak, 1920an, maiatzaren 14eko *Eskualduna* astekarian, Piarres Broussain Hazparrnen ehortzi zuten egunetan.

Ez zukeen orduan asmatuko gure berrikerari eta idazle bikainak, 50 bat urteren buruan ez zutela ez hazpandar ez euskaldun anitzek jakinen Piarres Broussainik izan zenik ere behin Hazparrnen. Hain genuen behera eroria euskal sua eta gure euskaldungoaren kezka gure herrian!

Gazte talde bati gogoratu zaio beharrik haren erroen ikerketa abiatzea eta hazpandar zenari omenaldi bat eskaintzea.

Herriko gizonen eta Euskaltzaindiaren babesean, apirilaren 16rako prestatu da omenaldi hori, aste kultural baten kariatz; baina oroz gainetik, omenaldi honi esker, Piarres Broussainen bi alabek, Maddalen eta Jenofa Broussainek, berek amodio eta errespeturekin begiratu dituzten eskutitz, paper, argazki eta oroitzapen guztiak zabaldu dizkigute. Hona non horiei esker, berraurkitzen dugun eta berrezagutzen menturaz Iparralde honetan izan dugun abertzalerik handiena.

Hazparne Barrandegian sortu zen Piarres Martin Broussain, 1859ko abuztuaren 5ean, Bartolo Broussain zenaren eta Mari Salagoitiren boskarren eta azken umea. Etxekoek lehen diru puska bat baitzuten Cubatik ekarririk, haurrek bazuketen eskugain on bat bizian abiatzeko.

Dena dela, eskola handiak egin zituen luzaz Piarresek herrian eta atzerrian. Anaia zaharragoa Madrilen jartzen zelarik, Ziprian beste anaia batekin egon zen anitz urtez Parisen. Adiskide onak ere egin zituen han, bereziki Québec-etik etorri ikasle lagunak, Ouimet, Laberge, Prévost, Chrétien eta holako, beren eskutitzen arabera zeritzatenak.

1899an, medikuntzako doktorgoa iraganik, Parisetik Hazparnera itzuli zen, bere sorterrian Durruty mediku zenaren lanari lotzeko. Elizaren ondoan erosirik Jauregizaharrenea, etxe horretan jarri zuen bere egoitza.

Ordukotz harremanetan zen herritar askorekin: alde batetik, Parisen zelarik han lagundu zituen herritik etorri herritarrekin; bestetik, Euskal Herriko mendietan bakantza denboretan egiten zituen ibilaldietako lagunekin. Hiriart-Urruty, Arbelbide, Azkue eta beste euskaltzale batzurekin jadanik gurutzatzen zituen eskutizetatik ageri da, gazterik ohartua zela Barrandegiko semea euskal problemaz.

Herrira itzultzearekin, bere mediku lanaz bestalde, euskararen eta euskaltzalen batasuna lortzeko, Guilbeau, Adéma, Campion, Azkue, Arana-Goiri eta beste euskaltzaleek zerabilzaten urrats eta biltzarretan beti barne zen, askotan lagunek ararteko bezala hartzen zutela.

«Zu zara zinezko abertzalea...» idazten zion Sabin Arana Goirik Piarres Broussaini; eta, Espainiako gobernuak «Euskadiren aita», Azkuek zioen bezala, preso sartu zuenean, Broussainek eta Azkuek, bi adiskidek, haren «umekeriak» ahantzirik, goraintziak helerazten zizkioten presondegira euskaldun «gizon handiari».

Iparraldean, *Eskualduna* astekariaren hazpandar buruzagiari, Hiriart-Urruty apezari, ahal zuen laguntza guztia ematen zion Piarres medikuak. Ber denboran, laguntza handia egiten zion ere Azkue adiskideari, orduan bere hiztegi handia prestatzen ari zenari. Eta Frantziako gobernu bortizki oldartzen baitzitzaion euskaldungoari, Pabeko prefetak debekatzen ziela euskaldun apezari beren irakaspena euskaraz ematea, Broussain eta Constantin Ziberotar mediku laguna jazarri ziren, apezpikuteigiko

jaunak eta apez asko amore ematera zihoazelarik. 1903an ziren gertakari horik.

Ondoko urtean, Ameli Baratchart, Amenduzeko andere gazte ederrarekin ezkontzen zaigu Piarres Broussain. Bi alaba pollit emanen dizkio honek: Maddalen, 1905ean sortua eta Jenofa, 1911an. Herriko kontseiluan ere sartzen da urte horietan eta Hazparneko auzapez hautatzen dute bere lagunek 1905ean. Hamabost urtez iraun behar zuen kargu horretan, lan izugarria zeramala urte dorpetan, denei erakutsiz bere bihotz ona eta Herriaren interesez zuen ardura.

Azken bost urteetan zorigaitzez, gerlaren ondorioz, Hegoaren eta Iparraren arteko harremanak gutitu egin ziren, eta gero, 1919-20ei buruz, Eusko-lkaskuntza eta Euskaltzaindia sortzearekin, auzapezgoa utzi ziolarik Janpiarre Larramendi-Agerre bere adiskide eta lagunari, bapatean hil zitzaigun Piarres Broussain.

Geroztik osoki ahantzia geneukan hazpandarrek gure herritar handia. Hainbestetaraino ginen gure «frantseskerietan» itoak eta galduak, non ez baitzuten Hazparneko semeek amesten ahal, beren Herriko etxean berek hautaturik izan dutela hamabost urtez, Sabin Arana, Resurrezion Azkue eta Koldo Eleizalde-ren adiskide min bat, egiazko abertzale bat.

Eta bagaude, beste Jaurgain, Constantin, Etcheverry-Ainchart, Dourisboure, Daranatz batzuren eskutitz eta paperak aurki, bil eta iker bagenitza, ez ote genezakeen hauteman iparralde honetan berean ustegabeko berri asko.

Hor dugu Iparralde honetan berean gure artxiboen problema.

P. X.

MUJIKA, J. A.: **Testuak aztertzen.** Gero, Bilbo, 1978. 196 or. 11 x 18. Salneurria, 320 pta. 1974eko Agora Saria. Azala: Ramon Zuriarrain.

Nabaria da euskal literatur kritikaren arloan testu azterketari buruz gertatzen den hutsunea. Argi dago, bestalde, hutsune hau betetzen hasteko premia larriagotu egin dela azken urteotan, ikastolen mugimenduak iritsi duen heldutasuna gogoan hartuz gero, zeren testu azterketaren teknikak, inon lekurik badu, irakaskuntzaren lehen eta bigarren mailan baitu, eta ongi merezia izan ere.

Egileak hitzaurrean bertan adierazten digunez, ikastola eta lizeotan euskal literatura azaltzen ahalegintzen diren andereño eta irakasleei lagungarri gerta dakiekeela usteak bultzatu du liburua kaleratzera. Eta horretan datza liburuaren balio ukazina. Ez du Mujikaren liburuak berezko aportaziorik eskaintzen literatur kritikaren alorrean: ez da hori haren helburua, testu azterketarako metodo jakin bat aurkeztea eta zenbait euskal testutan egiaztatzea baizik.

Liburuak bi zati nahikoa desberdin ditu. Lehen, sarrera jenerala, metodologikoa da, eta lau kapitulutan banatzen da. Lehenengoan, literaturtasunaren kontzeptua (literatur kritikan gaurregun funtsezkoena) azaltzen digu egileak, laburki baina aski argi. Bigarrenean, testu azterketa ez dela azterketa linguistiko hutsa, ez literatur lanaren inguru sozial, politiko eta kulturalaren azterketa, ez perifrasis soila, ez kritikoaren erudizioa agertzeko atxakia, ezta ere (zenbat honetatik gure literatur kritikan!) irakurlearengan sorrerazi dituen inpresioak aitortzea, adierazten zaigu hitz eta adibide laburretan. Gaiaren eta formaren arteko arazoa ia bidebatez ukitu ondoren, laugarren kapituluan testu azterketa metodo posible bat eskaintzen zaigu. Hau da, dudarik gabe, lehen zati honen parterik mamitsuena eta garrantzitsuena. Aurrekoak bezala, bakunki eta sinpleki, dibulgazio maila aski pedagogiko batez ematen zaigu, irakurlearen onerako.

Baina nire ustez liburuari baliagarritasuna ematen dion zatia, bigarrena da. Lehen zatian ematen direnak, erdarazko hainbat testu azterketa eskuliburutan aurki daitezke neke handirik gabe. Ez ordea, bigarren zatian ematen direnak. Nik dakidanez, Patri Urkizuren *Literatura eta kritika-*

-ren bukaeran egiten diren hurbilketak alde batera utzirik, ez dugu anzeko ezer euskaraz argitaraturik.

Sei literatur lan aztertzen dira bigarren zati honetan: bi poema, bi ipuin eta bi kanta. Lehenik, J. M. Lekuonaren «Errota zaar» poema aztertzen da, sakonki eta hedatuki; hedatukiegi beharbada, testu azterketak berez eskatzen duen eskematismoa ahazten baita, nire ustez, azalpenaren hainbat unetan, aztertzailcak «literatura» gehiegi egiten duelarik<sup>1</sup>. Honek ez du esan nahi, azterketa nahikoa biribildu ez denik: puntu eta alde guztiak ukitu eta arakatu dira, baieztatzen dena egoki frogatuz gainera. Nire oharra, beraz, ez dagokio azterketaren mamiari, berori hitzetan jartzeko erari baizik. Ondoren B. Gandiagaren «Esperantzari» poema aztertzen da, hildo beretik baina laburkiago, gaiak berak azterkizun gehiagorik eskaintzen ez zuelako beharbada.

Prosaren alorrean, Iratzeder-en «Ixtorio bat» ipuinaren azterketa ematen da lehenik. Zati honek erakusten du ongien, nire ustez, testu azterketaren teknikak eskaintzen dituen baliabideak, eta maisu agertzen zaigu Mujika bere lanean, batez ere ipuinaren egituraren ezaugarriak ikusterazten saiatzen denean. Ondoren, J. L. Aranguren mutil gazteak moldatutako «Txori batekin maitemindu zen arraia», hizkeraren literatur funtzioa azpimarratuz, besteak beste.

Aztertzen diren azken bi testuak, Z. Andonegiren «Aitor'en izkuntz zarra» eta Etxepareren «Heuskara, ialgi adi kanpora» kantak dira. Azterketa, kasu honetan, biak gonbaratuz egiten da, azalegitik beharbada, batez ere formaren azterketari dagokionez, eta gaiaren eta formaren arteko ego-kitze arazoa aipatzen ez delarik.

Liburuaren osotasunari dagokionez, irakurle bati baino gehiagori, batez ere irakaskintzan ari bada, bertan adibide gutxiegi dagoela, textu gutxiegi aztertzen direla irudituko zaio, eta liburuan adierazten direnak beste testuetan aplikatzeko orduan liburuak ia ezertarako ez diola balio pentsatuko du, agian. Delako horri zera gomendatuko nioke: Mujikaren liburua behin eta berriro irakur eta azter dezala, adibide bakoitzean ahalik eta gehien sakonduz. Zeren (eta hau ez da meritu hutsala) bigarren edo hirugarren irakurketan emankorrako gertatzen den liburu baten aurrean bai-kaude. Eta zera ere esango nioke: testu azterketarako ez dagoela errezeta magikorik aipatzen ari garen liburuan, baina ezta ere, noski, gai honi buruzko gainerakoetan. Eta egileari, adibide gehiagoz osatutako bigarren liburuki bat ez litzaiekeela gaizki etorriko euskal kritikagintzan ari direnei: frogatu du honetan beste hainbeste egiteko gauza dela, eta, hasieran esan dudan bezala, premia larria dago alor horretan.

<sup>1</sup> Nabari agertzen da hau Gandiagari buruzko zatian, **leihu** hitzaz ari denean.

**Oharra.** — Luis M. Muxikaren hiztegiaren bi zatien kritika zenbaki honetan emateko asmoa genuen. Baina lanaren garrantziak patxada handiagoko azterketa eskatzen duelarik, hurrengo zenbakirako uztea erabaki dugu.



DAVANT, J.-L.: **Aberri eta klase burruka euskal Mugimenduan** (Irati saila), Elkar, Baiona 1977, 295 or.

Titulua irakurriz eta autorea ezagutuz, jakin genezake, besterik gabe, nondik nora doan liburua bera: «Aberri burruka eta klase burruka ez ditut elkarretatik bereizten. Bi arazo horiei begira, euskal mugimendua osotzen duten indarrek zer dioten eta zer dagiten ikertu eta azaldu nahi nuke hemen» dio berak.

Hari honetatik, hona hemen aurkibidea: Aintzin-solas; I. Euskal mugimenduaren etorkia; II. Euzko Alderdi Jeltzalea; III. Euzkadiko Langile Klasearen Elkartasun ixilkariak; IV. ETA: Euzkadi ta Askatasuna; V. Ukatzailleen, bereizleen eta baliatzaileen eraso; VI. Enbata Oldea; VII. Ezker Abertzale baten beharra; VIII. Geroari begira; IX. Azken berri; X. Bilduma: Euskal Indarrak.

Askapen soziala — askapen nazionala: bien arteko dialektika izan da, azken hamabost urteotan bereziki, Euskal Herrian, ETAre inguruan batez ere, ibili den burrukaren eta eztabaidaren gako. Burgosko epaiketa-aren inguruan jo zuen bere gailurra agian eztabaida horrek, ETAre barruko eten nagusienetarikoa sortuz. Autorearen azterketa, hain zuzen ere, Burgosko epaiketa hartatik abiatzen da.

Uste dut, EAJ-PNVren pentsaera eta jokabidea aztertzean, gerra aurretik ezkerretik zituen taldeen, bereziki ANVren pentsaera eta jokabidea nabar-menago jarri behar zitukeela autoreak.

## **Erdal liburuak Euskal Herriaz**

ALTABIZKAR: **Euskadi Nucléaire. (Dossier n.º 1. Le dossier des centrales nucléaires au Pays Basque)**. Elkar, Baiona, 1974. 46 or. 30 x 21 zm.

*Offset*-ean multikopiatutako liburuxka honek 5 kapitulu ditu: Les Centrales Nucléaires et leurs risques. La Politique Énergétique Espagnole. Les Basques et l'Atome. Non á la Côte Nucléaire. Conclusion (provisoire).

Duela lau urte idatzirikoa liburuxka honek, ez du gaurkotasanean fitsik galdu, azken hilabeteotako gertakariekin. Aurkibidetik atera daitekeenez, azterbegi askotatik heldu dio Altabizkar lan-taldeak zentralen nuklearren arazoari. Bata bestearen ondotik datoz, fisika nuklearraz oharrak, giza organismoarekiko eraginak, energi iturrien hauzia, espainiako energi sorburuen arazoa, Euskal Herriko alternatibak, eta abar. Euskal itsasertz nuklearren aurka ateratzen dira. Erabakiak hartu aurretik, 10 bat urtetako itxaronaldia eskatzen du Altabizkar-ek ondorio horietan.

**ALTBIZKAR: Les basques, un peuple, une nation. Euskadi dans l'Europe.** Editions Elkar, S.L., (1974). 64 or. 15,5 x 11 zm.

Sarrerak eta hamaika atalburu hauek osatzen dute liburua: I. Le Pays Basque; II. Le peuple basque et sa culture; III. Les institutions; IV. Les jeux et les sports; V. La renaissance culturelle; VI. L'histoire des Basques; VII. Les Basques dans le Monde; VIII. L'économie d'Euskadi Sud et d'Euskadi Nord; IX. Le développement économique d'Euskadi Sud; X. Euskadi Nord: Industrie ou Tourisme?; XI. Demain, les Basques.

Iparraldeko lan talde batek idatzia da liburuxka, eta euskaldunei buruzko lehenengo argibide labur batzu eman nahi ditu. Badirudi, geroagoko ikasketen pizkarri eta, aurrera jotzeko, lehen gidaliburu izan nahi duela, gazteek eta sobera eskolatu gabeek Euskal nortasuna haintzakotzat har dezaten. Borondate onez egindako idazlan hau, gure eskuetara heldu aurretik zahartua etorri zaigu datu askotan.

**APALATEGI, J.: Nationalisme et question nationale au Pays basque. 1830-1976. P.N.B., E.T.A., ENBATA..., Elkar, Baiona (urterik gabe). 20,5 x 14,5 zm. 288 or., 850 pta.**

Liburuaren zatiak hauk dira: Présentation (José Miguel Beñaran Ordeñanak eginā). Introduction. I. Des généralités; II. Les classes sociales devant la question nationale aujourd'hui; 1. La haute bourgeoisie; 2. La moyenne bourgeoisie; 3. La petite bourgeoisie; 4. La classe travailleuse. III. Nationalisme: idéologies et mouvements. *Pays Basque Sud*: 1. Zumalacarregey ou le fuerisme national; 2. Sabino Arana ou la conscience nationale, le parti nationaliste basque; 3. Le mouvement E.T.A. ou le nationalisme révolutionnaire. *Pays Basque Nord*: 1. Aintzina ou le régionalisme national; 2. Le mouvement Enbata ou le fédéralisme national; 3. De mutations dans le mouvement basque du nord. IV. Conclusion. Bibliographie.

Egilearen helburua, euskal nazionalismoaren azterketa egitea da. Hiru nazionalismo mota nagusi bereizten ditu azken mende eta erdi honetan. Planteamendu teorikoetan maila gorenekoa ETak errepresentatzen duena da. Hau da gorantz doana eta Zumalakarregi eta Sabino Aranaren pentsamoldeei nagusituko zaiena.

Euskal Ezkerraren diagnosa egiteko laguntzaile egokia da Apalategiren lana.

**CARO BAROJA, J.: Estudios Vascos VIII: Sondeos históricos.** Txertoa, Donostia, 1977. 162 or. 19,5 x 13,5 zm.

Sei artikulua hauek osatzen dute liburua: 1. San Amando y los vascos; 2. Observaciones sobre el vascuence y fuero general de Navarra; 3. Arte e historia social y económica; 4. «Granaria sublimia», «horreum pensilis»; 5. El Valle de Baztán; 6. Sobre los vascos (reflexiones de 1967).

*Askatasun haizea* bilduman agertu du Txertoak liburu hau. Kolekzio honen asmoa zera da: argitara gabeko edo eta hedadura gutiko aldizkarietan agerturiko lanen berri ematea. Liburu hau ere horixe da: han-hemenka argitaraturiko Julio Caro Baroja autore ezagunaren lanak, lan etnografikoak. Erdi Aroko zenbait azterketa zehatz bildu ditu liburu honek.

Egilearen beraren ustetan, artikulua guztietan interesgarriena, lehena litzateke, «San Amando y los vascones» alegia. Gure ikuspegitik begiratuta, beste bat jar genezake honen aurretik: «Observaciones sobre el vascuence y fuero general de Navarra».

**CORNU, D.: Les travailleurs de la chaussure de Hasparren... et le sens de leur histoire.** Elkar, Baiona, 1977. 111 or. 21 x 14,5 zm.

Hiru kapitulu nagusi ditu: 1. Analyse du système social dominant; 2. Face à monde, les travailleurs réagissent; 3. Dans cette lutte, des travailleurs vivent leur foi.

Kontzientzi hartze baten ondorioz egindako lan teologikoa da: «maîtrise de théologie». Askoren artean egindako bilaketa bezala aurkeztu nahi du egileak. Horretarako, ez da langintzan dabiltzan protagonistekin mintzatu bakarrik egin; haien ahotsa agertzen ere da hor, entrebisten bidez, esaterako.

Hazparneko historia ezezagun bat ezaguterazi nahi du Dominique Cornu egileak, eskolan erakusten ez den errealitate bat. Alegia, zapata-gintzak nola funtzionatzen duen Hazparnen, hango langilearen borrokak eta kezak, Elizaren horko presentzia. Fededunak, borroka horretan, nola bizi duen bere sinesmena: horra liburuaren helburua.

**DAVANT, JEAN-LOUIS: Histoire du peuple basque. Le peuple basque dans l'histoire.** Editions Elkar, Bayonne, 1977. 304 or. 21,5 x 15,3 zm. (Hirugarren edizioa).

Daniel Landart-en euskarazko aintzin-solas baten ondoren, hamabost ataletan banatzen da liburua, oharrak azkenean emanez: De l'origine des basques. — Le Matin Basque. — Le duché de Vasconie. — Le Royaume Basque de Navarre. — La fin des libertés basques. — Euskadi est la Patrie des Basques. — Le Gouvernement d'Euskadi. — L'aliénation des Basques du Nord. — La Nouvelle Résistance Basque. — Contribution des Basques à la civilisation universelle. — Quelques grands hommes basques. — Documents. — 50 dates qui font l'histoire basque. — Quelques sigles. — Eléments de bibliographie.

Erdal munduari zuzendua da obra hau eta, gainera, neurri handi batetan, Euskal Herriko erdaldunengan euskal kontzientzia pizteko egina. Kapitularik luzeena, alde haundiarekin, azken urteetako euskal erresistentziari eskainia du. Bestalde, ia ehun orrialde, agiriz eta dokumentuz betetzen dira. Alde honetatik, iparraldeko abertzale eta abertzalegaiei zer-

bitzu on bat egin zaie. Liburuak, autoreak berak ongi dakizkien muga guztiekin ere, dagoeneko ezagutu du bere arrakasta, hirugarren edizioa baita hau.

LAMARCA, H.: **La Danza Vasca como vehículo de la ideología nacionalista**. Elkar, Baiona, 1977. 20,5 x 14,5 zm., 132 or.

Honela zatitzen da liburua: Introducción. *Primera parte*: Danza folklórica en el País Vasco y toma de conciencia de un patrimonio nacional distinto. 1. Pasado de la danza vasca; 2. Los diferentes tipos de danza; 3. Presente de la danza vasca; 4. Toma de conciencia del carácter peculiar y distintivo de la danza en la literatura. *Segunda parte*: encuesta. 1. Definición y breve historia del nacionalismo; 2. Problemática de la encuesta; 3. Análisis de las respuestas. Conclusión. Bibliografía.

Izenburuak egoki adierazten duenez, euskal dantza folklorikoaren eta nazionalismoaren edo euskal kontzientziaren arteko harremanak aztertzen ditu liburu honek. Dantza folklorikoak euskal kontzientzia isladatu egiten du. Baina garraiatu eta piztu ere bai.

Bere esperentzia pertsonalez ikusitakoarekin jabetu zen egilea honetaz. Katalana jatorriz, Baionako *Batz-Alai* dantza taldekoa da. Eta euskal dantzari izateak bere burua euskaldun sentitzeraino eragin diola sumatu du. Fenomeno horien zabaleroa, arrazoiak eta nola gertatzen den aztertu nahi izan du Lamarckak.

Azterketa soziologikoa da liburua. Eta, hain zuzen, galdeketari emandako erantzunen azterketa da interesgarriena. Ipar Euskal Herrira mugatzen da, ondorio zabalagoak ateratzen baditu ere. Hango giroa eta arazoak ezagutzeko liburu egokia da.

SAGREDO DE IHARTZA, H.: **La Vasconie et l'Europe nouvelle** (Coll. Oldar), Elkar, Baiona, 1977. 21 x 14,5 zm. 116 or.

SAGREDO DE IHARTZA, H.: **Vasconia y la nueva Europa** (Col. Oldar), Elkar, Baiona, 21 x 14,5 zm. 178 or.

Hiru zati ditu frantsesezko argitalpenak: «Les problèmes de la culture et de la langue basque»; «Les mouvements ethniques en Europe Occidentale»; «Stratégie des luttes de libération nationale en Europe et perspectives de collaboration entre l'Europe libérée et les autres peuples Méditerranéens».

Gaztelaniazkoa ez da itzulpen hutsa, «edición aumentada y corregida» baizik. Aurrekoekin batera, beste hiru zati ditu: «Resumen de las intervenciones del Sr. Sagredo durante la Confederación Internacional de las Minorías en Trieste»; «La fachada atlántica de la Europa de las Penínsulas»; «Postfácio para vascones».

Gaiaren aldetik nahiko loturik daude zati guztiak, baina berez ego-kiera ezberdinetan idatziriko lanak edo emaniko hitzaldiak dira.

«Vasconia» eta ez «Euskadi» erabili izan du beti Krudwig-ek —hau bait da autorearen benetako izena, ezaguna denez—. Honela, Euskal Herriaren burruka nazionala, Etniaren errealitateari lotu nahi izan dio.

Etnici buruz Sagredo de Ihartzak egiten duen azterketa ez da estatikoa eta metafisikoa, dinamikoa eta politikoa baizik: horrexegatik ere «los movimientos étnicos» erabiltzen du sarritan. Horien garrantzia ezberdina da gaurregungo Europa barruko Etnien iraultzarentzat; Euskal Herria gertatu da, hain zuzen ere, guztien artean gidari.

Etsai eta kontrakoentzako ez du biguntasunik; bere hizkera garratza du autoreak, eta iranka bezala erabiltzen ditu arerioak.

Borroka nazionalaren eta sozialaren arteko lotura, batasuna edo dialektika dela eta, argi eta garbi jartzen du autoreak askapen nazionalaren lehentasuna. Gaurko zenbait abertzale ezkertiar ez datorke erabat ados Krudwig-ekin, borrokaren bi alderdiak horrela bereizteari buruz.

X. X.: **Sobre la Real Academia de la Lengua Vasca. EUSKALTZAINDIA.** Servicio de Publicaciones del Ministerio de Educación y Ciencia, 1976. 26 x 24,5 zm.

Hona hemen liburuaren kapituluak: 1. Euskaltzaindi bat sortzeko asmoaren kondaira tipia; 2. Euskaltzaindiaren sortzea; 3. Euskaltzaindiaren Ichen aroko lanak (1920-1937); 4. Euskaltzaindia gerla ondoko aroan; 5. Bost euskaltzainburuak; 6. Euskaltzaindiko lagunen izendegia (oraingo lagunkideak); 7. Euskaltzaindiko lagunen izendegia (lagun zenduak); 8. 1976eko otsailaren 26ko onartze Dekretoak; 9. «Euskaltzaindia», Euskerraren Erret-Akademiaren Arautegia.

Beraz, Euskaltzaindiari buruzko punturik interesgarrienen berri ematen digu liburu honek. Erakunde horren historia, helburuak eta abar ezagutu nahi dituenak, badaki nora jo. Gazteleraz eta euskaraz dator textua.

Irudiz oparo hornitua dago liburua, gainera. Ikus daitezke hor zenbait pertsonaiaren argazkiak, euskal liburu zahar askoren atalak, XV. eta XVI. mendeetako esku-izkribu batzu, eta abar.

Interesgarria, bada, liburua, bai textu idatziaren aldetik eta bai irudien aldetik ere.

## Jaso ditugu

TARABUKUN, NIKOLAI: **El último cuadro. Del caballete a la máquina / Por una teoría de la pintura.** Gustavo Gili argitaldaria, Punto y Línea bilduma, Barcelona, 1977. A. B. Nakov-en edizioa. Itzulzailea: Rosa Feliu eta Patricio Vélez. Gaztelerazko argitalpenaren sarrera: Victoria Combalía Dexeus. 168 or. 20 x 13 zm.

FRIEDMAN, YONA: **Utopías realizables**. Gustavo Gili argitaldaria, Punto y Línea bilduma, Barcelona, 1977. Itzultzailea: Francesc Serra Cantarell. 128 or. 20 x 13 zm.

LISELOTTE eta O. M. UNGERS: **Comunas en el Nuevo Mundo: 1740-1971**. Gustavo Gili argitaldaria, Punto y Línea bilduma, Barcelona, 1977. Itzultzailea: Michael Faber-Kaiser. 160 or. 20 x 13 zm.

MARRODAN, MARIO ANGEL: **Epoca épica**. Vogos argitaldaria, Nudo al Alba bilduma, Barcelona, 1977. 86 or. 18 x 12 zm.

■ **Jakin** aldizkariaren boskarren zenbakian, J. A. Mendikuteren «Azken eskariak eta gehigarri balioen hazketak» idazlanean, 89. orrialdean, taularen goi aldean, «mila pezetatan» jartzen du, eta «miloi pezetatan» beharko luke jerri.

■ Joan Mari Torrealdayk **Jakin** 5.ean 1977ko liburuez argitaratu zuen zerrendari, osatzearren, ohar txo bat erantsi nahi lioke. Adiskide batzuren-gandik jakin duenez, liburu bat edo beste zerrenda horretan jaso gabe gelditu ziren. Hona batzu:

- 1/ **Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Diccionario Enciclopédico Vasco**, t. VIII (Corral-Declá), Auñamendi, Donostia, 622 or.
- 2/ **Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. V Cuerpo B. Sistemática. Euskal-Bibliografía**, Jon Bilbao, Auñamendi, Donostia, 602 or.
- 3/ **Introducción a la problemática vasca. Los vascos, su cultura y civilización, II**, F. Erro Lascurain, Auñamendi, Donostia, 280 or.

Bestalde, SEI Eren **Euskara mailaka - 0** irakasliburua berrargitalpentzat eman zen, eta 1977an aterala da lehendabizikoz.

**JAKIN**

aldizkaria • Cuartel, 2 • Tolosa (Gipuzkoa) • tel. 65 11 06

---

Urteko suskripzioa: 800 pta. Alea: 250 pta.